



# NAFARROA SUSPERTU REACTIVAR NAVARRA 2020-2023

AURRERABIDEA, KOHESIOA, BERRIKUNTZA.  
PROGRESO, COHESIÓN, INNOVACIÓN.

2020/8/1  
Planaren bertsio osoa

<b>1. AURKEZPENA</b>	<b>5</b>
<b>2. NAFARROAKO EGOERA BERRERAIKITZE PROZESUAN</b>	<b>8</b>
<b>2.1. Nafarroako ekonomia: oparotasuna eta kohesioa, eta zenbait desafio etorkizunari begira.</b>	<b>9</b>
<b>2.2. Koronabirusak eragindako krisiaren inpaktua</b>	<b>12</b>
<b>2.3. Nafarroako Gobernuaren premiazko erantzuna.</b>	<b>13</b>
2.3.1. Nafarroako Gobernuak osasunaren esparruan harturiko ezohiko neurriak	13
2.3.2. Neurri bereziak gizarte-zerbitzuen arloan	14
2.3.3. Neurri ekonomiko eta fiskal bereziak	14
2.3.4. Arlo sozialeko ohiz kanpoko neurriak	15
2.3.5. Aparteko neurriak langile autonomoentzat	16
2.3.6. Ekonomia suspertzeko ezohiko neurriak	16
2.3.7. Zerga- eta tributu-arloko aparteko neurriak	17
2.3.8. Neurri bereziak langileriaren arloan	21
2.3.9. Administrazio publikoak efizientziaz kudeatzeko aparteko neurriak	22
2.3.10. Ikerketa zientifikoa eta teknikoa sustatzeko ezohiko neurriak	23
2.3.11. Aparte beste hainbat neurri	24
<b>2.4. Eztabaida Nafarroako Parlamentuan: Nafarroa Suspertu Planari buruzko batzordea</b>	<b>25</b>
<b>3. 2050. URTEA IKUSMIRAN DAUKAN ESTRATEGIA BAT</b>	<b>26</b>
<b>3.1. Gure gizartearen erronka nagusiei erantzutea</b>	<b>27</b>
<b>3.2. Agenda 2030ekin artikulaturiko misioak</b>	<b>29</b>
3.2.1. Agenda 2030 Nafarroan	31
<b>3.3. Europako berreraikitze-ahaleginekin lerrokatzea</b>	<b>32</b>
3.3.1. Europar Batasunaren Suspertze Plana	34
3.3.2. Ekonomia suspertzeko Europako tresnak eta Itun Berdea	36
<b>3.4. Nafarroa Suspertu eta Espezializazio Adimentsuaren Estrategia</b>	<b>38</b>
<b>3.5. Nafarroa Suspertu Plana, erreferentzia-esparruaren barnean</b>	<b>40</b>
<b>4. NAFARROA SUSPERTU PLANAREN LEHENTASUNAK ETA JARDUKETAK</b>	<b>42</b>
<b>4.1. Ekonomia eraldatzea digitalizazioari begira</b>	<b>43</b>
4.1.1. Lotutako helburu estrategikoak	43
4.1.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak	43
L 1. COVID-19aren krisiak gehien astindutako sektoreei laguntzea	43
L 2. Nafarroako sektore estrategikoak indartzea	44
L 3. Ekintzailtza berritzailea eta ekonomia soziala	45
L 4. I+Garen arloari dagokionez, Nafarroak Europar Batasunean duen tokia hobetzea	45
L 5. Digitalizazioa sustatzea lurralde-lehiakortasuna hobetzeko	46
L 6. Eten digitala desagerraraztea	47
L 7. Azpiegiturak eta garraio-sistemak sustatzea	47
L 8. Guztien lan-aukerak aldezte	47
<b>4.2. Trantsizio ekologikoa bizkortzea</b>	<b>48</b>
4.2.1. Lotutako helburu estrategikoak	48
4.2.2. Jarduteko lehentasunak eta neurriak	48
L 9. Nafarroak toki berria hartzea, energia berriztagarrien arloan Europako erreferente izateko	48
L 10. Trantsizio energetikoa, ekonomia dinamizatzen duen elementua	48

L 11. Eraikuntza jasangarria	49
L 12. Ekintza klimatikoa eta ekonomia zirkularren sustapena	49
L 13. Basoak, ibaiak eta naturaguneak, aberastasun eta biodibertsitate iturri	49
L 14. Elikadura-sistema justua, osasungarria eta ingurumenarekiko arduratsua sustatzea	49
<b>4.3. Lurraldea modu jasangarrian egituratzea</b>	<b>50</b>
4.3.1. Lotutako helburu estrategikoak	50
4.3.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak	50
L 15. Eredu berri bat hazkunde jasangarrirako eta hiri- eta landa-eremuen arteko harremanetarako	50
L 16. Oinarrizko zerbitzu jasangarriak eta denok eskuratzeko modukoak	50
L 17. Ekintzailtza eta berrikuntza soziala garapen kohesionatuaren eta solidarioaren alde	51
L 18. Pirinioaldea eta beste eskualde behartsu batzuk suspertzea	51
L 19. Landa-eremuaren garapen ekonomikoa eta soziala	51
<b>4.4. Kohesio soziala eta aukera-berdintasuna sustatzea</b>	<b>51</b>
4.4.1. Lotutako helburu estrategikoak	51
4.4.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak	51
L 20. Pertsonak babesteko osasun-sistema bat: Nafarroa suspertzea osasuna abiapuntu hartuta	52
L 21. Errentak bermatzea	53
L 22. Babes sozialaren sarea sendotzea	54
L 23. Egoitzako laguntza eta etxeke laguntza	54
L 24. Aurrera egitea zaintzen gizarterantz	54
L 25. Gizon eta emakumeen arteko berdintasun-aukerak	55
L 26. Gazteria	56
L 27. Etxebizitza	56
L 28. Pertsonengan inbertitzea: hezkuntza eta prestakuntza	57
<b>4.5. Gure bizikidetzaren esparruan sakontzea</b>	<b>58</b>
4.5.1. Lotutako helburu estrategikoak	58
4.5.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak	58
L 29. Askatasunak eta giza eskubideak	58
L 30. Euskara, kohesio- eta aniztasun-faktorea	59
L 31. Aniztasunerako sostengua	59
L 32. Justizia	59
L 33. Kultura sustatzea bizitza aktiboa izateko	60
L 34. Kirola, bizi-kalitatearen bektore bat	60
L 35. Herritarren partaidetza	60
L 36. Nafarroa segurua eta erresilientea	61
<b>4.6. Arlo publikoaren lidergoa berrestea</b>	<b>61</b>
4.6.1. Lotutako helburu estrategikoak	61
4.6.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak	61
L 37. Baliabide gehiago eta hobeak zerbitzu publikoetarako	61
L 38. Digitalizazioa, datuen zientzia eta adimen artifiziala herritarren zerbitzuan	62
L 39. Komunikazioa eta gardentasuna	62
L 40. Administrazioaren sinplifikazioa	63
L 41. Sareak eta azpiegiturak administrazio eta gizarte moderno eta eskuragarrietarako	63
L 42. Oinarrizko ikerketa adimen artifizialaren zientzian	63
<b>4.7. Lanean mugez barnean eta mugez kanpo: kanpoaldea</b>	<b>63</b>
4.7.1. Lotutako helburu estrategikoak	64
4.7.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak	64

L 43. Europar Batasunaren funts gehiago eskuratzea	64
L 44. EBren estrategia nagusiekin lerrokatzea	64
L 45. Nafarroa, nazioartekoa	64
L 46. Nafarroa, solidario	66
<b>5. PLANAREN GOBERNANTZA</b>	<b>65</b>
<b>6. AURREKONTUA ETA GAUZATZEKO BALIABIDEAK</b>	<b>67</b>
6.1. Baliabideak mobilizatzea	68
6.2. Aurrekontu-esparrua	69
<b>7. PLANAREN AGINTE-KOADROA</b>	<b>71</b>
<b>8. I. ERANSKINA: NAFARROAKO PARLAMENTUAK ONETSITAKO EBAZPENAK.</b>	<b>81</b>
8.1. Ekonomia eta Ogasun Departamentua	82
8.2. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	84
8.3. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua	89
8.4. Lurralde Kohesiorako Departamentua	92
8.5. Hezkuntza Departamentua	94
8.6. Herritarrekiko Harremanetako Departamentua	98
8.7. Osasun Departamentua	100
8.8. Eskubide Sozialetako Departamentua	103
8.9. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua	108
8.10. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua	111
8.11. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	116
8.12. Kultura eta Kirol Departamentua	122
8.13. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua	124
<b>9. II. ERANSKINA.- NAFARROAKO PARLAMENTUAREN BATZORDE BEREZIAREN EBAZPEN-PROPOSAMENAK PLANEKO NEURRIEKIN BATERATZEA</b>	<b>126</b>

# 1. AURKEZPENA

# 1. AURKEZPENA

Gizakiek lortu duten guztia lehenago noizbait amestu egin dute. Esaldi horrekin aurkeztu nahi dut Nafarroa Suspertu Plana. Plan honek misioa izateko bokazioa du. Misioaren eta planaren arteko desberdintasuna baten eta bestearen asmoak dira, misioarena ez baita helburu batzuk betetzea soilik, ezpada arazo sozialei erantzunak ematea, egungo eredu agortuta dagoela ikusita. Plan honen bitartez, Gobernuaren misioa da aurrera egitea eredu sozial eta ekonomiko berri baterantz.

Esan genezake COVID-19ak akuilatu duela aldaketarako genuen nahia eta gogoia. COVID-19a tragedia handia izan da, bizien galera eta enpleguaren suntsiketa eragin baitu, bai eta gure bizimoldea mugatu ere. Horregatik, sakrifizio handi horrek ekarri behar du berekin denon ongiaren aldeko eginbehar zibiko handiagoa.

Bat nator Europako Batzordeko lehendakariaren asmoekin, esan zuelarik Europak buru izan beharko lukeela planeta osasuntsu baterantz eta mundu digital berri baterantz eramango gaituen trantsizioan. Eta Europako bizimoldetik abiatuta egin behar du: pertsonak elkartuz eta merkatuko gure ekonomia soziala hobetuz, munduan bakarra baita.

Agiri honen bidez marraztu ditugu gure gobernuaren agendarako gidalerroak, legegintzaldi honetakoak, baina denbora muga horretatik harago joateko bokazioarekin. Horregatik, behar-beharrezkoa dugu herritarrek eta haien eragileek bere burua nolabait islatuta ikustea agiri honetan. Ez bakoitzak berea non dagoen bila dezan, baizik eta denona bateratzeko, horrek pertsona bakoitzaren aurrerabidea ere ekarriko duelakoan.

Plan honek bat egiten du Europar Batasunak bere Suspertze Planean –Itun Berdea– jaso dituen asmoekin: pertsonen alde lan egingen duen ekonomia bat. Aro digitalera egokitutako Europa bat, Europako bizimoldearen babesean oinarritua; munduan indartsuagoa izanen den Europa bat; beste bultzada bat Europako demokraziarentzat. Europako pentsamenduarekin uztartzen diren funtsezko ideia horietan abiapuntua jarrita, jarduera-ildo batzuk ezarri ditugu. Garai hauetarako politika publikoak dira, baina, aldi berean, barrenean etorkizunaren eta ekintza senaren ernamuina daramatenak. Ambizioa da gure hautua: izan gaitezen errealistak, eska dezagun ezinezkoa, ezin baita jarraitu ikuspegi sozialetik jasanezina den egungo eredu honekin. Horretarako, plan honek bere egiten du Garapen Jasangarriaren 2030 Agenda. Agenda hori izenpetu duten herrialdeek konpromisoa hartu dute eraldaketarako neurri ausartak hartzeko, munduaren norabidea aldatu eta jasangarritasunaren eta erresilientziaren bidetik eramateko. Planak bere egiten du, halaber, Europa suspertzeko berriki sinatu den akordioa (Next Generation EU).

Nafarroaren kasuan ez da berria bokazio hori, garapen eta aurrerabiderako ereduak asmatzekoa. Joan zen mendeko 60ko hamarkadan ere Foru Diputazioak Industria Sustatzeko Programa ezarri zuen, zeinak lantegi berriak erakarri nahi baitzituen Nafarroa garatzeko, lidergo publikoa baliatuz. Programa

haren arrakasta agerikoa izan zen, eta halaxe da gaur ere. Horren erakusgarri dugu gure erkidegoak duen sendotasun industrial. Beste adibide bat dugu 1995ean, Gobernuak Energia Hidroeléctrica de Navarra enpresa publikoa eratu zuelarik, energia berriztagarrien sektorea garatzeko bitartekoa izan zedin. Ekintza haren arrakasta ere nabaria da gure ekonomian. Geroago, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak etorri dira (Moderna eta S3); hau da, geure jomuga estrategikoa Foru Komunitatearen lehiakortasuna, jasangarritasuna eta kohesio soziala areagotzeko.

Aipatu dugun bezala, planerako erreferentzia izan dira, batetik, Europar Batasunak egin dituen ahaleginak, abian jarriko den suspertzea zuzena, jasangarria eta egiazkoa izan dadin, eta Itun Berdea, eta, bestetik, 2030 Agendan bildutako Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko nazioarteko ahaleginak. Nafarroa Suspertu Planaren eginahalak estrategia horietan kokatzea garrantzi handikoa da bi arrazoiengatik: lehenengo eta behin, plana bideratuta dagoelako Europako eta nazioarteko helburu onartu batzuetara, eta, bigarrenik, lotura horien bitartez sinergiak sortzen direlako aurreikusitako esku-hartzeetan eta jarduketeta-ildoetan.

Gobernu honek ibilbide-orri hori betetzeko konpromisoa hartu du. Horretarako izanen ditugun baliabideak (langileak, aurrekontuak, finantzabidea) ez dira izanen soilik gure aurrekontuak hurrengo urteetarako esleituko dituenak. Izan ere, Europar Batasunak, helburu batzuk betetzearen baldintzapean, estatuen esku jarri dituen baliabideak ere jorratu nahi ditugu. Eta, orobat, gizarteak eta haren eragileek denon onura bilatzen duen ekonomia sozial baten zerbitzuan jartzen dituzten baliabideak ere erabili nahi ditugu.

Gauzak horrela, dei egiten diet Nafarroako herritarrei eta eragile sozial eta politikoei, zeinek bere neurrian, agiri honetan ikus dezaten islatuta bere burua eta, horrela, desberdintasunak desberdintasun, harekin identifika daitezten. Den-denok konpromiso bakar batekin: Nafarroa.

María Chivite  
Nafarroako lehendakaria

# 2.

# NAFARROAKO EGOERA BERRERAIKITZE PROZESUAN



## 2. NAFARROAKO EGOERA BERRERAIKITZE PROZESUAN


Koronabirusaren krisia igaro ondoren, Nafarroako Foru Komunitateak berreraikitze-prozesua du aurrean, eta bere indargune eta erronketatik abiatuta aritu beharko du. Nafarroa Europa hegoaldeko eskualde lehiakorrenetako bat da, Europar Batasuneko batezbestekoa baino per capita errenta handiagoa du, bai eta ekonomia dinamikoa eta gizarte kohesionatua ere.

### 2.1. Nafarroako ekonomia: oparotasuna eta kohesioa, eta zenbait desafio etorkizunari begira.

Nafarroa lurralde oparoa eta dinamikoa dugu. Halere, 2008ko krisiak inpaktu handia izan zuen hazkunde ekonomikoari dagokionez, bereziki enpleguaren arloan.


2000. urteaz geroztik Nafarroak izan duen hazkunde ekonomikoari begiratuta, Nafarroan izandako bilakaera Estatu osokoaren antzekoa izan zen, baina krisi ekonomikoan eta haren ondoko suspertzean Foru Komunitateak erregistro hobek ez ezik erresilientzia handiagoa ere izan zituen, eta toki hobea hartu zuen Espainia osoarekin alderatuta.

**BPGd-aren bilakaera. 2000=100**



Barne-produktu gordinari dagokionez bilakaera positiboa izatea loturik dago enplegu arloan ere toki hobea izatearekin, besteekin alderatuta; Foru Komunitateko erregistroak enplegu arloan estatuko batezbestekoak baino nabarmen hobek izan dira, baina urruti daude oraindik 2008ko krisia baino lehenagoko datuetatik, enplegu tasa % 60 ingurukoa baitzen orduan.

### Enplegu-tasa populazio osoarekin alderatuta



Oro har bilakaera hobea izan duenez, Nafarroako bizi-estandarrek ere Espainiako gainerako erregioetakoak baino hobek izan dira, hala per capita errentari dagokionez nola adierazle sozialei dagokionez; esate baterako, pobrezia tasa edo AROPE tasa (pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak).

#### Nafarroaren tokia, Espainiarekin alderatuta, bizi-baldintzei dagokienez


	Espainia	Nafarroako Foru Komunitatea
<b>Per capita BPGd-a</b>	25.727 euro	31.389 euro
<b>Batez besteko errenta pertsona bakoitzeko</b>	11.412 euro	13.585 euro
<b>Pobrezia erlatiboaren tasa</b>	%21,5	%8,9
<b>ARPE tasa</b>	%26,1	%12,6

Iturria: EIN

Nafarroak egoera ekonomiko dinamikoa izan du aberastasunari eta enpleguari dagokienez, eta, aldi berean, asmatu du bertako biztanleentzako kohesio sozialeko esparru zabala eskaintzen. Bestela erranda, Nafarroako Foru Komunitatearen lehiakortasunak bere horretan jarraitzen du Estatu osoarekiko, baina, Europako egoera kontuan hartuta, eta Estatu osoan bezala,

erronka garrantzitsuak izaten jarraitzen dugu, Europar Batasunaren esparruan aztertzen baditugu. Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateak bere posizio erlatiboari eutsi dio per capita errentari dagokionez, eta Europar Batasuneko eskualderik aberatsenetako bat da: goi-mailakotzat jotzen den garapen-fasean dago Nafarroa, eta aurrerapen-gune garrantzitsuak ditugu.

### Nafarroaren posizio 2019ko Eskualde Lehiakortasuneko Indizearen (RCI) funtsezko alderdietan



Nolanahi ere, esan behar da eskualde-lehiakortasunaren mugatzaile garrantzitsu batzuk estatu-mailako adierazleekin definitzen direla, eta, horren ondorioz, Europar Batasuneko estatu kideen posizioek zehazten dutela neurri handi batean eskualdeen lehiakortasun-posizioa. Izan ere, Nafarroak Estatu osoarekin duen eskualde-lehiakortasuna zenbatesten dugunean, Foru Erkidegoak gainerako autonomia-erkidegoak gainditzen ditu ia alderdi guztietan, zerbitzuen sektoreko azpiegituri eta enpresa-sofistikazioari dagokienez izan ezik.

### Eskualde Lehiakortasuneko Indizearen funtsezko alderdiak

Oinarrizko alderdiak edo zutoinak	Efizientziarekin loturiko zutoinak	Berrikuntzarekin loturiko zutoinak
Erakundeak	Goi-mailako hezkuntza eta etengabeko prestakuntza	Prestasun teknologikoa
Egonkortasun makroekonomikoa	Lan-merkatuaren efizientzia	Negozio-sofistikazioa
Azpiegiturak	Merkatuaren neurria	Berrikuntza
Osasuna		
Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren kalitatea		

Oinarrizkotzat jotako zutoinei dagokienez, Nafarroak oro har jardun ona ageri du, nahiz eta Espainiaren posizioak berak baldintzatzen duen, bai esparru makroekonomikoan, bai esparru instituzionalean. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan ditugun datuek adierazten dute erronka garrantzitsua dugula arlo horretan, eta, bereziki, beste hizkuntza batzuen ezagutzari dagokionez. Azpiegituren sektorea da azterketan argi eta garbi identifikatutako beste estugune bat, batez ere trenbideei eta bideei dagokienez, eta horiek azterketa xehatua eskatzen dute.

Eraginkortasunari buruzko zutoinetan, Nafarroak bere erreferentziazko eskualdeek eskaintzen dutenaren oso antzeko jarduna lortzen du, baina nabarmentzekoa da **helduen prestakuntzan eta kualifikazioan dagoen desoreka**, bai eta **lan-merkatuaren portaera** ere, zeinak arreta espezifiko behar baitu.

Berrikuntzari lotutako zutoinei dagokienez, Foru Erkidegoa hurbilago dago bere erreferentziazko eskualdeetatik, nahiz eta industrian zentratutako bere sektore-osaera ez den behar bezala jasotzen indizeetan, zeinak zerbitzuen sektorerantz gehiegi baitaude bideratuta. Nolanahi ere den, **hobekuntzarako tarte dago enpresen sofistizioari eta aktibo ukiezinetan egiten den inbertsioari dagokienez**, bai eta **enplegu teknologikoarekin eta teknologiaz kanpoko berrikuntzarekin lotutako zenbait alderdi handitzeari dagokionez ere**.

Laburtuz, Foru Komunitateak bizi maila altua du eta ekonomia dinamikoa eta oparoa, baina azken hamarkadan aurrerapena izan badu ere desafio garrantzitsuak ditu oraindik lehiakortasunari dagokionez Europar Batasunean, osorik hartuta, duen tokia hobetzeko. Errealitate horretatik abiatuta, Nafarroa Suspertu Planak berraktibatze-esparru bat eskaintzen du, lehiakortasun hori hobetzeko eta etorkizunean ere oparotasuna eta kohesio soziala bermatzeko, berreraikuntzako testuinguru honetan zalantza ugari dagoela kontuan hartuta.

## **2.2. Koronabirusak eragindako krisiaren inpaktua**

Mundu osoko ekonomian bezala, Nafarroako Foru Komunitateak ere pairatu ditu 2020ko udaberrian koronabirusaren krisiak sortutako ondorioak. Nafarroako ehun produktiboak osagai industrial handia duenez, balio-kate globalak gelditu izanak eragin egin dio, eta, aldi berean, zerbitzuek atek itxi behar izan dituzte konfinamenduaren neurriak zirela eta. Inpaktua oso nabarmena izan da.

Estrategia-dokumentu honen amaieran, koronabirusak gogotik astindu du Nafarroa. Alarma-egoera 2020ko ekainaren 21ean amaitzean, Nafarroak Espainiako batez besteko kopuruetatik gorako zifrak ageri zituen, herritarren datu proportzionaletan jasota. Gainerakoekin alderatuz, Nafarroa izan da pandemiak gehien astindutako lurraldeetako bat. Spatial Foresight etxeak egindako azterlanaren arabera, Nafarroa da pandemiaren efektuaren eragin handienetakoak dituen Europako eskualdeetako bat, eta, FUNCASek egindako aurreikuspenek diotenez, Nafarroan barne-produktu gordinak izanen duen beherakada Estatu osoan gertatuko denaren maila bertsuan ibiliko da.

\* Ikus: [https://www.spatialforesight.eu/files/spatial\\_theme/spatial/publications/Brief\\_2020-13\\_200513.pdf](https://www.spatialforesight.eu/files/spatial_theme/spatial/publications/Brief_2020-13_200513.pdf)

Ondorioz, azpimarra dezakegu Nafarroa dela koronabirusaren inpaktu handienetakoa jasan duen Europako eskualdeetako bat; izan osasunaren alorrean eta giza ondorioei dagokienez, eta, horretaz gainera, baita ekonomiaren aldetik ere. Nafarroa Suspertu Planak errealitate eta inpaktu horiek ditu abiapuntu, eta haiek oinarri harturik aprobetxatuko ditu lurraldearen berreskuratze-potentzialitateak, indarguneak eta erronkak. Eta halaxe lortuko du berreraikitze ekonomiko eta sozial koherentea eskaintzea irteera gisa.

### **2.3. Nafarroako Gobernuaren premiazko erantzuna.**

Nafarroa Suspertu Planaren aurrekariak izan dira Gobernuak pandemiaren hasieratik ezarri dituen presako neurriak. Neurri horiek osatu dituzte, halaber, Espainiako Gobernuak eta Europako Batzordeak hartutakoek.

Jarraian, Nafarroako Gobernuak lege-mailarekin hartutako eta Parlamentuak baliozkotutako neurriak aipatuko ditugu. Logikoa denez, horiek ez dute inola ere agortzen sailek ezohiko egoera horren aurrean egin duten kudeaketa itzela.

Ekintza horien ezarpenak eta erregulazio berriek eraginkorrako eta efizienteago bihurtu dute kudeaketa publikoa, arlo publikoan lanean aritzen direnek bere gain hartu duten konpromisoarekin betiere. Neurri horiei esker, handitu egin da pertsona zaurgarrienen aldeko babes soziala, toki entitateei bitartekoak eman zaizkie krisiari tokian tokiko ikuspuntutik heltzeko, eta enpresek eta profesionalak aukera izan dute enpleguari eusteko.

Esan genezake 100dik gora neurri horiek Suspertu Planaren oinarria ezarri dutela. Hala da, zeren agerian gelditzen baita Gobernuak eta Parlamentuak, biek bat eginda, azken hamarkadetan bizi izan dugun krisi gogorrenari heldu nahi diotela. Finean, hartutako neurriek 0 epigrafea osatzen dute, alegia COVID-19ari emandako erantzun berehalakoa eta adostua identifikatzen duen hori:

Nafarroako Gobernuak sei foru lege-dekretu onetsi ditu: esparru guztiei eragiten diete eta Nafarroako Parlamentuak ere baliozkotu ditu, gainera. Krisi honi aurre egiteko konpromiso instituzionala izan da.

#### **2.3.1. Nafarroako Gobernuak osasunaren esparruan harturiko ezohiko neurriak**

- Osasun Departamentuaren eskura jartzea osasun-zentro eta establezimendu pribatuak eta laneko istripuen mutualitateak, bai eta horietan aritzen diren langileak ere.
- Gaikuntza eman zaio Osasuneko kontseilariari izendatzeko koordinazio asistentzial exekutiboaren arduraduna hirugarren adinekoen egoitzetarako, desgaitasuna dutenen egoitzetarako, zentro psikogeriatrikoetarako eta bidezko zat jotzen diren pareko zentroetarako, bai eta egoki irizitako profesionalen koordinazio lanetan laguntzeko eginkizunak agintzeko ere.
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Nafarroako prebentzio zerbitzu guztien koordinazio exekutiboa egitea.
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak eta Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten duten mutualitateek aholkularitza eskaini diete lan autonomoa egiten duten enpresei eta pertsonari eta prebentzio zerbitzurik ez dutenei.

### 2.3.2. Neurri bereziak gizarte-zerbitzuen arloan

- Etxean zaintzaile profesionalak kontratatzeko laguntzak lortzeko baldintza batzuetatik salbuestea (ahaidetasun-lotura eta lanbide-kualifikazioa).
- Landa-eremuetarako kontratazio-araubidea zabaltzea.
- Zentro soziosanitario berriak martxan jartzeko gaikuntza, osasun-krisiaren eraginpean dauden sektore edo kolektiboek zaugarriek eman beharreko arreta indartzeko edo arreta hori modu alternatiboan emateko.
- Indarrak gabe uzten dira genero-indarkeriaren biktimetarako harrerako baliabideetan egoteko gehieneko aldiak: larrialdietako zentroa, abegi-etxea eta ostatu-etxeak.
- Genero-indarkeriaren biktimetarako harrera-baliabide berriak jartzen ahalko ditu abian, konfinamenduak areagotutako indarkeria-egoeretan emakumeek eta, halakorik balego, haien seme-alabei arreta segurtasun-baldintzetan bermatzeko.
- Mendeko pertsonen zaintzaile profesionalak kontratatzeko ematen zaien laguntza ekonomikoa areagotzea.

### 2.3.3. Neurri ekonomiko eta fiskal bereziak.

- 130 milioira arteko funts bat gaitzea (areagotzeko aukerarekin), honako gastu hauek arintzeko: osasuna, hezkuntza, gizarte-politikak, enplegua, familiak, enpresak, ETEak, autonomoak, lana eta familia bateragarri egitea, gizarte-babesa, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreentzako laguntzak eta COVID-19ak eragindako beste gastu batzuk. Funts horren kargura, 6 milioi euroko partida bat sortu da, norbera babesteko ekipamenduak, material sanitarioa eta COVID-19aren baieztapen diagnostikoko probak presaz eskuratzekoa.
- 25 milioi euroko funtsa sortu da (areagotzeko aukerarekin) Nafarroako toki-entitateek 2020. urtean honako hauekin loturik jasan behar dituzten gastuak arintzeko: gastu fiskalak, osasuna, hezkuntza, gizarte-politikak, enplegua, familiak, enpresak, ETEak, langile autonomoak, lana eta familia bateragarri egitea, babes soziala, aparteko langileak eta COVID-19ak eragindako bestelako gastuak.

### 2.3.4. Arlo sozialeko ohiz kanpoko neurriak.

#### a) Etxebizitzarekin lotutako neurriak:

##### 1.1. Etxebizitza alokatzeko laguntzak:

- Errentaren % 75era arteko estaldura hiru hilabetez zabaltzea, apirilaren 1etik zenbatzen hasita, eta alde zuzeneko izapiderik behar izan gabe, dagoeneko dirulaguntzaren onuradun izan diren alokairu babestuko pertsona edo familia guztiei.

a) Martxoaren 14tik langabe gisa izena emanda dauden pertsonen EmanZipa laguntzak emateko aukera ireki eta areagotu da.

b) Ireki eta zabaldu egin da COVID-19aren eraginpean dauden eta etxebizitza-eskatzaileren erroldan martxoaren 14a baino lehen izena emandako pertsonentzako David programako laguntzak eskuratzeko aukera, eta kendu egin da ardurapeko adingabeen baldintza.

- Errentariei errenta ordaintzeko luzamendu edo barkatze partzialak, betiere hala eskatzen badute eta baldintza jakin batzuk betetzen badituzte.

- Sustapen obrak eta birgaitze babestukoak bukatzeko epeak luzatzea.

- 2019ko zerga-ekitaldirako, Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) deritzon adierazlearen balioa igotzea; 8.616,98 eurokoa da.

- Bizigarritasun zedulen indarraldia luzatzen da 2020ko abenduaren 31ra arte, bai eta 2020ko uztailaren 1etik abenduaren 30era arte bizigarritasun zedula lortzeko eskubidea ematen duten behin betiko kalifikazioenak ere.

- Emantzipatzeko errentamenduagatiko kenkaria jasodezaketen onuradunak areagotzea.

- Automatikoki berritzea Alokairu Poltsan sartutako etxebizitzan edo etxebizitza babestuen errentamendu kontratuetako titularrei ematen zaizkien dirulaguntzak, 2020ko uztailaren 1etik uztailaren 20ra eskatu behar diren kasuetarako. Uztailaren 20an amaitzen da, hain zuzen ere, 2019ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epe arrunta.

- Toki-erakundeentzako gizarte-larrialdietarako laguntzak edo bestelako prestazio edo gizarte-laguntzak finantzatzen dira –Gizarte Eskubideen Ministeriotik eta Agenda 2030etik jasotzen den zenbatekoaren % 15 gutxienez–, 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan araututako kreditu-gehirriaren bidez dagokion banaketagatik.

- Ekonomikoki egoera ahulean dauden familietako ikasleen elikadura errazteko neurriak, eskola-jantokiak itxi izana arintzeko.

- Errenta Bermatuaren ordainketa etetea kasu jakin batzuetan.

### **2.3.5. Aparteko neurriak langile autonomoentzat.**

- 200 euroko ezohiko laguntza zuzena.

- 700 euroko ezohiko laguntza zuzena.

- Azken Foru Lege Dekretuak jasotzen duenez, jarduera profesionala aldizka egiten duten kultur sektoreko langile autonomoek eskuratzeko ahalko dute laguntza hori.

### 2.3.6. Ekonomia suspertzeko ezohiko neurriak.

- Enpresa-erakunde publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek ematen dituzten abalen eta maileguen gehieneko zenbatekoak handitzea.
- Abalen eta maileguen gehieneko arrisku bizia areagotzea.
- Gizarteratzearen eta desgaitasunaren alorreko elkarre-mugimenduko erakunde sozialek abalen eta antzeko beste berme batzuen onuradun izateko aukera, baldin eta kredituak behar badituzte, edo banku-entitateekin kontratatuta dauzkatenen zabalpena behar badute.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari kontratisten aldeko kalte-ordaina kontzeptu jakin batzuegatik, baldin eta zerbitzu-, hornidura- eta obra-kontratuak eten badituzte COVID-19aren ondorioz; batez ere, langileen gastuen ordainketa bermatzen da. Gainera, konturako aurrerakinak emateko aukera aurreikusten da. 50.000 euro baino gehiagokoak ez diren interpretazio artistikoko eta ikuskizunetako kontratuen kasuan, kontratistaren aldeko kalte-ordaina aurreikusten da (kontratuaren prezioaren ehuneko 3 gutxienez, eta ehuneko 6 gehienez).
- Kooperatiben Hezkuntzarako eta Kooperatiben Sustapenerako Funtsa honako helburu hauetarako erabiltzen ahalko da, osorik edo partzialki, 2020ko abenduaren 31ra arte:
  - a) Finantza baliabide gisa, kooperatibari likidezia emateko, funtzionatzeko behar baldin badu. Ondorio horietarako, kooperatibak itzuli beharko du helburu horretarako erabiltzen den Kooperatiben Hezkuntza eta Sustapen Funtsa, urte bakoitzean sortzen diren erabilera libreko emaitzen % 30ekin, harik eta berdintzen den arte salbuespeneko aplikazioa erabakitzen denean funtsak zuen zenbatekoa, eta, gehienez ere, 10 urteko epean.
  - b) COVID-19aren osasun-krisia edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jardueratan, dela ekintza berekien bidez, dela beste entitate publiko edo pribatuei dohaintzak eginez.
- Gehienez 50.000 euroko zenbatekoa duten interpretazio artistikoko eta ikuskizunetako kontratuak aldatzen edo eteten badira, kontratazio-organoak erabakitzen ahalko du kontratuaren prezioaren ehuneko 30era arte ordaintzea kontratistari, prezio horren konturako aurrerakin gisa. Konturako aurrerakina ordaintzeko, ez da izan beharrezkoa kontratistak bermea ematea.
- Salbuespenezko baimena, energia eolikoa sortzeko sistemak eta ebakuaziorako linea elektrikoak instalatzeko.



### 2.3.7. Zerga- eta tributu-arloko aparteko neurriak.

• Epeei eragiten dieten neurriak:

a) Hiruhileko aitorten-likidazioak edo autolikidazioak (2020ko lehen hiruhilekoa): balio erantsiaren gaineko zerga, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenak, sozietateen gaineko zergaren konturakoak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturakoak: aurkezteko eta ordaintzeko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da.

b) Otsaileko aitorten-likidazioak edo autolikidazioak: balio erantsiaren gaineko zerga, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenak, sozietateen gaineko zergaren konturakoak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturakoak: aurkezteko eta ordaintzeko epea 2020ko apirilaren 30era arte luzatzen da.

c) Aurkezteko epea martxoan edo apirilean amaitzen zaien informazio-aitorpenak: epea 2020ko apirilaren 30era arte luzatuko da.

d) Uko egiteko eta baliogabetzeko epeak, 2020rako ondorioekin, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbatespen objektiboko araubidea aplikatzeari dagokionez eta balio erantsiaren gaineko zergan araubide berezi sinplifikatua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzeari dagokionez: 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da epea.

e) 2020ko martxoaren 14tik 2020ko maiatzaren 30era arteko epea ez da zenbatuko alegazioak aurkezteko, errekerimenduei erantzuteko edo errekurtsio edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak ipintzeko.

• Nolanahi ere, zergapekoak errekerimenduari kasu egiten badio edo alegazioak aurkezten baditu, egintzat hartuko da izapidea.

a) 2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 30era bitarteko aldia ez da zenbatuko oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren nahiz ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren aitortenak eta autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epeen ondorioetarako.

b) 2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 30era bitarteko epea ez da kontuan hartuko ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik egiten den salbuespenari heltzeko ezarrita dagoen epea kontatzeko, zeina 174/1999 Foru Dekretuaren 40.4 artikuluan baitago ezarrita.

c) Urtebete luzatzen da ondare-elementuen kostu bidezko eskualdaketa batean lortutako dirua berrinbertitzeko epea (26/2016 Foru Legearen 37.1. artikulua), baina, bakar-bakarrik, berrinbertitzeko epea 2020ko zergaldian bukatzen zaien zergadunentzat.

d) 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzen da Inbertsioetarako Erreserba Berezia gauzatzeko epea (26/2016 Foru Legearen 45.2 artikulua), baina, bakar-bakarrik, gauzate-epea 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitarte bukatzen zaien zergadunentzat.

- Tributazio-betebeharrak kentzea: Kendu egiten da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuak (2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoei dagozkienak) autolikidatzeko eta ordaintzeko betebeharra.
- Luzatu egiten da fundazioen kontuak aurkezteko epea.
- Balioerantsiarengaineko zergaren, elektrizitatearengaineko zerga bereziaren eta, hala badagokio, hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren likidaziotik salbuestea elektrizitatea eta gas naturala merkaturatzen dituztenak eta gas manufakturatutako eta petroliotik kanalizazio bidez likidotutako gasen banatzaileak, ordainketa etenda daukaten fakturei dagokienez, harik eta kontsumitzaileek faktura horiek osorik ordaindu arte edo alarma-egoera amaitu eta sei hilabete igaro arte.
- Atzeratu egiten da zordunen zerrendaren argitalpena.
- Ordainketa-epeen neurriak:
  - a) 2020ko apirilaren 30era arte luzatzen dira zerga-araudian zerga-zorra ordaintzeko aurreikusitako epeak, 2020ko martxoaren 14a baino lehen amaitu ez direnak.
  - b) 2020ko martxoaren 14tik aurrera egindako jakinarazpenei dagozkien ordainketa-epeak: 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen dira (arau orokorrak emandako epe luzeagoa izan ezean).
- Zergak geroratzeko neurriak:
  - a) Indarrean dauden geroratzeak: hilabete atzeratuko da 2020ko apirilaren 5eko epemugaren ordainketa, eta, ondorioz, hilabete atzeratuko da osteko epemuga bakoitza, baina horrek ez du ekarriko epe horietako bakar batean ere interes berriak likidatzea.
  - b) Zerga-arloko zorrak salbuespenez geroratzea:
    - Eska dezaketen zergadunak: Pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, 2019an 6.010.121,24 €-ko edo gutxiagoko eragiketa-bolumena duten jarduera ekonomikoak egiten dituztenak.
    - Neurri hori balia dezaketen zerga-zorrak: aitorten-likidazioak edo autolikidazioak, baldin eta borondatezko epean aurkezteko eta ordaintzeko epea martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzen bada (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen konturako atxikipenei dagozkienak barne, eta zozketen, tonbolen, apustuen, ausazko konbinazioei eta zori, enbido edo ausazko jokoen gaineko tasei dagozkienak).
    - Borondatez ordaintzeko epea luzatu zaien jakinarazpenei dagozkien zerga-zorrak, 12. artikulua 3. zenbakiak araututakoarekin bat (adibidez: Nafarroako Zerga Ogasunak 2020ko martxoaren 14tik

aurrera jakinarazitako behin-behineko likidazio-proposamenak edo likidazioak, aurretik aurkeztutako zergen gainekoak).

c) Balio erantsiaren gaineko zergaren karga-tasak: Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Ordenamendu Juridikora ekartzen dira Estatuak balio erantsiaren gaineko zergako karga-tasen arloan egindako aldaketak.

- Liburu, egunkari eta aldizkari digitalei aplikatu beharreko zerga-tasa: Liburu, egunkari eta aldizkari digitalen sarbidea erraztearren, haiei aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 4ra murrizten da, eta, horrekin batera, kendu egiten da, aplikatu beharreko zerga-tasari dagokionez, liburu fisikoaren eta liburu elektronikoaren artean zegoen diskriminazioa.

- Balio erantsiaren gaineko zerga-tasa, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen entrega, inportazio eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan aplikatu beharrekoa (2020ko apirilaren 23tik aurrera izanen ditu ondorioak, eta 2020ko uztailaren 31ra arte egonen da indarrean). Balio erantsiaren gaineko zergaren % 0ko tasa aplikatuko da 4/2020 Foru Lege Dekretuaren eranskinean zehaztutako ondasunen entrega, inportazio eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, baldin eta hartzaileak eskubide publikoko entitateak, klinikak edo ospitaleak badira, edo izaera sozialeko entitate pribatuak, 19/1992 Foru Legearen 17.3 artikulua aipatzen dituenak.

d) Beste neurri batzuk:

- 8/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean formalizatutako hipoteka-mailaguen eta kredituen kontratu-berrikuntzako eskriturak salbuestea egintza juridiko dokumentatuen modalitatean (kuota mailakatu).

- Egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik salbuetsiko dira mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuetako nobazioak formalizatzeko eskritura publikoak, baldin eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean eginak badira (horren bidez premiazko neurri bereziak onetsi ziren COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko) eta aipatutako errege lege-dekretuaren 7. artikulutik 16.era arautzen diren kasuak oinarri badituzte. Artikulu horiek ohiko etxebizitza erosteko zor hipotekarioaren moratoriari buruzkoak dira.

- COVID-19ak eragindako osasun-krisiak eragindako gastuak finantzatzen laguntzeko pertsona fisikoek egindako dohaintzek (PFEZaren subjektu pasibo diren aldetik) eskubidea sortuko dute emandako zenbatekoaren % 25eko kenkaria egiteko PFEZaren kuotan. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek egindako dohaintzak gastu kengarritzat hartuko dira esandako zerga horretan.

- Enplegua sortzeagatiko kenkariak (26/2016 Foru Legearen 66. artikulua), 2018ko eta 2019ko zergaldietan sortuak, ez dira egonen baldintzatuta kenkarirako eskubidea eman zuten langile-taldean

batezbestekoak mantentzearekin, kenkaria sortu zen zergaldia amaitu ondorengo hamabi hilabeteko bigarren aldian (2018an sortutako kenkarirako), ez eta kenkaria sortu zen zergaldia amaitu ondorengo hamabi hilabeteko lehen aldian ere (2019an sortutako kenkariaren kasuan), baldin eta langile-taldeen batezbesteko horiek ez betetzea COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondorio bada.

- Tributu arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen dituen epeetan eginen da planifikazio fiskalerako mugaz gaindiko baliabideen aitorpena, alegia, Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 33. xedapen gehigarrian aipatzen direnena, betiere, aitorpena egiteko betebeharra 2018ko ekainaren 25etik 2020ko abenduaren 31ra arte sortu den kasuetan.

- Indargabetu egiten da Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 6. xedapen iragankorra, zeinak 2020ko uztailaren 1a baino lehen egin diren eta deklaratu beharreko mugaz gaindiko mekanismoak aitortzeko betebeharren araubide iragankorra arautzen baitu.

- Murriztu egiten da jokoaren gaineko tributu batzuen kuota, jolas-makinen ustiapenari dagokionez, makina horiek jarrita dauden establezimenduen itxiera dela eta.

- Murriztu egiten da, halaber, saltoki handien gaineko zergaren kuota, 2020ko zergaldiari dagokiona, alarma-egoeraren deklarazioa dela-eta saltokia itxita egon den denboraren proportzioan.

- Tasa eta prezio publikoak itzultzea, aipamen berezia eginez tokian tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziari edo erabilera pribatiboari dagozkienak.

- Mantendu egiten dira 2020ko martxoaren 14tik 2020ko maiatzaren 30era bitarte tributu itzulketen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki-entitateek aitortutako bestelako ordainketen ofiziozko konpentsazioak, eta konpentsazio horien ondoriozko premiamendu-probidentziak emanen dira.

- Sozietateen gaineko zergaren aitorpen-epea amaitu baino lehen urteko kontuak onartu ezin izan dituzten zergadunei ahalmena ematen zaie aitorpena une horretan eskuragarri dauden urteko kontuekin aurkez dezaten.

- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergatik eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuestea, bai eta COVID-19aren ondoriozko gaixotasunagatik eta heriotzagatik kontingentziengatik prestazioen kasuan ere. Prestazio horiek osasun-langileen aldeko doako aseguru kolektibotik eratorriak dira, eta aseguru-entitateek sinatuta daude, Aseguru eta Berraseguru Erakundeen Espainiako Batasunaren bitartez.

- Ondorengo ahaideak, aurrekoak, beste senide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik Gizarte Segurantzari ordaindutako kuota-kenkariak 2020an.
- Enpresa txikien eraldaketa digitala bultzatzeko, 2020an egindako gastu eta inbertsioen 100eko 30eko kenkaria ezartzea, baldin eta inbertsio horiek baliatu badira merkataritza elektronikoa ezartzeko, administrazio-prozesuak digitalizatzeko (fakturazioa, salmentak, kontabilitatea), hodeirako sarbideak eskura ipintzeko, web-orriak egiteko eta Internet bidezko ordainketa-sistemak ahalbidetuko dituzten softwarea erosteko.
- Dohaintzen gaineko zergan kenkaria ezartzeko neurri bereziak, energia berriztagarrien instalazioetan egindako inbertsioekin loturik. Kenkari horiek 2020ko zergalditik aurrera aplikatuko dira, kuota likidoaren 100eko 25eko mugari lotu gabe.
- Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kuota mailakatutik salbuetsizat deklaratzeko martxoaren 17ko 8/2020, martxoaren 31ko 11/2020 eta maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuetan araututako legezko eta hitzarmenezko luzamenduak formalizatzeko eskriturak.
- Zerga Administrazioak zergapekoekin egiten dituen jarduketak bideokonferentzia bidez egiteko aukera gaitzea.

### **2.3.8. Neurri bereziak langileriaren arloan.**

- Ohiz kanpoko zerbitzuak agintzeko gaikuntza, eginkizunen esleipena, mugikortasun geografikorako eta departamentuen artekorako neurriak, eginkizunak egokitzeko eta COVID-19ak eragindako aparteko egoera berriari erantzuteko.
- Malgutasuna bateraezintasunen gaineko araubidean.
- Aldi baterako langileak kontratatuzko malgutasuna.
- Funtzio sindikalak betetzeagatik salbuetsitako langileak itzultzea.
- Bertan behera uztea zerbitzu aktiboa luzatzeko aukeraren etetea.
- Erretiro egoeran dauden osasun-profesionalak eta funtzionarioak lanera itzultzea.
- Langile fakultatiboen guardia-txanden salbuespenak ukatzeko aukera.
- Aurrez aurreko irakaskuntza etenda egonen den aldia 2019-2020 ikasturteko praktiketarako kontuan hartzea.

### 2.3.9. Administrazio publikoak efizentziaz kudeatzeko aparteko neurriak.

- COVID-19aren aurkako borrokarako beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak kontratatze eta enkargatzeko larrialdiko izapideen erabilera gaitzea.
- Justifikatu beharreko funtsen liberazioa gaitzea pertsonak babesteko gastuetarako.
- Larrialdiko izapideengatik kontratuak aldatzeko gaikuntza.
- COVID-19tik eratorritako gastuetarako kontabilitate- eta aurrekontu-betebeharrak malgutzea.
- COVID-19aren eraginez behar izandako ekipamendua hornitu aurretik ordaintzeko gaitzea.
- Hezkuntzako zenbatekoak Gizarte Eskubideetara bideratzea, hezkuntza-jarduera etetearen ondorioz ekonomikoki egoera zaugarrian dauden familietako ikasleak elikatzeko.
- Funtsezko zerbitzuen estaldura bermatzeko laguntza nominatiboen deialdiak aldatzeko gaikuntza.
- Ingurumenaren babesaren eta kudeaketaren, animalia-osasunaren eta landaredi-osasunaren arloetan baimen-araubidearen mende dagoen administrazio-jarduerarako ezohiko baimenak gaitzea, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerari behar bezala erantzute aldera.
- Automatikoki luzatzea COVID-19aren ondorioz etendako ondasunak eta hornidurak emateko kontratu eta itun sozialak, zigorrik ezarri gabe.
- Epeak luzatzea zerbitzuen eta horniduren itun sozialen kontratista eta emaleentzat, COVID-19aren ondorioengatik prestazioa atzeratzen denean, zigorrik ezarri gabe.
- Hornidura, zerbitzu eta obretarako kontratuak eta itun sozialak etetea COVID-19aren ondorioz, zigorrik ezarri gabe.
- Kontratuak aldatzeko gaikuntza, unitate berriak sartzeko, pertsonen babesaren ondoriozko beharrei erantzuteko direnean, eta Nafarroako Gobernuak COVID-19ari aurre egiteko hartutako beste neurri batzuk.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo horien federazio, konfederazio edo elkarteei dirulaguntzak aldatzeko gaikuntza, baldin eta xedea partzialki edo erabat ezinezko bihurtzen bada, COVID-19aren ondorioak direla eta.
- Dirulaguntzen epeak aldatzeko gaikuntza orokorra, epe horiek luzatze aldera.
- Berandutze-kostuak ordaintzetik salbuestea, dirulaguntzak itzuliz gero.

- Bermatzen dira irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzen aurrekontuan sartutako edo emandako zenbatekoak.
- Dirulaguntzen epeak aldatzeko gaikuntza, alarma-egoera deklaratzearen ondorioz geldiarazitako denbora-tartean bideragarri egiteko.
- Dirulaguntzen ordainketa aurreratzeko gaikuntza.
- Dirulaguntzen hartzaile diren eta jarduera etenda eduki duten erakundeetarako kalte-ordainak, batez ere langileekin sortutako gastuak.
- COVID-19aren aurkako borrokarako dohaintzak onartzeko sistema malgutzea. Dirulaguntzak bideratzeko lau ildo espezifiko sortzea: osasuna, gizarte-eskubideak, berrikuntza eta kultura.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuetako programei eta finantzaketari dagozkien zenbatekoak toki-erakundeei ordaintzeko prozedura malgutzea.
- 500.000 euro aldez aurretik ordaintzea oinarrizko gizarte-zerbitzuen titular diren Nafarroako toki-erakundeei.
- Lizitatzailak gaitzen dira eskaintzak erretiratzeko eta esleipendunei kontratua ez formalizatzeko, zigorrik gabe.
- Ezohiko konpentsazio ekonomikoa, COVID-19aren ondorioak arintzeko erabilera orokorreko errepide bidezko bidaiarien garraio publikoko zerbitzu erregular orokorren zerbitzuak esleitzeko kontratuetan. Xede honetarako aurrekontu osoa 2.024.422 eurokoa izanen da.
- Administrazio publikoetako langileen kudeaketa efizientea.

### **2.3.10. Ikerketa zientifikoa eta teknikoa sustatzeko ezohiko neurriak.**

- Dirulaguntzak ematea unibertsitatei, teknologia-zentroe, ikerketa-zentroe eta Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuari, baldin eta horiek, Carlos III Osasun Institutuaren aldeko balorazioa jasota ere ez badute jaso finantzaketarik COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondoriozko ikerketa zientifiko eta teknikorako deialdian, deialdi horretako funtsak agortu direlako, edo finantzaketa partziala jaso badute eta hura ez bada nahikoa aurkeztutako aurrekontu osoa estaltzeko. Xede honetarako aurrekontu osoa 1.100.000 eurokoa izanen da.
- Nafarroako I+G+Bko sistemaren deialdiak aktibatze eta koordinatzeko talka-plana antolatzea. Doktoretza aurreko teknologoak eta ikertzaileak kontratatze laguntzak esleitu dira. Industria-doktoregoen, hainbat urtetako lankidetzako ikerketa-proiektuen eta azpiegituren deialdiak egin dira. Teknologia- eta ikerketa-zentroen transferentzia nominatiboak aktibatu dira. Inbertsioak egin dira medikuntza pertsonalizaturako ekipamenduan eta langileen kontratazioan. 2020rako aurreikusitako aurrekontu-inpaktua 19.245.000 eurokoa da. 2020-2023 aldirako talka-planean aurreikusitako inbertsioa (kreditu-erreserbak barne) 36.545.000 euro ingurukoa da.

### 2.3.11. Aparte beste hainbat neurri.

- Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legeko epeak luzatzea.
- Errepideen Foru Legea aldatzea, honako xede hauetarako:
  - a) Telekomunikazio-azpiegiturak instalatzeko planak bizkortzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren bide-jabari publikoaren barruan telekomunikazio-azpiegiturak instalatzeko aukera emanez, eta, hartara, banda zabala lurralde osoan zabaldu ahal izateko.
  - b) Nafarroan fabrikatutako elementuen barne-garraioa eta esportazioa errazteko neurriak ezartzea, batez ere haize-erroten palak. Nahitaezko txostenetatik salbuestea hainbat bide –eraiki berriak eta edukiera handikoak– edo bideok jasango duten garraio-espezialitatea, ziur egonik horrek ez duela arriskuan jarriko errepidearen egonkortasuna, eta, horretaz gainera, erraztu egin dezakeela Nafarroako industriaren susperraldi ekonomikoa, berehala eman daitezkeen babes-neurri guztien beharra baitute.
  - c) Nafarroako Ubideari baimena ematea eraikuntza-lerroan ureztapena kudeatzeko elementuak instalatzeko.
- COVID-19aren krisialdian funtsezkotzat jotako lehen sektoreko premiazko jarduerak:
  - a) COVID-19aren krisiak eragindako sektoreetarako Europar Batasunaren malgutze-neurrien esparruan, honako hauek jarriko dira abian: mahastizaintzako eta ardogintzako sektorerako laguntzak, merkaturatze-zirkuitu laburren operadoreak eta artisauak; ardoaren merkaturatze erregulatzeko neurriak, destilaziorako, biltegitratze pribaturako eta uzta berderako; eta ardo, gazta eta patxaranaren jatorri-deiturak eta adierazpen geografiko babestuak indartzea.
  - b) Ardi- eta ahuntz-azienden ustategietarako laguntzak minimis araubideari atxikita, pandemiak ustategietan eragindako gailuzko arintzeko.
  - c) Gazta modu pribatuan biltegitratzeko merkaturatze erregulatzeko neurriak.
  - d) Abelburu izuen ustategietarako laguntzak, mantentze-kostuak konpentsatzeko, abereen ongizatea bermatzeko eta, jaiak bertan behera uzteagatik diru-sarrerak galtzen direnean, hiltzea saihesteko.
  - e) «Etxean jaten dugu, etxekoa jaten dugu/Aukeratu Nafarroako produktuak. Zure hoberako; gure luraren hoberako» kanpaina gauzatzea, Nafarroako produktuak kontsumitzeko, ikusirik HORECA kanala itxi dela; lehen sektorearen lana aitortzea eta balioestea, eta bertako ekonomia sustatzea.



f) Bestalde, jarduera errazteko eta osasun-bermeekin egiten dela bultzatzeko, hainbat gidaliburu onetsi dira, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin koordinaturik: «Koronabirusaren aurrean (COVID-19) jarduteko protokoloa, nekazaritzako, abeltzaintzako eta elikagaien industrietako ustiategietarako»; «Pertsonen mugimenduari edo zirkulazioari, garraioari eta elikagaien hornidurari buruzko zirkularra»; «COVID-19aren aurrean jarduteko protokoloa, nekazaritzako merkaturatze-zirkuitu laburretarako».

*\* Nafarroako Parlamentuak zuzenketa bidez handitutako funtsa Nafarroako Gobernuak proposatutako 100 milioietatik 130 milioira igaro da.*

*\*\* Nafarroako Parlamentuak zuzenketa bat onartzearen ondorioz sortutako funtsa.*

*\*\*\* Nafarroako Parlamentuaren proposamena, 6/2020 Foru Legean laguntzetarako zuzkidura zuzenketa bidez jasotzen duena.*

#### **2.4. Eztabaida Nafarroako Parlamentuan: Nafarroa Suspertu Planari buruzko batzordea.**

Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen batzorde berezi bat sortzea Nafarroa Suspertu Planari buruz hitz egiteko. Batzorde berezi horren helburua zen Nafarroako Gobernuari neurriak proposatzea plan horretan sartzeko. Batzorde berezia maiatzaren 20an jarri zen abian eta ekainaren 23an onetsi zuen ondorioen irizpena, adostasun handiz onetsi ere; Parlamentuko taldeek aurkeztutako 168 proposamenetatik 126 onartu ziren, Nafarroako Gobernuko departamentu guztietara zuzenduak.

Batzorde berezi horren lana abiapuntu bat da neurriak gauzatzeko beharrezkoa den adostasun politikoa lortzeko, eta, beraz, egoera honetan, Nafarroa Suspertu Planak bere egin ditu proposatutako neurriak, eta ekintza programan txertatzen.

# 3.

# 2050. URTEA

# IKUSMIRAN DAUKAN

# ESTRATEGIA BAT

# 3. 2050. URTEA IKUSMIRAN DAUKAN ESTRATEGIA BAT

## 3.1. Gure gizartearen erronka nagusiei erantzutea.

Nafarroa Suspertu Planak, koronabirusak sortu duen krisiaren ondorioak arintzeaz gain, nafar gizartea bildu nahi du eredu ekonomiko eta sozial berri baterantz aurrera egiteko. Eredu horrek Nafarroa Europako ekonomia jasangarri, lehiakor eta kohesionatuenean artean ipini nahi du. Nafarroako gizartearen ahaleginak sustatuko dituen esparru bat sortzea du xede, eta beharrezkoak diren aliantza publiko, pribatu eta sozialen alde egin nahi du, Foru Komunitateak aurrez aurre dituen erronka nagusiei erantzuteko: ezagutzen oinarritutako lehiakortasuna eta ekonomia, digitalizazio azkarreko testuinguru batean; jasangarritasuna eta emisio apaleko gizarte bat eraikitzea, klima-aldaketaren aurkako borroka lehenetsun gisa integratuko duena; lurraldea egituratzea; eta kohesio eta erresilientzia soziala mantentzea eta areagotzea.

Koronabirusaren krisiak agerian utzi du Foru Komunitatea ez dagoela nazioarteko dinamika handietatik kanpo: pandemia mundu osokoa izan da. Halaber, horrelako desfioek ekarri ohi dituzten eraldaketa handiak ere nazioartekoak izaten dira. Munduan agertoki berri bat definitzen duten aldaketa-eragileak dira. Nafarroak bat egiten du eraldaketa horiekin, eremu hauetan gertatzen direnak: gizarte-kapitala eta ekitatea, demografiako erronkak, digitalizazioa, lurralde egituraketa eta hiria-herria harremana, ekonomiaren karbonogabetzea eta ekosistemen babesa. Aldaketa-eragile horiei esker, posible izanen da Garapen Jasangarriaren Helburuak agudoago betetzea, Nafarroako ekonomiaren lehiakortasuna hobetzea eta ongizatearen eta bizi kalitatearen maila handiagoak eskaintzea. Garapen Jasangarriaren Helburuak aintzat hartuz eraikitzen den eraldaketa ekonomiko eta sozial honetan, 2050. urtea ikusmiran ageri da, mugarria baita Europar Batasunak helburutzat duen karbonogabetze erabatekorantz aurrera egiteko.

Nafarroa eraldaketa horien buru izan dadin, beharrezkoa da norabide proaktibo bat hartzea politika ekonomikoan, berrikuntza teknologiko eta sozialeko politikan, itun sozialak sortzean eta baliabide publikoak erabiltzean. Sektore publikoak jokamolde berri bat eduki dezan egiten du apustu, eraberritzeen agendaren lidergoa hartzeko eta dinamizatzeko, eta gizarte osoaren ahaleginak bildu eta orientatuko dituen aldaketaren jomuga bat planteatzen du. Horretarako, planak, alde batetik, azpiegitura berriak egiteko, berrikuntzarako eta produkzio ehuna eraldatzen eta digitalizatzen laguntzeko inbertsioak biltzen ditu; baina hori aski ez eta hainbat erreforma ere bai, Foru Komunitatearen gobernantza ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa hobetzeko. Lidergo publiko hori egiazkoa izan dadin, Nafarroa Suspertu Planak sektore publikoaren beraren eraberritzea planteatzen du, alderdi hauetan bereziki: efizientziaren hobekuntza eta sinplifikazioa, digitalizazioa, eta behar diren baliabide materialez eta giza baliabideez hornitzea.

Guztiarekin ere, sektore publikoaren jarduna ez da aski; Nafarroa Suspertu Planaren helburua da gizarte osoak aurrera egin dezan beharrezkoak diren itunak eraikitzea; izan ere, Foru Komunitateko eragile ekonomiko eta sozial

guzti-guztiek lagundu behar dute egin beharreko eraldaketak obratzen. Horretarako, beharrezkoak dira elkarrizketa soziala, lankidetzak publiko-pribatua eta soziala eta aliantzak hezurmamitzea, horrela bakarrik lortuko baitugu gizarte moduan dauzkagun misioak gauzatzea, Nafarroa Suspertu Planaren eremuak definitzen dituztenak:

- **Gure ekonomia modernizatzeko misioa**, digitalizazioaren testuinguruan. Horretarako, baliatu behar dira gure ehun ekonomiko eta industrialaren indarguneak, konektibitatea hobetu behar da eta ekintzailtza eta berrikuntza digitala sustatu behar dira.
- Produkzioa eta kontsumoa **karbonogabetzeko** misioa: klima aldaketaren aurka borrokatu behar da, eta energia berriztagarrien alorrean hobetu; emisioak murriztu behar dira eta jasangarritasuna bihurtu behar da ekonomia eta gizartearen egituratzeko printzipio nagusia.
- **Kohesio soziala** areagotzeko misioa, aukera-berdintasuna bermatuz, koronabirusaren krisiak gizartean eragin dituen desorekei aurre eginez eta gaur gero dauden babes sozialerako tresnak indartuz.
- **Lurraldea egituratzeko** misioa. Horretarako despopulazioaren aurka borrokatu eta behar diren azpiegiturretan inbertitu behar da, eskualdeen eta udalerrien zeregina indartu, eta landa-garapenerako aukera berriak sortu behar dira.
- **Gure bizikidetzaren esparruan** sakontzeko misioa, gizarte askotarikoa, eskubideetan aberatsa, erresilientea eta demokratikoa bermatuz, horietatik baitira gure nortasunaren ezaugarri garrantzizkoenetako batzuk.

Misio handi horiek, helburu komunak ere badirenak, bi zeharkako lerroekin lagunduta datoz, helburuak azkar lortzeko aurrebaldintza ere badirelako: sektore publikoa eraberritzea eta indartzea, eta gure kanpo eta nazioarteko dimentsioa irekitzea eta tinkatzea.

### Nafarroa Suspertu Planaren misioak



Nafarroa Suspertu Plana ez da hutsetik abiatzen. Planerako erreferentzia izan dira, batetik, Europar Batasunak egin dituen ahaleginak, abian jarriko den suspertzea zuzena, jasangarria eta egiazkoa izan dadin, eta, bestetik, 2030 Agendan bildutako Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko nazioarteko ahaleginak.

Nafarroa Suspertu Planaren eginahalak estrategia horietan kokatzea garrantzia handikoa da bi arrazoiengatik: lehenengo eta behin, plana bideratuta dagoelako Europako eta nazioarteko helburu onartu batzuetara, eta, bigarrenik, estrategia horien loturen bitartez sinergiak sortzen direlako aurreikusitako esku-hartzeetan eta jarduketeta-ildoetan.

Erreferentzia esparrua Nafarroako Foru Komunitatean dagoeneko garatu diren politiketarik ere abiatzen da, batez ere Foru Komunitatearen 2030 Agenda eta Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren (S3). Horiek osatzen dute berariazko jomuga estrategikoa Foru Komunitatearen lehiakortasuna, jasangarritasuna eta kohesio soziala handiagotzeko.

Esparru hauetako bakoitza Nafarroa Suspertu Planaren jarduketekin lotzen da, eta esku-hartzeen multzo integratua osatzen dute. Nafarroa Suspertuk ez ditu ordezkaten gobernuaren gaiaren araberrako arlo bakoitzaren ekimen sektorialak –esaterako, osasunari buruzko plan espezifikokoak, S3-a, gizarte inklusioaren edo digitalizazio planak–; aitzitik, sustapen-esparru koherente bat eskaintzen du, ekimen horiek estatuan, Europar edo nazioartean egiten direnekin lotzeko.

### **3.2. Agenda 2030ekin artikulaturiko misioak.**

Garapen Jasangarriko Helburuak nazioarteko komunitate osoak onartutako lehen agenda globala dira, Nazio Batuen Batzar Nagusian 2000. urteko Milurtekoaren Adierazpenetik aurrera egindako ahaleginen emaitza eta bilakaera gisa. 2015eko irailean aitortu ziren, eta Milurtekoaren Garapen Helburuak ordeztu zituzten; hori horrela, 17 helburu, 169 jomuga eta, guztira, 230 adierazle zituen jarduera-agenda bat onetsi zuten, garapen bidean dauden herrialdeetarako, indartzen ari diren herrialdeetarako eta herrialde industrializatugetarako proposaturik.

Nazioarteko agendari dagokionez, garapen jasangarriko helburuek hainbat iturritatik edaten dute: nola Garapen Jasangarriari buruzko Rio+20 goi-bileraren ondorioetatik (2012an egina), hala Nazio Batuen sistemak 2015eko iraileko Batzar Nagusia egin arte garatutako Post 2015 prozesutik.

Hori horrela, Garapen Jasangarriko Agendak Nazio Batuetan giza garapen jasangarriaren alde garatutako eztabaidak eta ahaleginak hezurramitzen ditu, garapen horren dimentsio nagusiak kontuan hartuta: pertsonen garapena, hazkunde ekonomikoa, jasangarritasuna, erakunde demokratiko eta bidezkoak, eta garapen jasangarriko nazioarteko aliantza bat sortzea.

Europar Batasunak eta Espainiak agertu dute agenda horrekiko konpromisoa, hainbat adierazpen eta ekimenen bidez. Hala ere, nazioarteko komunitateak, gobernuak ez ezik eskualdeetako eta udaletako agintariei, gizarte zibilari eta enpresa-sektoreari ere dei egiten die, agenda hori lortzen lagun dezaten.

Agenda 2030 diseinatzeko eta ezartzeko ahaleginen barruan, tokiko agintariak bereziki aktibo aritu dira, Nazio Batuen agentzien eta programen bidez (UN-Habitat eta PNUD, bereziki) eta hirien sareen arteko lankidetzaren bitartez (batik bat Hirien, Tokiko Gobernuen eta Eskualdeetako Gobernuen Munduko Sarea).

Testuinguru horretan, Hirien, Tokiko Gobernuen eta Eskualdeetako Gobernuen Munduko Sareak Bogotako Konpromisoa eta Ekintza Agenda onetsi zituen bosgarren kongresuan, 2016ko urrian, Bogotan. Horietan, sareak zuzenean aipatzen ditu Garapen Jasangarriko Helburuak, eta berariaz jasotzen du horiek tokian-tokian eta eskualdeetan ezartzea; halaber, hainbat mailatako gobernantza-esparru batean tokiko agintarien tresna eta gaitasun instituzionalak indartzeko beharra adierazi zuen.



*Iturria: Nazio Batuak*

2030 Agenda, beraz, plan honetako ekintzak garatzeko jarduera-esparru orokor gisa dago eraturik, eta Nafarroako 2030 Agendarekin lotzen da, haren osagarritasuna eta balizko sinergiak bilatuz.

- Pobreziaren aurkako prebentzioa eta borroka.
- Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa.
- Espainiako Hiri Agenda.
- Ekonomia Zirkularreko Estrategia.
- Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Legea.
- Zientzia, Ikerketa eta Garapen Estrategia.
- Ekonomia Sozialaren Estrategia.
- Gobernu Irekiaren Plana.
- Espainiako Lankidetzaren Gidaritza Plana.

Beraz, palanka-politika horietako bat Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko gaitzen duen elementu gisa ezarri da, hargatik eragotzi gabe lurralde bakoitzaren berezko garapenak, Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan Nafarroako 2030 Agendaren inguruan egituratzen direnak.

### 3.2.1. Agenda 2030 Nafarroan.

Nafarroako 2030 Agenda 2018an onetsi zen, eta, harekin, Foru Komunitateak berretsi egin zuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin duen konpromisoa. Agenda 2030 egituratzeko, Foru Komunitatearen berezko estrategiak eta planak Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrotatzen dira, eta, gainera, arkitektura espezifiko bat planteatzen da jarraipena egiteko, bai administrazio publikoaren esparruan, bai herritarren parte-hartzeari dagokionez.

Agenda 2030ek, gainera, jarraipen-esparru lurraldetua eta espezifikoa eratzen duten helburu espezifiko batzuk planteatzen ditu, eta Nafarroa Suspertu Planaren xedea da laguntza aktiboa eskaintzea helburuoi.

Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateak Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko konpromisoa hartu du haiekin lotutako jarduketa batzuen bidez, horietako bakoitza Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta horien helburuekin lerrotatuta.

Agenda Nafarroan aitzina eramateko, barne politikari dagokionez, inplikaturak daude Gobernuaren departamentu desberdinetako 30 zuzendaritza nagusi edo erakunde autonomoak, 25 modu zuzenean eta 5 zeharkako eginkizunarekin. Agendak 67 plan, programa edo estrategia identifikatu zituen, Agenda 2030eko 72 jomugatan ardazturik eta garapen jasangarrirako 15 helbururekin bat. 67 plan, programa edo estrategia horien artetik, 9 gainerako 58 tresna estrategikoetatik sortutako plangintzarako tresna operatiboekin lotuta daude.



Agenda 2030 da, beraz, Nafarroa Suspertu Planaren erreferentzia-esparruetako bat. Nafarroa Suspertu Planean ezarritako lehentasunezko misioek ez dute Agenda 2030 ordeztzen; aitzitik, baliabide teknikoak, finantzarioak eta politikoak mobilizatzen dituzte, Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko. Hori horrela, Agenda betetzeko bidean hurbiltzen gaituzten eraldaketak dira.


### 3.3. Europako berreraikitze-ahaleginekin lerrokatzea

2019an, Europako Batzordeak 2020-2024 aldirako lehen tasun politikoak aurkeztu zituen, Europako legegintzaldiaren eta Batzorde berriaren esparruaren barruan. Esku hartzeko lehen tasunak honako ardatz hauen inguruan antolatu ziren: trantsizio ekologikoa, digitalizazioa, gizarteratzea eta gizarte-koheresia eta indartze demokratikoa.

Europako Itun Berdea 2021-2027 aldirako Batasunaren hazkunde-estrategian dago egituratuta, eta, Europako Batzordearen komunikazioarekin bat etorritik, honako helburu hauek ditu:

EB gizarte ekitatibo eta oparo bihurtzea, ekonomia modernoa bultzaturik, baliabideen erabileran efizientea eta lehiakorra, zeinean ez baita izanen berotegi-efektuko gasen isurketa garbirik 2050ean eta hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik bereizita egonen baita.

Itun Berdearen artikulazioak gainditu egiten ditu ingurumen-alderdi hutsak, eta Europar Batasuneko ekonomia eta gizartearen eraldaketa integralera dago bideraturik; izan ere, alderdi energetikoak, ekonomia, azpiegiturak, gizartea eta esparru politikoa inplikatzen ditu.



Iturria: Europako Batzordea

Hauek dira Europako Itun Berdearen ardatz nagusiak:

- Klima-politiken ambizioa handitzea, 2050ean neutraltasuna lortzeko karbono dioxidoaren emisioetan.
- Energia garbien eta berriztagarrien erabilera areagotzea.
- Ekonomia zirkularreko estrategiak abian jartzea.



- Energia-eraginkortasuna hobetzea.
- Mugikortasun jasangarri eta adimendunaren aldeko apustua.
- Nekazaritzako elikagaien sistemen jasangarritasunaren aldeko apustua.
- Ekosistemak babestea.
- Kutsaduraren aurkako borroka.

Jarduketa-ildo horiek abian jartzeko, Europako Batzordeak jarduera sorta bat proposatu du trantsizio horretarako beharrezkoak diren tresnak errazteko, besteak beste:

- Inbertsio-plan bat eta bidezko trantsizio-plan bat ezartzea, trantsizio ekologikorako behar diren inbertsioak eta finantzaketa areagotzeko. Plan horren barnean sartzen da egitura-funtsak eta Invest EU inbertsio-plana egokitzea, Europa jasangarria lortzeko inbertsio-plan bihurtzeko, eta, hala, mekanismo horren bidez inbertitutako funtsen % 30 gutxienez klima-helburuei lotuta egotea.
- Ekologia- eta ingurumen-alderdiak integratzea estatu kideen aurrekontu-prozesuan, eta adierazle berriak sartzea Europako gobernantza ekonomikoaren esparruan.
- Ikerketa eta berrikuntza mobilizatzea Horizonte Europa programa berriaren esparruan. Programa horretan, egiteko espezifikotarako ikerketa-ildoak txertatuko dira, hala nola klima-aldaketa, ozeanoak, lurzoruak leheneratzea eta hirien kudeaketa jasangarria.
- Alderdi ekologikoak Europar Batasuneko maila guztietako hezkuntzan eta prestakuntzan txertatzea, birziklatze profesionala eta langileen kualifikazioa barne.
- Ingurumen-irizpideak biltzea erregulazio ekonomiko eta sozialetan, «kalterik ez eragitea» printzipioaren pean.

Europako Itun Berdea, beraz, Europar Batasunaren esparruan aurrekaririk ez duen eraldaketa ekonomiko eta sozialerako ahalegina da, bat dator Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin, eta giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta finantzarioak mugiaraztea du helburu ekonomia jasangarritasunerantz bideratzeko.

Itun Berdearen indarraldia behin eta berriz berretsi da Europar Batasuna koronabirusaren krisitik berreskuratzeko estrategiaren ahaleginen esparruan; hori hala den aldetik, hazkunde ekonomikorako politiken esparru orokor gisa ez ezik, 2020ko krisitik berreskuratzeko esparru espezifiko gisa ere indartu da. Nafarroako Foru Komunitateak bat egiten du haren helburu eta ardatzekin, eta Nafarroa Suspertu Planak berretsi egiten du itun hori arautzen duten printzipioen inguruan egituratzeko duen bokazioa, bereziki azpimarratuz Foru Komunitateko lurralderako garrantzitsuenak diren alderdiak.

### 3.3.1. Europar Batasunaren Suspertze Plana

2020ko maiatzean, Europako Batzordeak COVID-19aren krisiaren ostetik berroneratzeko plana aurkeztu zuen, eta Itun Berdearen indarraldia berretsi zuen, epe luzerako erreferentzia-esparru gisa. Plan horretatik eta krisiaren eraginei buruz garatu duene baluaziotik abiatuta, Batzordeak suspertze-plan bat proposatzen du, oinarri harturik hazkunde berdea, trantsizio digitala bizkortzea, merkatu bakarrari eustea eta gizarte-kohesioa sustatzea. Plan anbiziotsua da, eta, harekin batera, hainbat finantza- eta lege-erreminta dauzka gauzatzen laguntzeko, baina, neurri handi batean, Europako gobernantza ekonomikoaren esparruan dago oinarriturik, ekonomia suspertzeko prozesuaren erdigunean.

Hartara, trantsizio ekologikoari dagokionez, Europako Batzordeak berretsi egiten du Europako Itun Berdearen indarraldia epe luzerako estrategia gisa, eta han jasotako esku-hartzeak erreforma-plan nazionalen esparruan txertatzen ditu, baita Energiaren eta Klimaren Plan Nazionaletan eta bidezko trantsizioko planetan ere. Batzordeak berretsi egiten ditu klima-aldaketaren arloko anbizioa areagotzeko helburuak, eta estrategien artean txertatzen du finantza jasangarriari eta enpresa-governantza jasangarriari buruzko ekimen bat abian jartzea. Proposatzen du Europako Itun Berdea enplegua sortzeko motor bihurtzea, eta, horretarako, Invest EU programaren inbertsio-gaitasuna areagotzea, teknologia eta balio-kate garbieran inbertsioa bizkortzea eta garraiorako ibilgailu eta ontzi jasangarrietarantz igarotzearen alde egitea.

Suspertze-planaren ingurumen-dimentsioak barnean hartzen du, halaber, biodibertsitate-estrategia aktibatzea eta landa-garapen jasangarriko laguntzak areagotzea, eta, horretarako, nekazaritza-politiketarako zein landa-garapeneko politiketarako zuzkidura areagotzea.

Eraldaketa digitalari dagokionez, Batzordeak aitortzen du koronabirusaren krisiak bizkortu egin dituela eraldaketa digitaleko prozesuak, eta, beraz, merkatu digital bakarrean sakontzeak lehentasun handia duela epe laburrean. Horretarako, honako lehentasun hauek ezartzen ditu: konektibitate digitala areagotzea, 5G sareak zabaltzea, industria teknologikoa indartzea eta gaitasun digitalak handitzea, datuen ekonomia sustatzea berrikuntzaren eta enplegu-sorkuntzaren eragile gisa, eta enpresa-ingurunea hobetzea, enpresa txiki eta ertainen eraldaketa digitala bultzatuz.

Bi trantsizioek –nola digitalak hala klimatikoak– gizarte-zutabea indartu behar dute eraldaketa-prozesuan inor atzean ez uzteko. Bide horretan, Batzordeak lehentasuntzat jotzen du epe laburrean zein luzean enpleguei eustea, enpresen kaudimenari laguntzea, eta sexuen eta belaunaldien arteko berdintasuna eta elkartasuna sustatzea, batez ere gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna eta gazteen enplegua sustatzeari dagokionez. Horretaz gainera, proposatzen da haurrentzako berme bat, plataformetako langileentzako babes sozialeko sistema bat eta esparru fiskal bat ezartzea –dela iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko, dela sozietateen gaineko zerga eta tankerako alderdiak bateratzeko– guztia ere zerga-iruzurreko eta zerga-plangintza erasokorreko prozesuak saihesteko.

Merkatu bakarra babesteari dagokionez, Batzordeak berretsi egiten du Europar Batasuneko ekonomien arteko interdependentzia eta krisiak merkatu bakarraren jokalekua desorekatzeko arriskua. Lehia babestearen eta merkatu

bakarraren funtzionamendu-askatasunak berreskuratzearen arloko indargarri bat proposatzen du –pertsonak, salgaiak eta kapitalak mugitzeko askatasuna–, Europako balio-kateak eta haien autonomia estrategikoa indartuz, zeinean biltzen baitira ekonomia zirkularreko ekintza-plana, lehia kritikoei buruzko ekintza plan bat eta estrategia farmazeutiko bat.

Azkenik, osasun publikoaren arloan, Batzordeak koordinazioa indartzea proposatzen du, Sendagaien Europako Agentziaren, Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroaren eta Datu Sanitarioen Europako Esparruaren bidez, bai eta ikerketaren eta berrikuntzaren arloko koordinazioa hobetzea ere.

### Europar Batasunaren suspertze planaren lehentasunak



#### Jasangarritasuna

Europako Itun Berdea  
Finantza jasangarriak  
Bidezko trantsiziorako plana  
Nekazaritza eta landa-garapena



#### Digitalizazioa

Konektagarritasuna  
Industria teknologikoak  
Datuen ekonomia  
Enpresa ingurunea



#### Gizarte kohesioa

Enplegua mantendu eta sortzea  
Aukera berdintasuna  
Gazteen enplegua  
Haur bermea  
Plataformetako langileendako gizarte babesa



#### Merkatu bakarra

Merkatu bakarreko joko mahaiko oreka  
Europar Batasuneko autonomia estrategikoa  
Koordinazioa osasun eta farmazia alorretan

Suspertzeko berehalako neurri batzuk abian jartzen ditu, jasangarritasuna, digitalizazioa, gizarte-kohesioa eta enplegua zutabe gisa harturik. Beraz, erreferentzia-esparru saihetsezina da Europar Batasuna berreraikitze ahaleginak ulertzeko, eta Nafarroa Suspertu Plana lehentasun horiekin bat dator epe labur eta ertainean.

### 3.3.2. Ekonomia suspertzeko Europako tresnak eta Itun Berdea.

Europar Batasunak, Europako ekonomia suspertzeko politiken esparru orokor bat ez ezik, susperraldiari aurre egiteko tresna propioen diseinu berri bat ere aurreikusi du, eta horiexek hartzen ditu erreferentzia gisa Nafarroa Suspertu Planak ere. Tresna horien artean, honako hauek dira Nafarroa Suspertu programarako garrantzitsuenak:

- Berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoa eta kaudimen-mekanismoa.
- REACT-EU.
- Invest EU.
- EBko aurrekontu berria: egitura-funtsak.

Nafarroa Suspertu Planak horiek hartuko ditu erreferentzia gisa, eta saiatuko da horiek guztiak ahalik eta hobekien aprobetxatzen Foru Komunitatean.

#### **Berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoa eta kaudimen-mekanismoa**

Next Generation EU proposamenak Europako Batzordearen ekimen bati erantzuten dio, COVID-19aren osteko berreskurapenaren esparruan inbertsioetarako transferentzia eta maileguetan 750.000 milioi euro mugiarazteko, 2021. eta 2022. urteetan laguntza areagotuz. Europar Batasunak historian egindako baliabide-mobilizaziorik handiena izan da, 24 hilabete eskaseko epemuga harturik. Next Generation EU programaren egituraren oinarria finantzaketa-ekimen bat abian jartzea da, lotutako tresna honekin:

- Erresilientzia- eta berreskuratze-mekanismoa: plan nazionaletan jasotako eta Europako seihilekoan integratutako inbertsioak eta erreformak finantzatzeko maileguen eta dirulaguntzen tresna, Batasunaren epe luzerako estrategiekin koherenteak direnak barnean harturik –bereziki Europako Itun Berdea eta trantsizio digitala.

#### **REACT-EU**

REACT-EU tresna kohesio-politikari laguntzeko mekanismo bat da, eta koronabirusaren krisiaren ondorioz eragin ekonomiko eta sozial handiena duten eskualde eta lurraldeetara dago zuzenduta. Mekanismoaren helburua da krisiak gehien kaltetutako sektoreei finantzaketa gehigarria ematea, hor barnean harturik lan-merkatuak berraktibatzen laguntzea eta turismo- eta kultura-sektoreei ez ezik pertsona ahulenei ere laguntzea.

REACT-EU erremintak finantzaketa gehigarria emanen du eskualdeko egungo programa operatiboan esparruan, 2020tik 2022ra bitarteko indarraldiarekin, eta 47.500 milioi euroko zabalpena izanen du, aurrekontu-ekitaldi horietan banatzeko. Programatzeko, gauzatzeko eta batera finantzatzeko xedapenak sinplifikatzea bilatuko da, funtsak behar bezala xurgatzen direla bermatzeko.

\*\* 2020ko ekainean eguneratutako informazioa.

## Invest-EU

Invest-EU Europar Batasunaren inbertsio-plana da, 2014an onetsitako Inbertsio Planean oinarrituta eraikia. Esandako plan hori Inbertsio Estrategikoen Europako Funtsak jarri zuen abian. Proposatzen da 400.000 milioi eurora arte mobilizatzeko gai izanen den aurrekontu-bermea hornitzea, Europar Batasunaren aurrekontuak bermatutako inbertsio-proiektuen bidez.

Invest-EU ekimenak inbertsio estrategikoei laguntzeko esparru bat antolatzen du, honako finantzaketa-ildo hauekin:

- Azpiegitura jasangarriak.
- Digitalizazioa.
- Enpresa txiki eta ertainentzako laguntza.
- Inbertsio soziala eta azpiegitura sozialetakoa.

Programak laguntza teknikoko unitate bat du proiektuak garatzeko, eta, Inbertsio Estrategikoen Europako Funtsaren kasuan ez bezala, erakunde nazionalek kudeatuko dute finantzaketaren zati bat (hala nola Kreditu Ofizialeko Institutuak). Aurreko funtsa, aldiz, Inbertsioen Europako Bankuak bakarrik kudeatu zuen.

### Europako aurrekontua: egitura-funtsak.

Susperraldi ekonomikoaren laugarren zutabea, oraingo honetan epe ertainera begira, 2021-2027 aldirako Hainbat Urtetarako Finantza Esparruan jasotako Europako aurrekontua baliatzea da, eta, bereziki, egitura- eta inbertsio-funtsak, hala nola Eskualde Garapeneko Europako Funtsa, Europako Gizarte Funtsa +, eta, egitura-funtsen esparrutik kanpo irtenik baina Nekazaritza Politika Bateratuan txertaturik, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF).

2021-2027 aldirako egitura-funtsen esku-hartzea Europar Batasunaren helburu politikoak lortzen laguntzera bideratuko da, Xedapen Erkideen Erregelamenduaren esparruan jasotako moduan, honako helburu politiko eta estrategiko hauek baliatuz:

- Europa adimentsuagoa (eraldaketa ekonomiko berritzaile eta adimentsua).
- Europa berdeagoa eta karbonogabetua (trantsizio energetikoa, ekonomia zirkularra, klima-aldaketara egokitzea, arriskuen kudeaketa).
- Europa konektatuagoa (mugikortasuna eta IKTen konektagarritasuna).
- Europa sozialagoa (Gizarte Eskubideen Europako zutabea).
- Herritarrengandik hurbilago dagoen Europa (hiri-, landa- eta kosta-eremuen garapen jasangarria eta tokian tokiko ekimenak).

Helburu horiek artikulatzen dituzte Europar Batasunaren lehentasunak, eta, horretaz gainera, ahalbidetzen dute finantza-tresnak ezartzeko prozedurak sinplifikatzea, Invest-EU finantzaketa duten egitura-funtsak konbinatzea (ekintza sofistikatuagoak egiteko aukera sortuz, hala nola inbertsioen eta dohaintzen arteko blendinga) eta tokiko garapen-planak erabiltzea, lurralde-ekintza integratuak eta funts desberdinen konbinazioa sustatuz (LGENFa barne).

Nafarroako Foru Komunitatea eskualde garatuagoa denez, egitura-funts horiek erabiltzeko potentzialak plan honen misioekin lotutako inpaktu handiko ekintzak izanen ditu ardatz, eta, horretaz gainera, mugaz gaindiko lankidetzak eta mugakide diren eskualdeekiko konektibitatea bilduko ditu. Nafarroako Foru Komunitateak, plan honen bidez, Europako berreraikitze-ahaleginen esparruan ezarritako helburuak betetzen laguntzen du.

### **3.4. Nafarroa Suspertu eta Espezializazio Adimentsuaren Estrategia**

Nafarroa Suspertu Planaren hirugarren erreferentzia-esparrua S3 Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia da, Foru Komunitate dinamiko, berritzaile eta lehiakorra sustatzeko estrategia gisa. Nafarroa Suspertu Planak helburuen inguruan baliabideak mobilizatzeko erreferentzia-plan gisa hartzen du, eta harreman dinamikoa eraikitzen du jarduketan eta neurrien inpaktua ahalik eta gehien bultzatzeko.

Espezializazio Adimentsuaren S3 Estrategia etorkizunerako ikuspegi partekatu batetik eta lehentasun tematikoak identifikatuz abiatzen da, Foru Komunitatearen potentzial ekonomikoa, zientifiko-teknologikoa eta lehiakortasun globala kontuan hartuta. Hori horrela, S3k lurraldearen azterketa parte-hartzailea eta xehatua egiten du, epe luzeko helburu hauek planteatuz:

- Bizi kalitate hobea honako hauen bidez: gizarte kohesiorako sistema, kalitate goreneko osasun arreta, eta hezkuntza sistema bikaina, Nafarroaren indar handi gisa.
- Jasangarritasun handiagoa, Nafarroako natura ingurunea errespetatuz eta nabarmenduz, bertako baliabide naturalak babestuz eta haien erabilera eraginkorra sustatuz ingurumenaren kalitatea mantendu eta hobetzeko.
- Oparotasun handiagoa, enpresa eta industria-ehunaren garapenean oinarrituta, pertsonen talentua bateratuz eta bultzatuz, eta berrikuntza eta ekintzaitza sustatuz, Nafarroaren lehiakortasun-maila handia izan dadin.

Helburuok betetzen laguntzeko, Nafarroako S3 Estrategiak hainbat espezializazio-esparru ekonomiko identifikatzen ditu, eta haiek hartzen ditu oinarri gisa estrategia ekonomikoa definitzeko:

- Automozioa eta mekatronika.
- Elikadura-katea.
- Energia berriztagarriak eta baliabideak.
- Osasuna.



Finean, S3k jarduera-esparru sistemiko bat jasotzen du, ekonomia berritzailea, jasangarria eta inklusiboa sustatzera bideraturik, lurraldearen sektore-espezializazioa aprobetxatzeko eta berrikuntzarako joera duen ekosistema bat sortzeko oinarritzko elementuak emateko, bai eta estrategikotzat jotako industria-sektoreetan jarduera espezifikokoak sortzeko ere.

Nafarroa Susperitu Plana azterketa horretatik abiatzen da, eta lagungarria da bertan planteatutako lehentasunak eta estrategiak epe luzera betetzeko, Espezializazio Adimentsuaren Estrategian ezarritako hornidurak aktiboki bultzatzeko esparru bat eskainiz.

### 3.5. Nafarroa Susperitu Plana, erreferentzia-esparruaren barnean

Nafarroa Susperitu Plana dokumentu honetan ezarritako erreferentzia-esparruaren indarraldi eta garrantzian oinarritzen da, eta ezarritako lehentasunen inguruan egituratzen den harreman zuzen eta estrategiko bat planteatzen du.

Hartara, identifika dezakegu lerrokatze estrategikoko honako ardatzak hauek ditugula:

- **Ekonomia suspertzea** bat dator garapen jasangarriarekin eta enpleguarekin, azpiegiturekin, berrikuntzarekin eta industriarekin lotutako helburuekin, eta, halaber, loturik dago trantsizio digitalaren zutabearekin, merkatu bakarra indartzearekin eta Europako Batzordearen Berreskuratze Planaren enplegua babestearekin eta espezializazio adimendunaren estrategiaren hirugarren helburuarekin
- **Trantsizio energetikoaren eta lurralde-garapen jasangarriaren** esparruak bat datoz Europar Batasuneko Itun Berdearen ahaleginekin, baita Garapen Jasangarrirako Agendarekin ere, nekazaritza eta elikagaien segurtasunarekin, energiarekin, klima-aldaketarekin, hiri eta lurralde jasangarriekin eta ekosistemen babesarekin lotutako helburuei dagokienez.
- **Babes sozialean**, pobreziaaren aurkako borrokan eta gizarte-kohesioa sustatzeari dagokionez, garrantzitsuak dira pobreziaarekin, osasunarekin, genero-berdintasunarekin, hezkuntzarekin eta berdintasun ekonomiko eta sozialarekin lotutako Garapen Jasangarriko Helburuak. Jarduera-eremu hori bat dator eta sinergikoa da Europar Batasuna berreskuratze planaren gizarte-kohesioaren dimentsioarekin eta Espezializazio Adimentsuaren Estrategiakolehen helburuarekin.
- **Zerbitzu publikoen** esparruan, zeharkako alorra izaki, Nafarroa Susperitu Plana bat dator Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin, bai eta erakundeak hobetzera bideratutako helburu jasangarriarekin ere, eta Europar Batasunaren berreskuratze-planaren esparruan planteatutako egiturazko erreforma-ahaleginekin egituratzen da. **Bizikidetzaren esparruari** dagokionez, plana bat dator, berriz ere, Agenda 2030en bakea lortzeko eta erakundeetarako helburuarekin, eta, gainera, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren lehen helburua betetzen laguntzen du.
- Azkenik, **kanpo-ekintza** politika horien barne- eta kanpo-dimentsioa artikulatzen duen zeharkako elementu gisa agertzen da, aliantzak sortzea eta Foru Komunitateko ekonomia nazioartekotzea sustatuz.

Hori horrela, Nafarroa Susperitu Planak ildo bakoitzean sinergiak sortzeko asmoa du, eta Nafarroa nazioarteko, Europako eta estatuko berreskuratze-ahaleginetan txertatzearen aldeko apustua egiten du, dituen aukerak aprobetxatuz eta helburu horiek betetzen aktiboki lagunduz.




Nafarroa Susperitu Planaren erreferentzia-esparrua			
Nafarroa Susperitu Plana	2030 Agenda	Europar Batasunaren suspertze-plana	Espezializazio Adimentsuaren Estrategia
<b>Gure ekonomia eraldatzea</b>	8. helburua: Itxurazko lana eta ekonomiaren hazkundera. 9. helburua: Industria, berrikuntza eta azpiegiturak. 12. helburua: Ekoizpen eta kontsumo jasangarria.	Ekonomiaren trantsizio digitala. Enplegua babestea. Merkatu bakarra indartzea.	Nafarroako ehun enpresarialaren arrakasta eta sustapenaren helburua.
<b>Trantsizio ekologikoa bizkortzea</b>	5. helburua: Energia eskuragarriak eta berriztagarriak. 13. helburua: Klima-aldaketa.	Europako Itun Berdea. Trantsizio energetikoa.	Jasangarritasuna eta ingurumena errespetatzeko helburua.
<b>Kohesio soziala sustatzea</b>	1. helburua: Pobreziaren kontrako borroka. 3. helburua: Osasuna. 4. helburua: Kalitatezko hezkuntza. 5. helburua: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna. 10. helburua: Berdintasun ekonomikoa.	Trantsizio justua. Enplegua babestea. Aukeren berdintasuna. Haur-bermea.	Bizi-kalitatea eta kohesio soziala sustatzea.
<b>Gure bizikidetzaren esparruan sakontzea</b>	16. helburua: Bakea eta instituzioak.	Kohesio soziala.	
<b>Lurraldea egituratzea</b>	2. helburua: Nekazaritza eta elikagaien segurtasuna. 11. helburua: Hiri eta lurralde jasangarriak. 15. helburua: Lurreko ekosistemak.	Europako Itun Berdea.	Jasangarritasuna eta ingurumena errespetatzeko helburua.
<b>Lidergo publikoa</b>	16. helburua: Bakea eta instituzioak.	Digitalizazioa sustatzea. Kohesio soziala.	Lehiakortasun ekintzak.
<b>Kanpo-ekintza</b>	Zeharkakoa gainerako helburu guztiekin.		

# 4. NAFARROA SUSPERTU PLANAREN LEHENTASUNAK ETA JARDUKETAK

## 4. NAFARROA SUSPERTU PLANAREN LEHENTASUNAK ETA JARDUKETAK

Nafarroa Suspertu Plana koronabirusaren krisiari emandako erantzunean identifikatu diren beharretatik eta desafioetatik abiatzen da, baina hainbat iturritatik iritsitako proposamenekin elikatzen: Foru Komunitateko Gobernuaren departamentu teknikoak; herritarrak, kontsulta-prozesuaren bidez; Nafarroako Parlamentua eta gizarte zibilaren erakundeak. Lehentasunek 1.500 proposamen baino gehiago laburbiltzen dituzte. Proposamenok 100 ekarpenetan baino gehiagotan garatu dira, zeinak Foru Komunitatean parte hartzeko dauden bideetatik iritsi baitira.

Lehentasun horiekin Foru Komunitateko Gobernuak garatu behar dituen ekintza batzuk daude, Nafarroa Suspertu Planaren helburu estrategikoak betetzeko.



### 4.1. Ekonomia eraldatzea digitalizazioari begira

#### 4.1.1. Lotutako helburu estrategikoak

- Ekonomia suspertzea.
- Berrikuntza teknikoa eta soziala sustatzea.
- Aliantza enpresarialetan sakontzea.
- Ekonomia soziala eta kooperatiboa bultzatzea.
- Talentua sustatzea.

#### 4.1.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak

##### L 1. COVID-19aren krisiak gehien astindutako sektoreei laguntzea

M 1. **Lurraldeko enpresa-sareari eusten laguntzea**, enpresa bideragarriak ez galtzeko, likidezia emateko, zuzeneko laguntzak edo/eta kaudimena hobetzeko bitartekoak ezartzeko neurriak hartuz. Etorkizunean, horretarako tresna izanen da Nafarroako Finantza Institutua.

M 2. **Nafarroako toki-erakundeentzako transferentzia korranteetarako lerro** bat abian jartzea, tokiko ekonomia suspertzeko egitekoan rol aktiboagoa izan dezaten eta tokiko zerbitzu publiko batzuetan eragindako gailentzei aurre egin ahal izateko (kirol-zerbitzuak, 0-3 urteko zikloa eta abar).

M 3. **Turismo-eredu erakargarri, inklusibo, seguru, jasangarri eta digital berri bat bultzatzea**, ezaugarri bereizgarriak oinarri harturik, eragile guztien parte-hartzearekin, nazioko eta nazioarteko merkatuetara bideratua eta, epe ertainean, sektore estrategiko horrek Nafarroarentzat duen garrantzi ekonomikoa handitzea ahalbidetuz.

M 4. **Tokiko merkataritza txikiari laguntzak eskaintzea**, haren jarraipena bermatzeko eta digitalizazioa bultzatzeko, ezinbesteko tresna baita landa-komunitateen eta hiriguneen lurralde-kohesioa, ekonomia eta bizi- kalitatea bermatzeko.

M 5. **COVID-19aren krisiak astindutako nekazaritza-ekoizle txikiei laguntzak ematea eta tokiko nekazaritzako elikagaiak** merkaturatzeko zirkuitu laburren garapena sustatzea, guztia ere HORECA kanaleko salmenten beharokada arintzeko.

M 6. **Osasun-krisiak bereziki zigortutako ostalaritza- eta jatetxe-sektoreari laguntzea**, establezimenduak egoera berrira egokitzen eta sustatzen lagunduz.

## L 2. Nafarroako sektore estrategikoak indartzea.

M 7. **Industria-enpresak errotzen, indartzen eta handitzen laguntzea**, Nafarroako ekonomiaren eragile nagusi gisa, deslokalizazio-prozesuak saihesten saiatuz eta hornidura-kateak hurbiltzearen ondoriozko aukerak aprobetxatuz, besteak beste, inbertsio-laguntzak eta SODENAK arrisku-kapitalaren bidez duen zeregina erabiliz. Klusterren lana sustatuko da, ordezkatzen dituzten ekosistemen eraldaketa estrategikora bideratuta.

M 8. **Nafarroa osoan industria-ezarpenetarako lurzorua eta azpiegiturak garatzea eta eskaintzea**, enpresentzako formula arin eta onuragarriak sustatuz, landa-lurraldeak eta despopulatzeak gehien eragindako lurraldeak modu positiboan diskriminatzeke.

M 9. **Nafarroako industriaren nazioartekotze aurreratua sustatzea**, esportazioak eta kanpo-ezarpenak areagotzeko eta merkatu nazionalarekiko mendekotasuna murrizteko.

M 10. **Enpresa-eredu inklusiboago eta lehiakorrago bat lortzeko bidean aurrera egitea**, kudeaketaren bikaintasuna, ezagutza-zerbitzu trinkoen erabilera, aukera-berdintasuna, kontziliazioa, enpresa-lankidetzak eta langileen parte-hartzea sustatuz.

M 11. **Automobilgintzaren sektorea eraldatzen laguntzea**, ibilgailu jasangarriagoak, autonomoak, elektrikoak eta konektatuak fabrikatzeko, sektorearen lehiakortasunari eta Nafarroaren barne-produktu gordinean duen pisuari eutsiz, eta **Estatuko Gobernuak eta Europar Batasunak sustatzen dituzten jarduera guztietan aktiboki parte hartuz. Eraldaketa horrekin lotutako berrikuntzetan inbertitzeko sustapen- formulak aztertuko dira.**

**Prozesu horiek guztiek lehentasuna izanen dute Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian ezarritako gai eta arloetan.**

### **L 3. Ekintzailtza berritzailea eta ekonomia soziala**

M12. **Ekintzailtza eta enpresen sorrera sustatzea** aberastasun- eta enplegu-iturri gisa, **batez ere gazteenekin pentsatuz**. S3ko sektore estrategikoei lotutako oinarri teknologikoko ekintzailtza lehenetsiko da.

M 13. **Nafarroako gizarte-ekonomiaren hazkundea bultzatzea, kooperatiben integrazioa eta zailtasunean dauden enpresen eraldaketa sustatuz eta Nafarroako gizarte-ekonomiako bigarren planari baliabide gehiago emanez.**

M 14. **Berrikuntza soziala** bultzatzea, Nafarroako gizarteak osasunean, pertsonen zaintzan, gatazkak konpontzean, bizikidetzan, kulturen arteko bizikidetzan, despopulazioan, nekazaritza eta elikagaien produkzioan eta biodibertsitatearen babesean dauzkan desfioei erantzuna emateko.

M 15. Nafarroako ekonomiaren balio-kateak osatuko dituzten **inbertsioak erakartzea**, bereziki S3ren sektoreetan

### **L 4. I+Garen arloari dagokionez, Nafarroak Europar Batasunean duen tokia hobetzea**

M 16. **Nafarroako I+G+Bko Behatokia** abian jartzea, honako egiteko hauekin: I+G+Ba ebaluatzea, berrikuntzari buruzko diplomazia zientifiko teknologikorako eta berrikuntzari buruzko nazioarteko harremanetarako zentro gisa jardutea, eta aholkularitza zientifiko-teknologikoa ematea Nafarroako Gobernuari. Genero-arrakalaren jarraipena kontuan hartzea jarduera zientifiko-teknologikoetan aritzen diren pertsonen artean, eta hori arintzeko neurriak proposatzea.

M 17. **Enpresek, unibertsitateek eta I+Gko zentroek I+Gn egiten duten inbertsioa babestea**, dirulaguntza eta laguntza fiskalen bidez, gutxienez Zientzia eta Teknologia Legean jasotako aurrekontu-konpromisoak betez. Gobernuak egindako inbertsioak sektore teknologikoetako genero- arrakala arintzeko tratamendu espezifikoa jasotzen duela bermatzea.

M 18. **Lankidetzaren egonkorra sustatzea I+G+Brako, enpresetarako transferentzia teknologikorako eta enplegua sortzeko Nafarroarentzat interesgarriak diren esparruetan:** energia berriztagarria sortzea, biltegiatzea eta erabiltzea; mugikortasun jasangarria; medikuntza pertsonalizatua; edo S3ko sektore estrategikoen funtsezko beste erronka batzuk. Testuinguru horretan, besteak beste, erakustokiak sortzea, prototipoak egitea, proiektu pilotuak garatzea eta erosketak publiko berritzailea sustatuko dira.

M 19. **Programa berriak ezartzea nazioarteko talentu ikertzailea erakartzeko**, batez ere Nafarroarentzat interesgarriak diren arloetan proiektu erakargarriak eskainiz eta Nafarroan gizarteratzea eta biziitzea erraztuz.

M 20. **Enpresetan ikerketa-unitateak sortzea eta ikertzaile gazteak unitate horietan sartzea sustatzea**, esparru akademikotik enpresetara ezagutza gehiago transferitzeko eta bi munduak elkarrekin konektatzeko.

M 21. **SINAiko eragileen ikerketa-jarduera sustatzera bideratutako baliabide publikoak areagotzea**, denboran behar den jarraitutasuna ziurtatuz eta krisiaren ondorioz enprekin egindako kontratuetatik datozen baliabideen balizko murrizketa arinduz.

M 22. **SINAiko eragile guztiek Europar Batasunaren deialdietan gehiago parte har dezaten bultzatzea**, bereziki **Horizonte Europa 2021-2027 programan**, guztia ere **2014-2020 aldian lortutako itzulerak bikoizte aldera**.

M 23. **Osasuneko Berrikuntza Poloa** indartzea, ekipamendu berriak garatuz (Osasun Zientzien Fakultatea – Nafarroako Unibertsitate Publikoa) eta **ikerketa biomedikoa finantzatzeko programa berriak txertatuz** Nafarroarentzat interesgarriak diren ildoetan (COVID-19, medikuntza pertsonalizatua eta doitasunezkoa), ikertzaileak sartuz eta start-upei lagunduz.

#### L 5. Digitalizazioa sustatzea lurralde-lehiakortasuna hobetzeko

M 24. **IRIS – Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Poloaren garapena bizkortzea** eta hari lotutako campusa eraikitzea, eremu horretan erreferente diren Europako eskualdeen artean kokatzeko eta Nafarroako enpresen, administrazioaren eta gizartearen eraldaketa digital azkarra bultzatzeko.

M 25. **Nafarroako gizartearen digitalizazioa bultzatzeko estrategia integratu bat garatzea**, arlo guztietako ekintzak barnean hartuko dituen (hezkuntza eta prestakuntza, administrazioa eta zerbitzu publikoak, industria konektatua, nekazaritza adimentsua, ingurumen-kontrola eta abar). **Foru Komunitate osoan banda zabaleko sarea ezartzeko epeak laburtzea**.

M 26. **Enpresa txiki eta ertainetan IKT soluzio eta proiektu berritzaileak ezartzen laguntzea**, lehiakideetatik bereizteko ezaugarri gisa eta osasun-krisiak eskatzen dituen lan-baldintza berriei erantzuteko.

M 27. Berrikuntza Digitaleko Poloaren testuinguruan, proiektu pilotuak erakusteko, informatzeko, prestatzeko eta garatzeko zentroak garatuko dira, enpresa guztiek teknologia digitalak azkarrago txertatu ahal izan ditzaten, edozein izanik ere enpresa horien sektorea, neurria edo kokapen geografikoa.

#### L 6. Eten digitala desagerraraztea

M 28. **Eten digitalaren kontrako talka-plan bat garatzea**, zaurgarriena den populazioari zuzenduta: migratzaileak, adinekoak eta desabantaila sozialeko egoeran bizi diren familietako haurrak. Nafar Lansarek sustaturiko gaitasun digitalak garatzeko talka-plana garatzen jarraitzea, enplegu-eskatzailerei zuzendurik, zeinaren helburua baita eten digitalaren inpaktua murriztea enplegua eskuratzeko garaian diren desberdintasunetan.

M 29. **Eskolaren digitalizazioa indartzea**; horretarako IkasNOVA programa zabaldu eta biziagotuko da Nafarroako hezkuntza sistemaren trebetasun eta gaitasun digitalak hobetzera zuzentzen baita.

## L 7. Azpiegiturak eta garraio-sistemak sustatzea

M 30. **Errepide-sare seguruagoa edukitzeko behar den inbertsioa segurtatzea**, horrelako sare bat beharrezkoa delako lurralde barruko komunikazioak hobetzeko, despopulazioaren aurkako borrokan laguntzeko eta tokiko garapen ekonomikoa faboratzeko.

M 31. **Nafarroako Ubidea osatzea**, Nafarroako erdialdean eta hegoaldean edateko, industriako eta ureztatzeko ur-hornidura bermatzeko.

M 32. **Eskualdeko mugikortasun-sistema berri jasangarriago bat garatzea**, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik lurralde osoaren konektibitatea hobetuko duena, lurralde-oreka eta aukera-berdintasuna bultzatuz.

M 33. Nazioarteko estandarrekin bateragarria den **Prestazio Handiko Trena sustatzea**, salgaien eta bidaiarien garraio-beharrei behar bezala erantzungo diena. Nafarroa Mediterraneoko Korridore Atlantikotik kanpo gera ez dadin lan egitea.

## L 8. Guztien lan-aukerak aldezea

M 34. **Lan-kontratazioari laguntzeko dirulaguntzak indartzea**, batez ere errenta bermatua jasotzen duten pertsonentzat, gazteentzat, emakumeentzat, iraupen luzeko langabeentzat, 45 urtetik gorakoentzat eta desgaitasuna dutenentzat.

M 35. **Enplegurako prestakuntza sustatzea**, lanbide-kualifikazioaren sistemara egokituta, lantegi-eskolei edo prestakuntza- eta enplegu-programa integratuei laguntzea barne.

M 36. **Enplegurako orientazio-eredu berri bat sustatzea, Nafar Lansareren lidergo nabarmenarekin**, Orientazioko Esparru Akordioaren berrikuspena barne, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eta integralak bermatuz, lanbide-gaitasunak garatzeko ekintzetara bideratzeko, eta gizarte-laguntzako prozesuak eta zerbitzu telematikoen eskaintza indartuz.

M 37. **Laneko segurtasun- eta higiene-arreta indartzea**, arlo horretako ikuskaritza areagotuz eta enpresak errealitate berrietara egokitzen lagunduz, arrisku psikosozialak barnean harturik.

M 38. Iraupen luzeko langabeak kontratatzeke deialdia malgutzea, 45 urteko adinaren betekizuna kenduz eta COVID-19aren krisialdian langabeen kontratazio mugagabea edo iraupen luzekoa sustatzeko pizgarriak zabalduz.

## 4.2. Trantsizio ekologikoa bizkortzea.

### 4.2.1. Lotutako helburu estrategikoak

- Krisitik ateratzea, eredu jasangarri berri baten buru izanez.
- Gizarte erresilienteagoa bultzatzea.
- Klimaren anbizioan eta biodibertsitatearen zaintzan aurrera egitea.

### 4.2.2. Jarduteko lehentasunak eta neurriak

#### L 9. Nafarroak toki berria hartzea, energia berriztagarrien arloan Europako erreferente izateko

M 39. **Energia berriztagarriak ekoizteko instalazio berriak garatzen laguntzea**, harik eta Nafarroako energia-kontsumoaren % 50 iturri berriztagarrien bidez hornitzea lortu arte.

M 40. **Egungo parke eolikoak indarberritzen laguntzea**, ingurumenaren aldetik jasangarriagoa den irtenbide gisa, hori erraztuko duen lurraldeko arau-esparrua garatuz.

M 41. **Energia berriztagarrien instalazio eta laborategi pilotuen garapena sustatzea**, Europar Batasunean teknologiaren abangoardian dauden SINAiko eta EIBTko eragileekin lankidetzan.

#### L 10. Trantsizio energetikoa, ekonomia dinamizatzen duen elementua

M 42. Nafarroako enpresen, erakundeen eta herritarren artean **aktiboki sustatzea efizientzia energetikoko jarduketak, energia berriztagarrien ezarpena eta ibilgailu elektrikoaren erabilera**.

M 43. **Administrazio Publiko osoa trantsizio energetikoko eredu bihurtzea**, karbono-aztarna murriztu ahal izateko, eraikinetan energia aurrezteko sustatuz, berriztagarrien bidezko autokontsumoa sustatuz eta eskualdeko zerbitzu energetikoetako enpresen sektorearen aurrerapena erraztuz.

M 44. **Nafarroaren mendekotasun energetikoa murriztuko duten proiektu energetiko berezien garapena sustatzea**, lankidetzan publiko-pribatuaren bidez eta aberastasun- eta enplegu-iturri izanik.

#### L 11. Eraikuntza jasangarria

M 45. **Etxebizitzak birgaitzeko jarduerak ugaritzea**, bai parke publikoak, bai pribatukoak, aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eta finantzatzeko formula egokiak ezarriz.

M 46. **Hiri-inguruneetan energia sortzeko jarduera kolektiboak bultzatzea, biomasaren erabilera oinarrituta**.

M 47. Zirkularitatea aplikatzea **landagune txikietan alokairuko etxebizitza publiko eskaintzeko**, erabiltzen ez diren titulartasun publikoko eraikinak birgaituz.



## L 12. Ekintza klimatikoa eta ekonomia zirkularren sustapena

M 48. **Lurralderako araudi-esparru berri bat garatzea**, klima aldaketaren kontra borrokatzeko: biodibertsitatea, ura, basoak, hondakinak, zirkularitatea.

M 49. Nafarroako Hondakinen Planaren jarduketak garatzea, zirkulartasunaren ikuspuntutik.

M 50. **Klima-aldaketara egokitzearekin loturiko proiektu aitzindari berritzaileak** eta ekintzak sustatzea.

M 51. Ekonomia zirkularra sustatzearekin loturiko proiektu aitzindari berritzaileak eta ekintzak sustatzea.

## L 13. Basoak, ibaiak eta naturaguneak, aberastasun eta biodibertsitate iturri

M 52. **Baso-kudeaketa berri bat sustatzea**, baso-baliabideak zentzuz aprobetxatzera gehiago bideraturik, balio erantsi handiagoko produktuak sortzeko

M 53. **Naturagune babestuak kontserbatzea**, Nafarroako balio bereizgarri gisa, kontserbazio-, erabilera- eta kudeaketa-ereduak sustatuz, epe luzera horiek kontserbatu ahal izateko.

M 54. **Zura eta baso-biomasa gehiago erabil daitezten sustatzea**, eraikuntzarako eta energia aprobetxatzeko.

M 55. Uraren estrategia berri bat prestatzea, baliabide hori era efizienteagoan kudeatu eta erabiltzeko.

## L 14. Elikadura-sistema justua, osasungarria eta ingurumenarekiko arduratsua sustatzea

M 56. **Nekazaritza ekologikoaren garapena bultzatzea**, ekoizle berriak biltzea eta produktuak gehiago merkaturatzea bultzatuz.

M 57. **Nekazaritzako ikerketa sustatzea**, nekazaritza jasangarriagoa eta zirkularragoa bultzatuz eta intsumo gutxiago kontsumituz, eta nekazaritza-ekoizpeneko teknika eta ezagutza berriak sektorerara bideratzea.

M 58. **Ureztatze uraren erabilera jasangarriagoa sustatzea**, baliabidearen, energia-kontsumoaren eta nekazarietzako kostuaren ikuspegitik.

M 59. **Nekazaritzako ustiatzearen modernizazioa erraztea**, haien eraginkortasuna hobetzeko, energia-kontsumoa murrizteko edo animalien bizi-kalitatea hobetzeko inbertsioak lagunduz.

M 60. **Kalitatezko produktu ekologikoen sustapena sustatzea** lurraldeko, estatuko eta nazioarteko merkatuetan.

M 61. **0 km-ko tokiko produktuen kontsumo-kanpainak sustatzea kanal desberdinetan**: etxekoa, banaketakoa eta HORECAkoa, eta zirkuitu laburragoak eta hurbileko merkataritza erraztuko duten logistika-sistemak garatzea.

### 4.3. Lurraldea modu jasangarrian egituratzea

#### 4.3.1. Lotutako helburu estrategikoak

- Egin gabeko inbertsioak bultzatzea.
- Nafarroa konektatua kohesio digitalerako eta lurralde kohesiorako.
- Lurraldeen arteko oreka berreskuratzea eta landa eremua baloratzea.

#### 4.3.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak

##### L 15. Eredu berri bat hazkunde jasangarrirako eta hiri- eta landa- eremuen arteko harremanetarako

M 62. **Aldaketak sustatzea Nafarroako Lurralde Estrategian eta tokiko plangintzarako baliabideetan**, tresna erabilgarriak izan daitezten Nafarroako lurraldeen arteko oreka lortzeko, baita bizimodu jasangarriagoak, efizienteagoak eta ekitatiboagoak izateko ere.

##### L 16. Oinarrizko zerbitzu jasangarriak eta denok eskuratzeko modukoak

M 63. **Nafarroako toki-erakundeentzako finantzaketa-eredu berri bat sustatzea**, haien finantza-askitasuna bermatzeko eta Nafarroako eremuen arteko garapen-desberdintasunak geldiarazten laguntzeko.

M 64. **Hondakin-urak arazteko sistemak modernizatzea**, Europar Batasuneko ingurumen-estandar berrietara egokituz eta Nafarroak esparru horretan duen ingurumen-lidergoa indartuz.

M 65. **Tokiko azpiegiturak eguneratzen direla bermatzea**, trantsizio energetikoaren, jasangarritasunaren (Itun Berdea) eta despopulatzearen erronka berriei erantzunez.

M 66. **Toki-administrazioan prozedurak eta sistemak bultzatzea, landa-eremuko biztanleei izapideak errazteko** eta COVID-19aren aurrean arrisku-egoeran dauden biztanleen joan-etorriak minimizatzen.

##### L 17. Ekintzailtza eta berrikuntza soziala garapen kohesionatuaren eta solidarioaren alde

M 67. Landa-ingurunean **jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko ekimenak sustatuko dira, lurraldeen arteko desberdintasunak murrizten laguntzeko.**

M 68. **Eskualdeko edo tokiko egitasmo eta programa sozioekonomikoak garatzen eta gauzatzen laguntzea**, landa-eremuetan jarduera ekonomiko berriak mantentzea eta sortzea sustatzeko.

##### L 18. Pirinioaldea eta beste eskualde behartsu batzuk suspertzea

M 69. **Lurraldeko baterako gobernanzarako eredu berri bat bultzatzea**, Pirinioetako Planeko ekintza zehatzak abian jartzeko prozesua bizkortzeko.

M 70. **Inpaktu handiko inbertsio-proiektu txikiak garatzea** landa-eremuko udalerrri txikien bizi-kalitatea eta jasangarritasuna hobetzeko.

M 71. **Nafarroa Ezagutu Sarearen hedapena bizkortzea** espazio publiko naturalen, berezien eta ibilbide ekologiko eta kulturalen kudeaketa jasangarriagoa egiteko, espazio naturalek aisialdi seguruagoko eskaintza gisa balio handiagoa hartzen duten une honetan.

#### **L 19. Landa-eremuaren garapen ekonomikoa eta soziala**

M 72. **Tokiko Ekintza Taldeen jarduerak eta Landa Garapenerako Europako Funtsetarako sarbidea indartzea.**

M 73. **Nekazaritza-sektorea gaztetzeko sustapen-lana egitea**, haren balioak zabalduz eta ustiatzearen transmisioa eta gazteen laneratzea erraztuz.

M 74. **Nafarroako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearen interesak defendatzea Nekazaritza Politika Erkidearen erreforma berriaren negoziazioan**, Europako orientazio berriekin eta COVID-19aren osteko beharrei erantzuteko helburuarekin bat etorriko den landa-garapeneko plan bat garatuz.

M 75. **Nekazaritzako kooperatibismoa** babestea, antolaketa-formula efizienteagoa, jasangarriagoa eta solidarioagoa duen aldetik, eta eskualdeetan errotzea bermatzea.

M 76. **Online eta etxez etxeko merkaturatze-zerbitzu berriak laguntzea.**

M 77. **Tokiko abeltzaintza-azpiegitura txikiak garatzen laguntzea**, landa-eremuko udalerrri txikietako ustiatzearen eta ekonomiari eusten laguntzeko.

#### **4.4. Kohesio soziala eta aukera-berdintasuna sustatzea**

##### **4.4.1. Lotutako helburu estrategikoak**

- Gizarte erresilienteagoa bultzatzea.
- Osasun-ekosistema sendotzea.
- Babes sozialerako sistemetan sakontzea.

##### **4.4.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak**

**L 20. Pertsonak babesteko osasun-sistema bat: Nafarroa suspertzea osasuna abiapuntu hartuta.**

M 78. Koronabirusaren pandemiaren krisiak osasun-sistema ireki eta eraginkor baten garrantzia nabarmendu du, eta garbi geratu da osasun-sistemak pertsonak babesteko gauza izan behar duela. Nafarroako Foru Komunitateak sistema hori eguneratzearen, zabaltzearen eta indartzearen alde egin du, epidemiak planteatutako errealitate berriak aintzat hartuta. **Aurrekontu egonkor eta eraginkorra bermatuko du, hornidura publikoa**

**lehenetsiz eta osasun publikoaren, lehen mailako arretaren, inbertsioen eta ikerketaren arloetarako aurrekontuak esleituz eta gauzatuz, eta, halaber, farmazia- eta ospitaleratze- gastuaren hazkundera kontrolatuz.**

M 79. Osasunaren arloko edozein jarduerak haren dimentsio sozialekin duen elkarrekintza aintzatestetik abiatu behar du. Horregatik, Nafarroa Susperitu Planaren bidez, **Zahartze Aktibo eta Osasungarriaren Plana sustatuko da**, eta koordinazioa hobetuko osasun-zerbitzuen eta Foru Komunitatean desberdintasuna eta pobrezia murrizteko planen artean.

M 80. Nafarroako Foru Komunitateak osasunaren egiazko unibertsalizazioaren alde egiten du. Horretarako, ekintza estrategiko bat zera izanen da, Osasun Ministerioari eskatzea egin dezala benetako unibertsalizazioa bermatuko duen arau bat, eta zehaztu eta arautu ditzala osasunarekin lotutako herritarren eskubideak. Nafarroak erabat eskuratuko ditu espetze-osasunaren arloko transferentziak.

M 81. Herritarrekin batera, osasun-arloko profesionalak dira osasun eraginkor eta irisgarriaren protagonista nagusiak. Aintzatespen horretatik abiatuta, langileen araudi espezifiko bat egingen da, Osasunbidearen gainerako adarrekin harmonizatuta, Osasun Departamentuko langileen ikerketa eta prestakuntza errazteko ekintzak barnean harturik.

M 82. Nafarroako osasun-erakundearen egitura eta gobernu berria definituko da, zeinak kapital soziala indartuko baitu eta eremu bakar batean eta osasun-barruti desberdinetan oinarritutako lurralde-eredu baten garapena bilduko baitu. Egitura horretatik abiatuta, osasun publikoaren antolamendu-egitura garatuko da, lurralde-garapena eta oinarritzko osasun-laguntza integratzea barne, dagozkion informazio-sistemak ezarriz.

M 83. Oinarritzko osasun-laguntzan lan egingen da bereziki: langileak beharren arabera egokitzea bilatuko da, lurralde-ereduaren garapen berriaren barruan, eta, hari esker, arreta komunitarioa areagotzea eta integrazio soziosanitario hobe edukitzea lortuko da. Nafarroa suspertzearen esparruan, profil profesional berriak sartuko dira oinarritzko osasun-laguntzan, eta etxeko arreta sustatuko da.

M 84. Egoitzetako osasun-arreta oinarritzko osasun-laguntzako taldeekin integratzea sustatuko da, eta, horretarako, langile-taldeak egokituko dira. Arreta soziosanitarioko programak sustatuko dira, osasun-barrutietan oinarrituta, eta historia kliniko soziosanitario partekatua garatuko da. Egoitzetatik historia klinikora sartzeko bidea sustatuko da.

M 85. Ospitale-kudeaketaren arloan, Kudeaketa Klinikoko Unitate Integratuak garatuko dira, AEren eta LTren Egonaldi Ertaineko Unitateen Plan batekin. Ospitaleak gizatiartzeko plan bat proposatuko da, zeinak hobekuntzak sustatuko baititu logeletan, eta etxeko ospitaleratzea bultzatuko da. Ospitaleen arloan inbertsio berriak egingen dira helburu horiek lortzeko.

M 86. **Ongizate digitaleko eta teleosasunerako ekimen bat garatuko da, eta arreta berezia ipiniko zaio osasun-hezkuntzako aplikazio informatikoak**

**eta datu klinikoen jarraipen elektronikoko sistemak prestatzeari, patologia kronikoen kasuan.**

M 87. Prestakuntza bultzatuko da. Lanbide-profil berriak sartuko dira prestakuntza-arloetan, eta profesionalak prestakuntzan sartzen lagunduko duen araudi bat garatuko da, online prestakuntza barne.

**M 88. Ikerketa biomedikoaren urteko aurrekontua handiagoa izan dadin bultzatuko da, eta osasun-sistema publikoaren ikerketan profesionalak sartzen lagunduko duen araudi espezifikoa bat garatuko. Oinarrizko osasun-laguntzako ikerketa-proiektuak sustatuko dira.**

M 89. Osasun mentalaren arretarako eredu integral bat sustatuko da, osasun mental komunitarioaren oinarrizko printzipioak indartuz, eta koordinatuta lan egingen da lehen mailako arretarekin, gizarte-zerbitzuekin eta komunitateko beste batzuekin, osasun, gizarte-babes eta bizi-kalitate maila txikiak hobetzeko. Laguntza-sare sozialaren, hurbilekoen eta senitartekoen aintzatespena eta parte-hartzea sustatuko da, lankidetzeta eta aliantza gisa, bai eta kronikotasunari, doluan laguntzeari, suizidioaren prebentzioari, arreta-defizitaren nahasmendu eta hiperaktibitateari eta abarri lotutako elkarteekin ere.

M 90. Plan bat ezarriko da behar adina hornidura estrategiko eskuratzeko eta mantentzeko, osasun-larrialdi batean eskaera-maila handiak asetzen laguntze aldera. Planak hainbat larrialdi-egoeratan edo produktutan gerta daitezkeen hornidura-faltak jasotzeko behar ditu, Kanadako eta Australiako ereduak jarraituz, hala nola botikak, txertoak, antidotoak, laborategiko materiala, hemoderibatuak eta norbera babesteko ekipamenduak.

**M 91. Azpiegitura sanitarioak hobetzeko inbertsio-plan iraunkorra bermatzea, premia berrietara egokitzeko, eta teknologia berrietan oinarritutako inbertsioen aldeko apustua egitea, gero eta handiagoa eta zorrotzagoa den eskaerari erantzuteko. Oinarrizko osasun-laguntzako zentroak eraikitzea eta berritzea, ospitale-instalazioak arreta-eredu berrietara egokitzea, eta ekipamenduak berritzea eta berriak erostea.**

## **L 21. Errentak bermatzea**

M 92. Herritar guztientzako diru-sarrerak bermatzeko sistema osatzen duten prestazio eta neurri fiskalen multzoa harmonizatzea eta haiei guztiei koherentzia ematea (errenta bermatua, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, kotizazio gabeko pentsioak, aldizkako ez diren laguntza ekonomikoak eta zerga-kenkari gehigarriak), haien enplegarritasuna bultzatuz.

## **L 22. Babes sozialaren sarea sendotzea**

**M 93. Etxeko eta hurbileko arreta-sare berri bat garatzea, eta, horretarako, enplegu-, gizarte- eta osasun-zerbitzuen eta toki-erakundeen lidergoak izatea.**

M 94. **Historia Sozial Bakarra ezartzea, deribazio-, orientazio- eta sinplifikazio-kasuetan erantzun bizkorra emateko. Proiektu hori modu**

**koordinatu eta integratuan egin behar da, Nafarroako Osasun Sistemako (OTI/Lakora) populazio babestuaren gaur egungo datu- basearekin; errotik eraldatzea eskatzen du, dimentsio sozial eta sanitario berri baterantz, baterako kudeaketa-mekanismoa sortuz.** Oinarrizko Osasun Laguntzako Zerbitzuen Garapen Plana eguneratuko da, gizarte-zerbitzuen, osasun-zerbitzuen eta osasun mentaleko zerbitzuen arteko koordinazioa areagotuz. Horretarako, oinarrizko osasun- laguntzako arreta-baliabideen mapa egingen da. Gizarteratze Plana eguneratu, egokitu eta aplikatu dadin bultzatzea, COVID-19aren krisiak eragindako gizarte-premia berriak kontuan hartuta.

M 95. Gizarte-erakundeak funtsezko aliatuak dira gizarte-babeseke sare berritu hori garatzeko bidean. Gizarte-erakundeen lana babestuko da, hitzarmenei eta esparru-programei egonkortasuna eta nahikotasuna emanaz, eta erkidego-programak babestuko dira. Gizarte-ekintzako klusterrak sortzea proposatuko da, gizarte-berrikuntzako osagai sendoarekin.

M 96. Migrazioei dagokienez, Migrazioaren Nafarroako Mahaia sustatuko da. Harrera-planaren diagnostikoa egingen da, premia berrietara egokitzeko. Guraso bakarreko etxeetan emakume migratzaileei laguntzek **proiektu pilotu bat jarriko da martxan.** Era berean, Nafarroan asiloa eta babeslekua eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistema bat ezarriko da. Halaber, programa bat garatuko da babesgabetasun-egoeran dauden eta adin-nagusitasuna betetzen duten adingabe atzerritarrentzat.

M 97. Arreta berezia eskainiko zaio espetxeetako egoera sozialari, Zigorrek Beteazteko Nafarroako Zerbitzua abian jarri. Zerbitzu horrek askatasunaz gabetutako pertsonen gizarteratze-, laguntza- eta arreta- zerbitzuak bateratuko ditu

### **L 23. Egoitzako laguntza eta etxeko laguntza**

M 98. Egoitza-arretaren eredia birformulatzea, zentro pribatuen sarearekin egindako hitzarmenak berrikusiz eta zentroen ikuskaritzaren gaitasunak hobetuz. Osasun-eredu berri horrek kontingentzia-plan bat izanen du, egoitzetan infekzio-agerraldi berriak saihesteko eta tratatzeko.

M 99. Adinekoentzako, desgaitasunak dituzten pertsonentzako eta arreta goiztiarrerako zentroak modernizatu eta zabalduko dira, horiek hobetzeko inbertsio-plan batekin, pandemia osteko agertokian sortutako errealitate berrietara egokitzeko.

M 100. Berrito diseinatuko da adinekoentzako zentroetarako dirulaguntzen lerroa, egoitza-arretako eredu berrira egokituz.

### **L 24. Aurrera egitea zaintzen gizarterantz**

M 101. **Telelaneko programetarako laguntzak jarriko dira martxan, erantzunkidetasun-ekintzak sustatzen dituzten enpresetarako. Telelana sustatuko da enpresetan, eta lana eta familia bateragarri egiteko baldintzak garatuko dira. Laneko eta familiako bizitza bateragarri egiteko Casas Amigas izeneko baliabidea hedatzea (etxe lagunkoiak).**

M 102. Eremu publikoak Telelaneko Plan bat landuko du, zeinean eraginkortasuna, efizientzia eta produktibitatea bateragarri egingen baitira kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzearekin.

M 103. Zaintzaile profesionalen kontratazioa sustatuko da familia-eremuan, gizarte-ekonomiaren eta hirugarren sektorearen alorretatik. Horretako, teknologia berriak aztertuko dira.

M 104. Arindu egingen dira mendekotasunagatiko prestazioen izapideak, itxarote- zerrenda zerora murriztuz, eta berriaz indartuko dira mendekotasunari arreta emateko zerbitzuak. Areagotu egingen dira mendeko pertsonen etxean egoten laguntzen dieten zerbitzuak.

## L 25. Gizon eta emakumeen arteko berdintasun-aukerak

M 105. Emakumeek pisu handiagoa izan dute konfinamenduaren kudeaketan eta susperraldian, lan-arloan, edo mendekoak eta haurrak zaintzen. Egoera behar bezala ebaluatzeko, **proposatzen da COVID-19aren krisiak Nafarroako Foru Komunitateko emakumeengan duen eraginari buruzko azterlan bat egitea**, ondoren eman beharreko pauso estrategikoak gidatu ahal izateko.

M 106. **Indarkeria matxistaren biktimetzako arreta areagotuko da**, eta hor barnean sartuko da indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zuzeneko laguntzen programa berri bat, bizitegi-soluzio egokiagoak izan ditzaten, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako jarduketara psikosozialeko protokoloak indartuko dira.

M 107. Krisi ekonomikoak diren garaian, emakumeak egoera ahulean izaten dira gizartean. Zaugarritasun horren aurka borrokatzeko, **emakumeen enpleguari eusteko neurriak garatuko dira enpresetan**, genero-berdintasunerako neurriak aplikatuz, laneko sexu-jazarpenaren aurka borrokatuz eta emakumeentzako enplegu-politika aktiboen berriazko planak garatuz. Nafarroako enpresetan berdintasun-planak garatzea sustatuko da, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sentsibilizazio-kanpaina bat garatuko du etxeko zaintza eta lanen erantzunkidetasunari buruz: kontziliazio erantzunkidea.

M 108. **Berdintasunerako eragileen sarea handituko da**. Horretarako, interes orokorra babesteko beharrezkotzat joko dira toki-erakundeei dirulaguntzak emateko deialdiak, aukera-berdintasunerako agentearen figura profesionala sar dezaten, bai eta toki-erakundeei eta toki- ekintzako taldeei dirulaguntzak emateko deialdiak ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta sustatzeko proiektuak gara ditzaten.

M 109. Babesgabetasun-egoera berezia dela eta, **harrera-sare bat garatuko da prostituzioan eta/edo sexu-esplotazioan dauden emakumeentzat**, inplikaturako erakunde guztiekin koordinatuta.

## L 26. Gazteria

M 110. **Gazteriaren arloko plangintza estrategiko berri bat abiaraziko da**, eta abiapuntu gisa hartuko da Foru Komunitateko gazteriaren egoeraren diagnostiko eguneratu bat egitea, gazte-erakunde eta elkarten parte-hartzea eta diagnostikoaren egoerari, beharrei eta ondorioei buruzko dibulgazio-kanpaina bat egitea. **Gazte Planak** gazteen emantzipazio-aukerak hobetzeko neurri espezifikoak eta zeharkakoak jasoko ditu.

M 111. Estrategia berriaren esparruan, **Nafarroako Gazte Informazio Sarea birmoldatuko da**, eta areagotu egingen dira Europako Gazte Txartelaren esparruan garatutako ekintzak. Tokiko gazte-zerbitzuak indartuko dira udaletan, eta tokiko gazte-planak egingen dira, bereziki landa-eremuan.

M 112. **Nafarroan Gazte Bermea programa areagotuko da**, krisiak sortutako behar berrietara egokituz eta programa horretan parte hartzen duten gizarte-erakundeei eta enpresei laguntza emanez.

M 113. Bizitza-ohitura osasungarriei buruzko hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekintza espezifikoak egingen dira, gazteek eta nerabeek beren inguruneetan osasun-eragile potentzial gisa duten protagonismoa aintzat hartuta.

M 114. Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskolako prestakuntza-eskaintza hobetu eta babestuko da, hezkuntza ez-formala eta gazteriaren eta haurren arloko ekintza-planak sustatuz, guztia ere udalerrien parte-hartzearekin.

## L 27. Etxebizitza

M 115. **2018-2028 aldirako Etxebizitza Estrategiaren esparruan, etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko eredia berrikusiko da**, eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsoneri etxebizitza eskuratzen lagunduko zaie, alokairu sozial berriak ezarriz eta hipoteka-bitartekaritzako zerbitzuak indartuz.

M 116. **Alokairu eskuragarriko etxebizitzaren parkea indartuko da, eta bereziki sustatuko da gazteentzako eta adinekoentzako alokairua, bai eta lankidetzako etxebizitzak ere, legeak dioenaren eta Nafarroako Etxebizitza Planaren esparruan.** Bizigarritasun-parametro berriak proposatuko dira, eta irizpideak aldatuko dira erabilera komuneko espazioen diseinuan eta energia-kontsumo txikiko etxebizitzaren sustapen berriak garatzean.

M 117. **Etxebizitza-parkea birgaitzeko plan bat onetsiko da**, eta gaur egun hutsik dauden etxebizitzengainean esku hartuko du lehentasunez. Etxebizitza hutsen errola osatuko da, eta Administrazioak helburu publikoetarako etxebizitza erostea sustatuko da, hor barnean bilduz lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzea, lagapen-hitzarmenak egitea eta inbertsio-funtsekin eta finantza-erakundeekin negoziatzea.

M 118. **Alokairu-araubidea erregulatuko da**, eta prezioak arautzeko eta alokairu-poltsa indartzeko aukerak aztertuko dira.



M 119. **Eraikingintza- eta eraikuntza-sektorean prozesu industrializatuak arian-arian sartzea bultzatu eta sustatuko da**, eta arreta berezia ipiniko da zura eraikuntza-elementu estruktural gisa baliatzeko proiektu arkitektonikoetan.

## L 28. Pertsonengan inbertitzea: hezkuntza eta prestakuntza

M120. Nafarroa Susperu Planak pertsonengan inbertitzearen aldeko apustua egiten du, eta, beraz, Foru Komunitatean hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eguneratzeko, berritzeko eta hobetzeko laguntza sustatuko du, errealitate berriak aintzat hartuta. Horretarako, **hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat bultzatzea proposatzen da**. Era berean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak **Lanbide Heziketako Plana** garatuko du, ekonomia- eta gizarte-berreraikuntza eta enplegarritasuna sustatzeko.

M121. **Irakasleak prestatzeko partidetan inbertituko da, irakasleen eta ikasleen gaitasun digitala hobetzeko**, bai eta hezkuntzarako eta bizikidetzarako partidetan ere. **Baliabide teknologikoetan eta metodologikoetan berrikuntza-maila handiagoa** proposatuko da hezkuntza-arlo guztietarako.

M122. **Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko baliabide erabilgarriak areagotuko dira taldekatze espezifikoetan eta hezkuntza bereziko zentroetan**, eta eskura diren baliabideak areagotuko dira ikasle behartsuenak eta hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituztenak gizarteratzeko jardueretarako. Bekak lortzeko baldintzak malgutuko dira, eta toki-erakundeekin koordinatzeko mekanismoak ezarriko, desabantaila-egoeran dauden ikasleak hobeki identifikatzeko.

M 123. **Lanbide Heziketako hezkuntza-eredua egokituko da, baliabide berriak sartuz eta irakaskuntza horien eskaintza hobetuz. Lanbide-heziketa dualaren ereduak bultzatuko dira.**

M 124. **Hezkuntza Departamentuaren COVID-19aren Kontingentzia Plana osatuko da**, pandemiagatik curriculumare berreskuratzeko balioespina eta berriazko hezkuntza-laguntza barnean harturik.

M 125. **Inbertsio berriak egiten dira Nafarroako hezkuntza-azpiegiturretan eta hezkuntza-politika publikoetan**, derrigorrezko etaparen osteko ikasleen garraioa handitzea, testuen doakotasun-programa egokitzea eta eskola-jantoki osasungarriak sustatzea barnean harturik. Ikasgela bakoitzean 15 ikasle aurrez aurre eskolatzeak jarraitzen du helburu izaten.

M126. Era berean, **hezkuntza ez-formalaren eta etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua egiten da**, gizarteratzeko, gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko eta lanbide-kualifikaziorako funtsezko tresna den aldetik. Onlineko kanal bat garatuko da hezkuntza ez-formalerako.

M 127. **Ikasleen barneko mugikortasun-programa bat abian jartzea aztertuko da**, honako departamentu eta institutu hauekin koordinaturik: Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala, Lurralde Kohesioa, Landa Garapena, Hezkuntza eta Nafarroako Gazteriaren Institutua.

## 4.5. Gure bizikidetza-esparruan sakontzea

### 4.5.1. Lotutako helburu estrategikoak

- Aliantza sozialak sustatzea.
- Gizarte erresilienteagoa bultzatzea.

### 4.5.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak

#### L 29. Askatasunak eta giza eskubideak

M 128. Eskubide eta askatasunetan aberatsa den Foru Komunitate baten alde egiten da. Arreta berezia ipiniko da eskubide eta askatasunen bermean, hala nola intimitaterako eta norberaren ohorerako eskubidea, edo zirkulatzeko, adierazteko, agertzeko eta zirkulatzeko askatasunak. Gobernu Zentralari eskatzen zaio har ditzala neurri egokiak esparru juridikoa erreformatzeko, eskubide eta askatasun horien babesa hobetze aldera. Baita herritartasun digitalaren eskubideak ere.

M 129. **Nafarroako lehen Bizikidetza Plan Estrategikoa eginen da**, krisiaren ondorengo errealitate berrira egokituta, eta tokiko erakundeei laguntza emanen zaie tokiko bizikidetza kudeatzeko, herritarren erakundeekin lankidetzan, elkarrizketa-foro bat sortuz eta bake-ekimen positiboak bultzatuz.

M 130. **Giza eskubideen hezkuntza sustatuko da**, bai eremu formalean, bai ez- formalean, eta gorroto-diskurtsoen aurka borrokatuko da (aporofobia, xenofobia, homofobia), sare sozialetan monitorizazio egokia eginez. Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak eta salaketa-bulegoa garatuko dira. Kulturen arteko bizikidetza-programak bultzatu eta sustatuko dira, jatorriz migratzaileak diren biztanleekiko komunikazioa haien ama- hizkuntzan egitea indartuz.

M 131. **Memoria zabaltzeko sarea** sortuko da, **Memoriadun Ikastetxeak** programaren bertsio digitalera egokituko da, eta memoria historikoa babesteko interesa duten lekuetan errealitate areagotuko proiektu bat jarriko da martxan.

#### L 30. Euskara, kohesio- eta aniztasun-faktorea

M 132. **Euskararen II. Plan Estrategikoa eginen da**, hizkuntza-bizikidetza sustatzeko eta euskarazko baliabideak planifikatzeko. Euskarazko informazio- eta kultura-ekoizpenaren jarraipena bermatuko da, bereziki haurrei eta gazteei zuzendutako edukietan, onlineko baliabideak barne.

M133. **Hizkuntza dibertsifikatzeko plan bat jarriko da martxan administrazio publikoan.**

M134. Turismoaren esparruan euskara balio gisa indartzearen aldeko apustua eginen da, jendaurreko zerbitzuetarako euskarazko arreta- kalitatearen etiketa sortuz.

M 135. **Helduek euskara ikasten jarraitzeko behar diren neurriak jarriko dira martxan**, eta eginkizun horretan diharduten ikastetxeetan osasun- eta segurtasun-prestakuntza bermatzeko inbertituko da.

### L 31. Aniztasunerako sostengua

M 136. Justifikaziorik gabeko gizarte-profileko neurriak saihesteko lan egingen da, eta herritarren segurtasunerako kidegoei zuzendutako **sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak** gauzatuko dira eremu horretan.

M 137. **LGTBIQ+ biztanleriari laguntza eta babesa ematen jarraituko da**, aniztasuna politika publikoen zeharkako ardatz gisa hartuz eta hezkuntza-sistemaren barruan eta kanpoan aniztasuna sustatzeko topaketak eta tailerrak erraztuz.

### L 32. Justizia

M 138. **Justiziaren arloko talka-plan bat egingen da, haren gaitasunak eta bizkortasuna hobetuz. Espediente judizial digitala ezarriko da, justizia errestituratu bultzatuko da eta doako justizia indartuko da.**

M 139. Hurbileko justizia sustatuko da eta epaitegietako baliabide materialak hobetuko dira. Auzi zibiletan, lanekoetan eta merkataritzakoetan, eta bereziki etxegabetze-prozeduretan eta abusuzko klausulen kasuan, judizioz kanpoko konponbiderako mekanismoak bultzatuko dira.

M 140. Nafarroako berezko arauetako buruzko hezkuntzara-, sentsibilizazio- eta informazio-ahaleginak areagotuko dira.

M 141. Nafarroako Justiziaren Aholku Batzordea berraktibatuko da, eta abokatuen elkargoek justiziarako eskubidearen esparruan duten eginkizuna aitortu eta babestuko da.

### L 33. Kultura sustatzea bizitza aktiboa izateko

M 142. Kultura, ondarea eta kultur ekoizpena Nafarroa Suspertu Planaren funtsezko parte dira. Horretarako, kultura-sektorea suspertuko da, huraxe baita krisiak gehien astindu duenetako bat; horretarako, pandemiak sektorean izan duen inpaktuari buruzko azterlan espezifiko bat egingen da. **Areagotu eta malgutu egingen dira kultur ekoizpenerako, museoetarako, argitaletxeen sektorerako eta ikus-entzunezkoen sektorerako laguntzak, eta hobetu egingen dira kultur sektoreetako profesionalentzako laguntza eta aholkularitza. Kultura-lanbideei buruzko legea egingen da, laguntza-neurri berriak egituratzeko elementu gisa.**

M 143. **Nafarroako kultura-ondarea eta kultura-azpiegiturak babestu eta sustatuko dira**, eta haietan eginiko inbertsioak areagotuko, ondarearen dibulgazioa eta kultura-baliabideen digitalizazioa babestuz, programazio berriekin zabalduz eta kultura-eskaintza publikoa eta haren irisgarritasuna hobetuz. Foru Komunitateko funtsak hedatuko eta zabalduko dira, hala nola liburutegiak eta artxiboak. Nafarroako kulturaren zentro teknologikoa sortuko da.

M 144. **Arte garaikidea bultzatu eta sustatuko da**, kanpoan ikasketa artistikoak prestatzeko eta zabaltzeko beka-programak indartuz.r.

M 145. **Euskarri digitaleko sistema bat ezarriko da kultura-jardueren eskaria eta parte-hartzea sustatzeko.**

#### L 34. Kirola, bizi-kalitatearen bektore bat.

M 146. Kirola da bizi-kalitateari laguntzeko gakoetako bat. Nafarroa Susperu Planak **kirol-espazioaren erabilera sustatu eta babestuko du, kirol- jarduera seguruak babestuz**, pandemiak kirolariengan duen eraginari buruzko ikerketa eta toki-erakundeen kirol-jarduerak bultzatuz, eta, halaber, haien instalazioak egokitzen lagunduz.

M 147. **Kirol-erakundeak, federazioak eta klubak errealitate berrira egokitzea sustatuko da**, instalazioen erreformak, teknikarien prestakuntza, digitalizazioaren sustapena eta kirol-babesletzaren fidelizazioa bultzatuz. Areagotu egingen dira erakunde eta kirolarientzako laguntza- eta aholkularitza-ahaleginak.

#### L 35. Herritarren partaidetza

M 148. **Lankidetzako sare sozialak eta boluntarioritza sustatuko dira**, arreta berezia ipiniz boluntario-sareak osatzeko eginahalean, boluntarioen eta haien erakundeen digitalizazioan eta boluntarioen prestakuntzan.

M 149. **Herritarrek parte hartzeko eta herritarrekin elkarrizketa soziala izateko espazioak** indartuko dira.

M 150. **Eztabaidarako foro publikoa deitzea**, herritarrak krisiari, elkarrizketari eta bizikidetzari buruz aritzeko.

#### L 36. Nafarroa segurua eta erresilientea

M 151. **Babes Zibilaren kultura eta autobabesaren filosofia** garatu eta bultzatuko dira. Autobabeserako plan berezi bat jarriko da martxan, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (NUFK) bidez lan egingen da, toki-erakundeekin batera bidea egiteko. Abian jarriko da Suhiltzaileen 2020-2023 Plan Estrategikoa, eta haien gaitasunetan inbertituko du

M 152. Larrialdiak eta segurtasuna kudeatzeko gaitasunak indartuko dira, **Nafarroan Segurtasuna Koordinatzeko Zentroa sortuz** eta larrialdiak kudeatzeko autonomia eta baliabideak hobetuz.

M 153. Herritarren segurtasuna indartu eta modernizatuko da, **Nafarroako Foruzaingoaren 2020-2023 Plan Estrategiko berriari esker. Udaltzaingoan gaitasunak indartzen lagunduko da.**

M 154. **Erresilientzia pertsonal eta sozialaren kulturako ekintzak sustatuko dira**, programa espezifikoekin eta koronabirusaren krisiaren aurrean ikaskuntza pertsonal eta komunitarioko espazioak sortuz.

## 4.6. Arlo publikoaren lidergoa berrestea.

### 4.6.1. Lotutako helburu estrategikoak

- Administrazioa modernizatzea.

### 4.6.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak

#### L 37. Baliabide gehiago eta hobeak zerbitzu publikoetarako.

M 155. Nafarroa Susperu Planak sektore publiko aktibo baten lidergoa du oinarri, eta behar adina hornidura eta eraginkortasun ditu bere egitekoak betetzeko. Horretarako, ezinbestekoak dira giza baliabideak eta baliabide teknikoak. **Plan osoan planteatutako programak eta ekimenak abian jartzeko behar diren enplegu publikoko plazak hornitzeko lan eginen da,** eta gobernu zentralari eskatuko zaio malgutu ditzala administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen birjartze-tasak.

M 156. **Nafarroako Funtzio Publikoaren Estatutu berri bat proposatuko da, irizpide hauekin lan egitea sendotu dezan: profesionaltasuna, gaitasuna, eraginkortasuna, herritarrei irekita egotea eta funtzionarioek funtzio publikoan parte hartzea.**

M 157. **Zerbitzuak azpikontratatzeko eredia berrikusiko da eta kontratazio publikoa berraktibatuko da.** Hornitzaileei egiten zaizkien ordainketak atzeratzea saihesteko lan eginen da, eta bermatuko da badela behar adina likidezia kontratu-ordainketen eta laguntzen eta dirulaguntzen transferentzien arloko betebeharrei aurre egiteko.

M 158. **Iruzur fiskalaren aurkako borroka areagotuko da,** Iruzur Fiskalaren Aurkako Behatokia sortuz eta ikuskapen fiskalean diharduten langileak ugarituz. Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko garapen informatikoak ezarriko dira.

M 159. **Zerga-figura berriak bilduko dituen zerga-erreforma bat eginen da, zeina zerga-iruzurraren eta ihesaren aurka borrokatuko baita. Gainera, kanpo-ekintzaren esparruan lan eginen da, Europar Batasunak kapital-irabazietarako eta enpresa-mozkinetarako zerga- esparru harmonizatu baten sorreran sakondu dezan.**

#### L 38. Digitalizazioa, datuen zientzia eta adimen artifiziala herritarren zerbitzuan

M 160. Administrazio digital bakarra garatzea Nafarroako administrazio guztietarako. Aurrera egiten da gaitasun digitalei eta administrazio elektronikoari buruzko praktika-komunitatearen helburuetan. Era berean, zerbitzu-zorro digital batean aurrera egiten jarraituko da, 2019ko errenta-kanpainarekin egin den bezala.

M 161. Langile publikoak gaitasun digitaletan trebatzearen alde egiten da, eta telelana sustatuko da administrazioan. Langileak gaitasun digitaletan trebatzeko prestakuntza berria egiten da, modalitate ez- presentzialean lan egiteko eskatzen diren gaitasunen ondorioz sortutako beharrian berriak aintzakotzat harturik.

M 162. **Foru Komunitateko toki-administrazio guztietan konektibitate onena lortzeko lan egingen da**, eta laguntza eskainiko zaie zerbitzuak «lehenespenez digitalak» izan daitezzen abian jartzeko behar diren azpiegituri.

M163. **Administrazio-kudeaketa digitalari buruzko prestakuntza-programak egingen dira** enpresentzat eta partikularrentzat. Informazio sistema bat jarriko da webgunean Nafarroako Foru Komunitateko enpresentzat.

M 164. **Langile publikoek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan duten prestakuntzaren esparruan, aurrez aurreko prestakuntza ez-presentzialera aldatzeko lan egingen da.**

M165. **Administrazio-prozesuen kudeaketa arintzeko eta zerbitzu publikoak hobetzeko aplikazio eta soluzioen ezarpen orokorra**, egun baliatzen diren soluzioen eguneratze teknologikoa eta langileen prestakuntza.

M 166. **Osasunbidean zerbitzuak eta probak digitalizatzearen aldeko apustua egitea**, asistentziaren kalitatea eta zerbitzu berrietarako sarbide unibertsala bermatuz Osasun Departamentuaren berezko estrategietatik abiaturik.

M 167. **Osasunbidean azken belaunaldiko teknologia diagnostikoa ezartzea** medikuntza genomikoaren eta doitasun-medikuntzaren bidez, Osasun Departamentuak definitu eta lehenetsita.

M 168. **Datuak eta adierazleak kudeatzeko proiektu integral bat garatzea, Nafarroako Gobernuan erabakiak hartu ahal izateko.**

### L 39. Komunikazioa eta gardentasuna

M 169. **Nafarroako Gobernuaren komunikazio-politika areagotuko eta hobetuko da. Komunikazio-, publizitate- eta mikrosite-kanpaina bat egingen da Nafarroa Suspertu 2020-2023 webgunean**, eta inprimatutako argitalpen bat eta ikus-entzunezko dokumental bat ere taxutuko dira, koronabirusaren krisiak Nafarroan izan duen eraginari buruz. Interes publikoko komunikazioa sustatzea Nafarroako hedabideetan

M 170. **Gobernu irekia bultzatuko da 2020-2023 Gobernu Irekiaren I. Planaren bidez, eta toki-erakundeei laguntza emango zaie Gobernu Irekiaren plan eta ekimen propioak aurkez ditzaten. Herritarrentzako komunikazio- eta arreta-kanal digitalak hobetuko dira, zerbitzuak zabalduz eta sinplifikatuz eta inklusiboago bihurtuz.**

M 171. **Prozesu instituzionalak berrituko dira**, hala nola Nafarroaren Eguna, eta herritarrek parte hartzeko prozesu bat irekiko da Nafarroako Urrezko Domina lortzeko hautagaitzak aurkezteko.

### L 40. Administrazioaren sinplifikazioa

M 172. **Kontsumitzaileak babesteko zerbitzu publikoak berrantolatzen lan egingen da, eta bitartekaritza sustatuko da gatazkak konpontzeko.**

M 173. **Administrazioa sinplifikatzeko prozesu bat jarriko da martxan enpresentzat eta partikularrentzat**, eta leihatila bakarreko eskemak lehenetsiko dira zerbitzu publikoetan.

M 174. **Nafarroako toki-erakundeetan administrazio elektronikoa ezartzea eta administrazio-sinplifikazioa bultzatzea**, bitarteko digitalen erabilera sustatuz, bai administrazio-izapideetarako, bai lana egiteko (telelana).

M 175. **Jarduera ekonomikoei loturiko prozesuak eta izapideak erraztea, batez ere eraikuntzaren eta etxebizitzaren arloan.**

#### **L 41. Sareak eta azpiegiturak administrazio eta gizarte moderno eta eskuragarrietarako**

M 176. **Banda zabala hedatzea Nafarroako lurralde osoan barna**, 2020ko Europako Agenda Digitalaren helburuekin bat etorritz.

M 177. **Nafarroako Gobernuaren azpiegitura teknologikoak eguneratzea**, zerbitzu digital berriei euskarria emateko.

#### **L 42. Oinarrizko ikerketa adimen artifizialaren zientzian**

M 178. **Adimen Artifizialaren Nazioarteko Zentroa garatzea Nafarroarako proiektu estrategiko gisa**. Haren funtsezko helburua izanen da zeharkako eta bikaintasuneko oinarrizko ikerketa bat ahalik eta hobekien garatzen dela bermatzea, Europako eta munduko erreferentzia-zentro bihurtuz.

### **4.7. Lanean mugen barnean eta mugez kanpo: kanpoaldea**

#### **4.7.1. Lotutako helburu estrategikoak**

· Nazioarteko merkatu eta eskari berriak kontuan izatea.

#### **4.7.2. Jarduketa-lehentasunak eta neurriak**

#### **L 43. Europar Batasunaren funts gehiago eskuratzea**

M 179. Enpresa-, ikasketa- eta administrazio-sektoreei zuzendurik, **2021-2027 aldirako Europar Batasunaren programa berriei buruzko informazio-, prestakuntza- eta aholkularitza-ekintzak areagotzea**.

M 180. **Interesak partekatzen dituzten Europako beste eskualde batzuekin aliantzak eta sareak sustatzea**, baterako proiektuak identifikatu eta garatzeko.

M 181. **Europar Batasuneko Ekonomia Suspertzeko Planean jasotako ekimen berrien etengabeko jarraipena egitea** eta Nafarroa Suspertu Plan honetan jasotako ekintzak finantzatzeko aukerak identifikatzea.

M 182. **Europar Batasuneko goi-funtzionarioekin etengabeko harremana izatea**, ekimen eta programa berriak bertatik bertara ezagutzeko formalki argitaratu aurretik.

#### L 44. EBren estrategia nagusiekin lerrokatzea

M183. **Nafarroako eragile sozioekonomiko nagusiei zuzendutako informazio-eta prestakuntza-ekintzak garatzea Europar Batasunaren estrategia berriei buruz: (Itun Berdea, Europa Digitala, Pilar Soziala, Industrializazioa, Osasuna eta abar), aukera-ildoak identifikatzeko eta horietara egokitzeko Nafarroako estrategia eta plan nagusiak epe ertain eta luzera.**

M 184. **Nafarroak lurralde pilotu gisa duen zeregina sustatzea, Europar Batasunarentzat interesgarriak diren ikuspegi eta eredu berriak probatzeko.** Nafarroako biztanleria- eta geografia-dimentsioak eta haren ezaugarri sozioekonomikoek proiektu pilotuak garatzeko aukera errazten dute, gerora Europako beste eskualde batzuetara zabaldu ahal izateko.

M 185. **Aliantzak areagotzea punta-puntako Europako eskualdeekin, trantsizio energetikoaren, digitalizazioaren edo elikadura osasungarriaren arloetan.**

#### L 45. Nafarroa, nazioartekoa.

M186. **Nafarroa inguruko eskualdeekin duen harremana sendotzea, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen, Pirinioetako Lan Elkartearen eta ARFEren esparrua indartuz.**

M 187. **Beken, trukeen eta egonaldien programak eskaintzea kanpoan diren ikasle nafarrei, irakaskuntzaren maila guztietan.**

M 188. **Atzerrian bizi diren nafarrei ematen zaien arreta areagotzea eta haiekin sarean lan egitea sustatzea,** Nafarroa beste herrialde batzuetan ezagutarazteko, bizileku duten herrialdeetako enpresa eta erakundeekin trukeak sustatzeko eta Nafarroara lanera itzultzea errazteko.

M 189. **Nafarroak nazioarteko ekitaldi eta foroetan parte har dezan sustatzea,** bereziki S3aren sektoreekin, trantsizio energetikoarekin eta digitalizazioarekin lotutakoetan

#### L 46. Nafarroa, solidario.

M 190. **Nafarroako Lankidetzaren III. Gida Plana onartzea, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin lerrokatuta, munduko pandemia-egoeratik eratorritako beharrei erantzuteko.** Nazioarteko Lankidetzarako Nafarroako Agentzia zuzenbide publikoko erakunde gisa sortzeari buruzko azterketa bat bilduko da, nortasun juridiko publikoaz, ondare propioz eta kudeaketa-autonomiaz horniturik, eta, hala, hobeki administratuko da garapenerako nazioarteko lankidetzara.



# 5. PLANAREN GOBERNANTZA

## 5. PLANAREN GOBERNANTZA

Gobernantzaren printzipiotik abiatu, hau da, erantzukizun partekatuetatik, zuzendaritza malguko egitura proposatzen da, posible eginen dituen, batetik, parte-hartze politiko eta soziala eta, bestetik, Gobernuaren ekimena eta exekuzioa. Hori oro, kaudimen teknikit abiatuta. Irizpide hauetatik abiatzen da.

1. Zuzendaritza Batzordea. Batzordekideak Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta haren lehendakariordeak izanen dira.

2. Koordinazio publikoa. Departamentuarterko Batzordearen bidez (Nafarroako lehendakaria da haren burua). Bere eginkizunak dira politika publikoak koordinatzea eta lerrotzea; baliabideen esleipena ziurtatzea, eta estrategiaren jarraipena egitea, batez ere planei, estrategiei eta ekintza publikoei begira.

3. Gizarte Kontseilua. Kontsultarako organoa da eta hartan parte hartzen dute politikariek, gizarteak, jakintza-munduak eta enpresaburuek. Zabala, malgua eta askotarikoa da. Estrategia orokorraren gaineko hausnarketarako eta sormenerako eztabaida-esparrua da, ideiak eta proposamenak erazteko erabiltzen dena. Erantzukizun partekatua eta osotasuneko ikuspegia bilatzen da.

Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua zehaztuko da ahalik eta kontsentsurik handiena bilatzeko. Enpresen ordezkariak kide izanen dira. Unibertsitateetako eta zentro teknologikoetako kideak ere izanen dira. Langileen ordezkariak ere bai, sindikatu etako kideak, alegia. Gizarte-ekonomiaren, ekonomia alternatiboaren eta hirugarren sektorearen ordezkariarekin, eta gizarte-interesagatik identifikatuko diren beste erakunde batzuekin. Organo honetan gauzatzen da ikuspegi partekatuen kontzeptua, kontseiluko kideek estrategia txertatzeko duten konpromisoaren bitartez.

4. Parlamentua. Esparru bakoitzaren eskumenak eta instituzioak errespetatuz, komeni da Parlamentuak gune bat izan dezan jarraipena, ebaluazioa eta proposamenak egiteko planaren gauzatzeari buruz.

5. Toki-erakundeak. Halaber, Nafarroako Gobernuarekin koordinatzeko tresna bat proposatuko zaio NUKFri neurriak gauzatzeko.

6. Laguntza teknikoak. Gobernuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren laguntza izanen du planaren euskarri teknikoak emateko; izan ere, haren eginkizunen artean dago mota guztietako azterketa ekonomikoak eta sektorialak egitea eta parte hartzen duen sozietateen jarduerak koordinatzea.

# 6. AURREKONTUA ETA GAUZATZEKO BALIABIDEAK.

# 6.AURREKONTUA ETA GAUZATZEKO BALIABIDEAK.

## 6.1. Baliabideak mobilizatzea

Nafarroa Suspertu Planak, besteak beste, baliabide publiko hauek izanen ditu bere aurrekonturako:

- Nafarroako Aurrekontu Orokorretako partidak, hasierako helburuak birbideratuta.
- 2021-2023 urteetarako, aurreikusten da funts berekien 989,41 milioi euro izatea Nafarroa Suspertu Planerako; horretaz gainera, Europako eta Espainiako suspertzetik datozenak eta inbertsio sozialak ere izanen dira.
- Estatuaren funtsak, oraingo eta hurrengo berreraikuntza programen barnean. Besteak beste, 16.000 milioiko zuzkidura, itzuli behar ez den funtsean.
- Parte-hartzea Europako funtsetan, Europar Batasunaren Suspertze Planaren eta Itun Berdearen esparruan.
- Europako 2014-2020 eta 2021-2027 aldietarako egitura eta inbertsio funtsak birprogramatuzetik datozen baliabideak (EGEF, EGIF, LGENF), planeko dagozkion apartatuan ezarritakoarekin bat.
- Europako beste ekimen eta programa batzuetatik datozen funtsak, barne daudela Invest-EU, Next Generation EU eta 2021-2027 finantza aurreikuspenen kargura finantzatutako beste programa batzuk, Europar Batasunak azkenean erabakitzen duen suspertze estrategiaren esparruan.

Testuinguru horretan, aipagarria da 750.000 milioi euroko Suspertze Funtsetan gainera akordioa (Next Generation EU). Next Generation EU funtsetan 750.000 milioitik, 360.000 milioi maileguetarako izanen dira, eta 390.000 milioi, berriz, transferentzietarako, eta pandemiaren ondorioen arabera banatuko dira.

Espainiak 140.000 milioi euro jasoko ditu gutxi gorabehera hurrengo sei urtean (herrialdearen barne-produktu gordinaren % 11 baino gehiago). 72.700 milioi euro transferentzietarako izanen dira.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak 672.500 milioi euro izanen ditu (312.500 transferentzietarako). Horietatik, 59.000 milioi euro dagozkie Espainiari. Programa horri esker, abian jarriko da erreforma eta inbertsioetarako plan nazional bat, gure ekonomiak zenbait esparrutan hazkundera eta eraldaketa izan dezan: trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, hezkuntza edo babes soziala hobetzea. ReactEU programak 47.500 milioi euro izanen ditu, eta horietatik, 12.400 dagozkie Espainiari. Programa berri hori funtsezkoa da krisiaren ondorio ekonomikoetara eta sozialei aurre egiteko.

Plana palanka bat izanen da ekonomia suspertzeko proiektu pribatuen bitartez. Orobat, baliabide pribatu gehigarriak mugiarazi gogo dira, inpaktuko inbertsioaren bidez, inbertsio arduratsuen bidez eta itun publiko-pribatuen bidez, ekintzak egiteko hala komeni denean. Ez da ahaztu behar EBko funtsak erabiltzeko baldintzetako bat inbertsio pribatua erakartzeko helburua dela, finantza-eredu berritzaileak eta jasangarritasun-helburuak batera bultzatuz. Bukatzeko, zorpetzearen baliabidea ere izanen da, defizitaren eta zorraren helburuak malgutzearen ondorioz. Hori esanik, berritasunak izan ahala Nafarroako Gobernuak horien berri emanen du.

## 6.2. Aurrekontu-esparrua

Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorrei dagokienez, honako informazio hau erantsi da, koadroarekin loturik.

	<b>Nafarroako Aurrekontu Orokorrak 2020 - Hasierakoa</b>	<b>Itxierako agertokia 2020 COVIDaren eragina-Maiatzeko agertokia</b>	<b>Bar. %</b>
I. kapitulua	2.013	1.751	%-13,0
II. kapitulua	2.000	1.444	%-27,8
III. kapitulua	36	34	%-7,2
<b>Tributu-sarrerak, guztira</b>	<b>4.049</b>	<b>3.229</b>	<b>%-20,2</b>

Hasierako Nafarroako Aurrekontu Orokorrekiko diferentzia -819,7

## 2021-2022 URTE ANITZEKO AGERTOKIA, COVID-19AREN ERAGINAREN AURRETIK

	<b>NAO 2020</b>	<b>2021 eko aurreikus</b>	<b>Bar. %</b>	<b>2022 ko aurreikus</b>	<b>Bar. %</b>	<b>2023 ko aurreikus</b>	<b>Bar. %</b>
I. kapitulua	2.013	2.044	%1,5	2.113	%3,4	2.174	%2,9
II. kapitulua	2.000	2.038	%1,9	2.082	%2,1	2.130	%2,3
III. kapitulua	36	37	%1,7	38	%1,7	38	%1,7
<b>Tributu-sarrerak, guztira</b>	<b>4.049</b>	<b>4.119</b>	<b>%1,7</b>	<b>4.233</b>	<b>%2,8</b>	<b>4.342</b>	<b>%2,6</b>

Aurreko urtearekiko diferentzia 70,1 113,5 109,2

## 2021-2022 URTE ANITZEKO AGERTOKIA, COVID-19AREN ERAGINA KONTUAN HARTUTA

	<b>NAO 2020</b> <small>hasierakoa</small>	<b>2021 eko</b> <small>aurreikus</small>	<b>Bar. %</b>	<b>2022 ko</b> <small>aurreikus</small>	<b>Bar. %</b>	<b>2023 ko</b> <small>aurreikus</small>	<b>Bar. %</b>
I. kapitulua	2.013	1.920	%-4,6	2.005	%4,4	2.064	%3,0
II. kapitulua	2.000	1.948	%-2,6	1.987	%2,0	2.042	%2,8
III. kapitulua	36	33	%-8,2	34	%1,9	35	%1,9
<b>Tributu-sarrerak, guztira</b>	<b>4.049</b>	<b>3.901</b>	<b>%-3,7</b>	<b>4.025</b>	<b>%3,2</b>	<b>4.140</b>	<b>%2,9</b>
Aurreko urtearekiko diferentzia		-147,8		124,1		115,1	
2020ko itxierarekiko diferentzia COVIDaren eragina		671,9	%20,8				

Aurtengo aurrekontu-inpaktua arintzeko, baliabide gehigarri hauek erabiliko dira:

- 2019ko superabita baliatuko da, 98 milioi euro.
- Udalenzako funtsa: 25 milioi euro.
- Zorraren eta defizitaren helburuak malgutzea: zenbatekoa zehazteko zain dago.
- Estatutik Nafarroarako aurrekontu-inbertsioa, 2020ko udan izapidetzen hasiko diren Espainiako Gobernuaren hurrengo aurrekontuetan.
- Hitzarmenaren doikuntzak Nafarroari egindako transferentzia berrieekin. Halaber, zerga arloan sor daitezkeen berrikuntzak daude mahai gainean.

# 7. PLANAREN AGINTE-KOADROA

**AGINTE-KOADROA**

Misio Estrategikoak	Jarduketa-lehentasunak	Adierazleak
Ekonomia eraldatzea digitalizazioari begira	Misio estrategiko orokorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Langabezia tasa.</li> <li>• Sexuaren araberako enplegu tasak.</li> <li>• Merkataritzako balantzaren saldoa.</li> <li>• Enpresak sortzea.</li> <li>• Nafarroako Foru Komunitatea BPGa.</li> </ul>
	L1 COVID-19aren krisiak gehien ukitu dituen sektoreei laguntzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• COVID-19aren krisia arintzeko zuzeneko laguntzen onuradun diren enpresa eta langile autonomoen kop.</li> <li>• COVID-19 ohiz kanpoko funtsaren onuradun diren toki erakundeen %.</li> </ul>
	L2 Nafarroako sektore estrategikoak indartzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inbertsiorako laguntzen onuradun diren industria enpresen kop.</li> <li>• Nazioartekotzeko laguntzen onuradun diren industria enpresen kop.</li> <li>• Automozioaren sektorea eraldatzeko ekimenen kop.</li> <li>• Industriaren balio erantsia.</li> <li>• Enplegua industrian.</li> </ul>
	L3 Ekintzailatza berritzailea eta ekonomia soziala	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekonomia sozialeko enpresa berrien kop.</li> <li>• Lagundutako berrikuntza sozialeko proiektuen kop.</li> <li>• Nafarroako inbertsio induzitua.</li> </ul>
	L4 I+Gren arloan Nafarroak Europar Batasunean duen tokia hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nafarroak "European Innovation Scoreboard 2020" adierazlean duen tokia.</li> <li>• Diruz lagundutako I+G arloko proiektuetan parte hartzen duten enpresen kop.</li> <li>• Diruz lagundutako proiektu estrategikoen kop.</li> <li>• SINAI n akreditatutako enpresaren arloko I+G+b unitateen kop.</li> <li>• SINAIko eragileen arteko lankidetzak proiektuen kop.</li> <li>• SINAIko eragileen parte-hartzea izanda onartu diren Europako proiektuen kop.</li> <li>• Nafarroako erakundeen Horizonte Europa programaren itzulkinak.</li> <li>• Lagundutako ikerketa biomedikoko proiektuen kop.</li> </ul>



Ekonomia eraldatzea digitalizazioari begira	L5 Digitalizazioa sustatzea eskualdeko lehiakortasuna hobetzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Europako Berrikuntza Digitalaren Poloa (IRIS) onartzea European.</li> <li>• Europako Berrikuntza Digitalaren Poloan (IRIS) instalatutako oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen (OTEB) kop.</li> <li>• Nafarroako Gobernuak enpresetan lagundutako IKT proiektuen kop.</li> <li>• Frogaketa digitaleko laborategi eta zentro berrien kop.</li> </ul>
	L6 Eten digitala desagerraraztea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Digitalizaziorako laguntzen onuradun diren familien kop.</li> <li>• Nafarroako hezkuntza sistemako gaitasun digitaletako prestakuntza jardueren kop.</li> </ul>
	L7 Azpiegiturak eta garraio sistemak sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errepide sareko urteko inbertsioa.</li> <li>• Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzeko gauzatu den obraren %.</li> <li>• Nafarroako Ubidearen 2. faserako kontratatutako obraren %.</li> <li>• Hiriarteko garraioa erabiltzen dutenen kop.</li> <li>• Hiri garraio komertziala erabiltzen dutenen kop.</li> <li>• Prestazio handiko trena (PHT) egiteko erabilitako urteko inbertsioa.</li> <li>• Trenz garraiatutako zama tonen kop.</li> </ul>
	L8 Guztien lan aukerak aldezte	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errenta bermatua dutenen, gazteen, emakumeen eta 45 urtetik gorakoen kontratu diruz lagunduen kop.</li> <li>• Enplegurako prestakuntza ekintzen kop.</li> </ul>

Trantsizio ekologikoa bizkortzea

Neurri estrategiko orokorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Iturri berriztagarrietatik datorren energia kontsumoaren %.</li> <li>• Instalaturiko energia berriztagarrien potentzia.</li> </ul>
L9 Nafarroak toki berria hartzea, energia berriztagarrien arloan Europako erreferentea izateko	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Energia berriztagarrien instalazio eta laborategi aitzindari berriak.</li> <li>• Berrindartutako haize parkeen kop.</li> </ul>
L10 Trantsizio energetikoa, ekonomia dinamizatzen duen elementua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Efizientzia energetikoko jarduketetarako laguntzen onuradunen kop.</li> <li>• Administrazio publikoetan, iturri berriztagarrietako energia kontsumoaren %.</li> <li>• Garatutako proiektu energetiko berezien kop.</li> </ul>
L11 Eraikuntza jasangarria	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko jarduketaren kop.</li> <li>• Landaguneetan sustatutako alokairuko etxebizitza publikoen kop.</li> <li>• Zurez eraikitako etxebizitzaren kop.</li> </ul>
L12 Ekintza klimatikoa eta ekonomia zirkularraren sustapena	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko foru lege berria.</li> <li>• Hondakin-sorreraren murriztapena, fluxuen araberakoa, erreferentzia oinarri den 2010. urtearen aldean.</li> </ul>
L13 Basoak, ibaiak eta naturaguneak, aberastasun eta biodibertsitate iturri	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biomusak Nafarroako balantze energetikoan duen pisua.</li> <li>• Basoak hobetzeko jarduketetako inbertsioa.</li> <li>• Azpiegitura berdeetarako eta naturaguneak leheneratzeko inbertsioak.</li> </ul>
L14 Elikadura sistema justua, osasungarria eta ingurumenarekiko arduratsua sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Produkzio ekologikoko ustiategien %.</li> <li>• Abiarazitako nekazaritza ikerketako proiektuen kop.</li> <li>• Nekazaritzako ustiategiak berritzeko proiektuetako inbertsioak.</li> <li>• Kalitateko produktuak eta ekologikoak sustatzeko ekintzen kop.</li> </ul>

Lurraldea modu jasangarrian egituratzea	Misio estrategiko orokorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nafarroako Lurralde Estrategia (NLE) berria.</li> <li>• Iruñeritik kanpo bizi diren biztanleen %.</li> <li>• Natura ondareari eta biodibertsitateari buruzko foru legea.</li> </ul>
	L15 Eredu berri bat hazkunde jasangarrirako eta hiri- eta landa-eremuen arteko harremanetarako	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko foru lege berria.</li> <li>• Hondakin-sorreraren murriztapena, fluxuen araberakoa, erreferentzia oinarri den 2010. urtearen aldean.</li> </ul>
	L16 Oinarrizko zerbitzu jasangarriak eta denok eskuratzeko modukoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Finantzaketa eredu berria Nafarroako toki erakundeetarako.</li> <li>• Hondakin uren arazketa sistema berrituen kop.</li> <li>• Toki inbertsioen plan berrirako erabilitako urteko inbertsioa.</li> <li>• Nafarroako zerga sarreraren gainean Toki Azpiegituren Plan berriak hartzen duen %.</li> <li>• Toki erakundearen digitalizazioari laguntzeko inbertsioa.</li> </ul>
	L17 Ekintzailtza eta berrikuntza soziala garapen kohesionatuaren eta solidarioaren alde	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Landa-ingurunean lagundutako ekimen ekonomikoen kop.</li> <li>• Garapen ekonomikorako plan bat duten Nafarroako herrien eta eskualdeen kop.</li> </ul>
	L18 Pirinioaldea eta beste eskualde behartsu batzuk suspertzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pirinioaldea lagundutako inbertsio proiektuen kop.</li> <li>• Nafarroako beste eskualde batzuetan lagundutako inbertsio proiektuen kop.</li> <li>• Nafarroa Ezagutu Sarean sartutako baliabide kop.</li> </ul>
	L19 Landa eremuaren garapen ekonomikoa eta soziala	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laneratutako nekazari gazteen kop.</li> <li>• Online merkaturatzeko laguntzen onuradun diren nekazaritzako elikagaietako enpresen kop.</li> <li>• Zirkuitu laburreko merkaturatze plataformetan parte hartzen duten nekazaritzako elikagaietako enpresen kop.</li> </ul>

Neurria	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nafarroako GINI indizea.</li> <li>• Nafarroako AROPE tasa.</li> </ul>
L20 Jendea babesteko osasun sistema	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun sistemarako erabilitako BPG-aren %.</li> <li>• Oinarrizko osasun-laguntzako profesionalen kopuruaren gehikuntza.</li> <li>• Historia kliniko soziosanitarioa ezarri da.</li> <li>• Emergentsia estrategikoko osasun horniduren erreserba ezarri da.</li> <li>• Osasun azpiegituretako inbertsioa.</li> </ul>
L21 Errenta bermea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estaldura tasa: Errenta bermatua + Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera.</li> </ul>
L22 Babes sozialaren sarea sendotzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emandako etxeko laguntza zerbitzuen (ELZ) kop.</li> <li>• Gizarte-inklusioko programaren jarduketan kop.</li> <li>• OGZen eta GZZen arteko baterako arretaren %, programa eta taldeen araberakoa eta pertsonen ezaugarri soziodemografikoen araberakoa.</li> <li>• Guraso bakarreko etxeetan egonda laguntza jaso duten emakume migratzaileen kop.</li> <li>• Txartel sozial bakarra ezartzea.</li> </ul>
L23 Egoitzako laguntza eta etxeko laguntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egoitzetan COVID-19ari aurre egiteko kontingentzia plana ezarri da.</li> <li>• Egoitza-zentro berekietan egindako inbertsioak.</li> <li>• Besteren egoitza-zentroetan egindako inbertsioak.</li> </ul>
L24 Aurrera egitea zaintzen gizarterantz	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Telelana eta kontziliazio neurriak ezartzeko laguntzen onuradun diren enpresen kop.</li> <li>• Foru administrazioan Telelan Plana ezarri da.</li> <li>• Zaintzaile profesionalak kontratatzeke laguntzen onuradunen kop.</li> <li>• Dependentziarako prestazioen itxaron zerrendan dauden espedienteen kop.</li> </ul>
L25 Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeei laguntzeko neurri, programa eta proiektuen kop.</li> <li>• Prostituzioan eta/edo esplotazioean dauden emakumeentzako harrera sarea.</li> </ul>

Kohesio soziala eta aukera berdintasuna sustatzea	L26 Gazteak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emanzipa programaren onuradunen kop.</li> <li>• Gazteen Berme Programaren onuradunen kop.</li> <li>• Gazteen langabezia tasa.</li> </ul>
	L27 Etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Alokairurako eraikitako etxebizitza babestuen kop.</li> <li>• Landa eremuan alokairurako eraikitako etxebizitza babestuen kop.</li> <li>• Garatutako cohousing jarduketan kop.</li> <li>• Etxebizitza publiko guztien gainean alokairuan dauden etxebizitza publikoen %.</li> </ul>
	L28 Pertsonengan inbertitzea: hezkuntza eta prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sortutako Lanbide Heziketa Dualeko modulu berriak.</li> <li>• COVID-19aren ondoko egoerara egokitzeko hezkuntza azpiegiturretan egindako inbertsioa.</li> <li>• Gaitasun digitaletako prestakuntza jaso duten hezkuntzako profesionalen kop.</li> <li>• Ikasleen barneko mugikortasuna sustatzeko programan parte hartzen duten ikasleen kop.</li> <li>• COVID-19ari aurre egiteko kontingentzia plana ezarri da.</li> </ul>

Bizikidetzaren esparruan sakontzea

L29 Askatasunak eta giza eskubideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizikidetzaren plan estrategikoa ezarri da.</li> <li>• Garatutako bake ekimen positiboaren kop.</li> </ul>
L30 Euskara, kohesio eta aniztasun faktorea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen II. Plan Estrategikoa prestatu da.</li> <li>• Administrazio publikorako hizkuntza dibertsifikazio plana.</li> </ul>
L31 Aniztasunerako sostengua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Segurtasun kidegoei zuzendutako sentsibilizazio, informazio eta prestakuntza ekintzen kop.</li> <li>• LGTBIQ+ kolektiboari sostengua eta babesa emateko garatutako neurri kop.</li> </ul>
L32 Justizia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espediente judizial digitala ezarri da.</li> <li>• Auzibidetik kanpo ebazteko egindako prozedura kop.</li> <li>• Nafarroako Justiziako Aholku Kontseilua eguneratzeko araudia onestea.</li> <li>• Doako justiziaren arloko araudia eguneratzea.</li> </ul>
L33 Kultura sustatzea bitzita aktiboa izateko	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Babesa/laguntza jaso duten kultura jardueren kop.</li> <li>• Kultura baliabideak eta zerbitzuak digitalizatzeko inbertsioa (liburutegiak, museoak, agiritegiak, antzokiak...).</li> <li>• Nafarroako kulturgintza profesionala suspertzeko laguntzen onuradun diren profesionalen kop.</li> <li>• Ikus-entzunezkoen sektorerako laguntzen onuradun diren erakundearen kop.</li> <li>• Atzerrian arte ikasketak egiteko eta horietan sakontzeko beken programaren onuradunen kop.</li> </ul>
L34 Kirola, bizi kalitatearen bektore bat	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol instalazioak egoera berrira egokitzeko laguntzen onuradun diren erakundearen kop.</li> </ul>
L35 Herritarren parte-hartzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nafarroan lagundutako boluntariora ekimeneren kop.</li> <li>• Krisi, elkarrizketa eta bizikidetzari buruz egindako herritarren elkarrizketarako foroan parte hartu dutenen kop.</li> </ul>
L36 Nafarroa segurua eta erresilientea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Suhiltzaileen Plan Estrategikoa (2020-2023) abiaraztea.</li> <li>• Segurtasunaren Koordinaziorako Nafarroako Zentroa ezarri da.</li> <li>• Nafarroako Foruzaingoaren Plan Estrategikoa (2020-2023) abiaraztea.</li> <li>• Autobabeserako prestakuntza ekintzen kop.</li> </ul>

Lid ergo publikoa berrestea

L37 Baliabide gehiago eta hobeak zerbitzu publikoetarako	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nafarroako Funtzio Publikoaren estatutu berria.</li> <li>• Iruzur fiskalaren aurkako Behatokia sortzea.</li> <li>• Zerga ikuskatzaileen kopurua handitzea.</li> <li>• Iruzuraren aurka borrokatzeko garapen informatiko berrien kop.</li> <li>• Zerga erreforma ezarri da.</li> </ul>
L38 Digitalizazioa, datuen zientzia eta adimen artifiziala herritarren zerbitzuan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazio digital bakarra ezarri da.</li> <li>• Gaitasun digitaletako prestakuntza jaso duten Nafarroako Gobernuko langileen kop.</li> <li>• Administrazio kudeaketa digitaleko prestakuntza jaso duten enpresen eta partikularren kop.</li> <li>• Digitalizatutako zerbitzu publikoen kop.</li> <li>• Digitalizatutako zerbitzu medikoen kop.</li> <li>• Adimen Artifizialerako Nafarroako Nazioarteko Zentro berria.</li> <li>• Digitalizatutako eskualde edo toki administrazioiko izapide berrien kop.</li> <li>• Data Navarra oinarri harturik diseinatu eta ebaluatutako plan eta programen kop.</li> </ul>
L39 Komunikazioa eta gardentasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gobernu Irekiaren plan eta ekimen abiaraziak.</li> <li>• Nafarroa Suspertu Planaren webgune berria ezarri da.</li> </ul>
L40 Sinplifikazio administratiboa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sinplifikatutako administrazio prozesuen kop.</li> <li>• Jarduera ekonomikoei lotuta sinplifikatutako administrazio izapideen kop.</li> <li>• Administrazio izapideen epeen murriztapenaren %.</li> </ul>
L41 Sareak eta azpiegiturak administrazio eta gizarte moderno eta eskuragarrietarako	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 100 Mb-tik gorako banda zabaleko estaldura duten udalerrien kop.</li> <li>• Banda zabal ultralasterreko (&gt; 100 Mbps) estaldura duten biztanleen %.</li> <li>• Foru administrazioa digitalizatzeko egindako inbertsioaren %.</li> </ul>
L42 Oinarritzko ikerketa adimen artifizialaren zientzian	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adimen Artifizialerako Nazioarteko Zentroa.</li> </ul>

Lanean mugen barnean eta mugez kanpo: kanpoaldea	Neurri estrategiko orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nafarroako Global Europako Funtsen itzulkinak.</li> <li>• Itunak Europako punta-puntako eskualdeekin.</li> </ul>
	L43 Europar Batasunaren funts gehiago eskuratzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nafarroako enpresen/erakundeen parte-hartzea izanda onartutako Europako proiektuak.</li> <li>• Europako proiektuetan parte hartzen duten Nafarroako enpresen eta erakundeen kop.</li> <li>• EBko goi funtzionarioekin izandako topaketen kop.</li> </ul>
	L44 Lerrokatzea EBren estrategia nagusiekin	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Programazio aldi berriko Europako programei buruz antolatutako informazio eta hedapen ekitaldien kop.</li> <li>• Nafarroan garatutako Europako proiektu aitzindarien kop.</li> </ul>
	L45 Nafarroa nazioartean	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen esparruan garatutako proiektuen kop.</li> <li>• Nafarroaren parte-hartzea duten eta S3 sektoreei lotuta dauden nazioarteko foroen eta ekitaldien kop.</li> <li>• Ikasleei atzerriko egonaldietarako emandako beken kop.</li> <li>• NEXT sarean parte hartzen dutenen kop.</li> </ul>
	L46 Nafarroa solidarioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nazioarteko Lankidetzarako Nafarroako Agentzia ezarri da.</li> </ul>



**8.**

**I. ERANSKINA:  
NAFARROAKO  
PARLAMENTUAK  
ONETSITAKO  
EBAZPENAK.**

# 8. I. ERANSKINA: NAFARROAKO PARLAMENTUAK ONETSITAKO EBAZPENAK.

Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen batzorde berezi bat sortzea Nafarroa Suspertu Planari buruz hitz egiteko. Batzorde berezi horren helburua zen Nafarroako Gobernuari neurriak proposatzea plan horretan sartzeko.

Testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuak proposatutako neurriak jasotzen ditu, eta plan horren ekintza-programan txertatzen.

Jarraian, Osoko Bilkurak onetsitako ebazpenen berri emanen dugu.

## 8.1. Ekonomia eta Ogasun Departamentua

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Nafarroako Zerga Ogasunak ezar dezala konpromiso bat hainbat izapideri lehentasuna emateko, beharrezko bitarteko osagarri guztiekin –hain zuzen ere, tributu bakoitzaren arauditik eratorritako itzulketa-prozedurei, bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko eskaera-prozedurei eta zergadunaren aldeko ebazpenak betearazteari lehentasuna ematea, organo ekonomiko-administratiboek eta/edo judizialek emanak direnean, zerga-kontzeptu desberdinengatik eta zerga-administrazioaren aurrean-. Arazo hori bereziki garrantzitsua da balio erantsiaren gaineko zergaren kasuan.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuko Gobernuari eskatzen dio:

- Hasi dadila Estatuko Gobernuarekin berriro hizketan, hitzarmenaren negoziazioaren esparruan, dagoeneko hasita dagoen trafikoko eskumenaren eskualdatzea bizkortzeko eta beste berri batzuk ere barnean har ditzan, hala nola espetxe-osasuna, I+G+Ba, eta ikasketetako beka eta laguntzak.

**3.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuko Gobernuari eskatzen dio

- Bidal dezala iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko foru lege-proiektu bat; hala, 2006-2016 aldiko Nafarroako ezkutuko ekonomiaren zenbatespenari eta iruzur fiskalaren diagnostikoari buruzko azterlanean jasotako gomendioei jarraituz, Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea jasoko da. Horrekin, Parlamentuko Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 7an aho batez onetsitako mozioa beteko da.
- Ugaritu ditzala Nafarroako Foru Ogasunaren erakunde autonomoan iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurka berariaz jarduten duten langileak, Europako batezbestekoaren enplegatu-ratioa lortzeko; izan ere, Nafarroan 10.000 biztanleko bost langile baino ez daude, Frantzia eta Alemanian, berriz, 17 eta 14, hurrenez hurren.

**4.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio heldu diezaiola akordio bati, Hitzarmen Ekonomikoak eskaintzen dituen aukerez baliatuz, Espainiako Gobernuarekin zorpetze-politika berri bat negoziatzeko, Nafarroaren errealtatearekin eta behar ekonomikoekin bat etorririk eta gizarte gisa Nafarroak dituen erronkei begiratuz. Horregatik, premiazkoa da Estatuarekin ibilbide-orri fiskal eta finantzario propioa adostea, Nafarroak behar dituen politika publikoak finantzatzeko. Zorpetzeko eta defizit publikorako muga berriak ezarriko dituen ibilbide-orri bat, eta udaletan ere gastu-araua gaindituko duena; izan ere, orain arte ezin izan da inbertitu azken urteetan metatutako gastu orokorretarako gerakina, ez eta aurreko ekitaldiko superabit osoa ere.

**5.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Azter dezala Nafarroako Foru Komunitatean aberastasun handien gaineko zerga edo aberastasunaren gaineko zerga onesteko aukera, eta onets ditzala hura ezartzeko legegintzako neurri egokiak
- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**6.**

- Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Espainiako Gobernuak eta Gorte Nagusiek 2011n onetsitako Konstituzioaren 135. artikulua erreforatu indargabetzea, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du indargabetze hori babestu eta eska dezan.
- Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Espainiako Gobernuak eta Gorte Nagusiek Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetzea, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du indargabetze hori babestu eta eska dezan.

**7.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio alda dezala enpresentzako laguntza, dirulaguntza eta onura fiskalei buruzko araudia, ekoizpen eta enplegua ez deslokalizatzeko berme zorrotzago eta eraginkorragoak izatera baldintzatuz.

**8.** Nafarroako Parlamentuak funtsezkotzat jotzen du Europar Batasunak eta haren estatu kideek enpresa-etekinak eta kapital-errentak tributatzeko zerga-esparru erkidea adostea eta onestea, eta Nafarroako eta Espainiako gobernuei eskatzen die harmonizazio hori babes eta aldarrika dezatela Europar Batasuneko erakundeen aurrean.

**9.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Areagotu dezala zerga-iruzurraren, ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren aurkako borroka, foru-ogasunaren diru-bilketa hobetzeko, eta, horretarako, ugaritu ditzala giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Aurkeztu dezala 2020an zergei buruzko foru-araudian indarrean dauden zuzeneko zergen onura fiskalen eraginkortasunari eta efizientziari buruzko analisiaren eta azterketaren txostena, sozietateen gaineko zergaren onura fiskalen azterketari lehentasuna emanez.

## **8.2. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua**

**10.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sor dezala plan bat, baliabide eta irizpide objektiboak bildurik, Foru Administrazioan telelana modu ordenatu eta sistematizatuan txertatzeko –baita Justizia Administrazioan ere–, eredu hori sendotzeko bidean.

Telelana kudeaketa publikoan txertatutako tresna bihurtzeko neurriak ezartzea, erabilitako praktikak eta baliabideak finkatuz eta hobetuz. Eta plantilla organikoetako lanpostuen definizioan telelanaren aukerak kontuan hartzea, antolaketa-irizpide objektiboen eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arabera ezarriz telelanaren banaketaren inguruabarrak eta ehunekoak.

Horretarako, beharrezkoa da alde zuzenetik diagnostiko bat izatea, sailka xehatutako azterlan bat, egungo egoera eta foru-administrazioan telelana sendotzeko behar teknikoak zein diren jakiteko.

**11.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sar ditzala honako neurri hauek Nafarroa Suspertu Planean:

- Estatuarekin negoziatzea Estatuko aurrekontu-legeriatik kentzeko «birjarpen-tasa», ezarri zenetik prekaritate eta behin-behinekotasun handia sortu baitu zerbitzu publikoetan.
- 2021etik 2023ra bitarteko aldiaren enplegu publikoa sendotzeko beharrezkoak diren lan-eskaintza publikoak gauzatzea, behin-behinekotasun-tasa % 8tik behera murrizteko egiturazko lanpostuetan, batez ere hezkuntzaren eta osasunaren arloetan.
- Foru Administrazioaren erreforma demokratikoan aurrera egitea, irizpide hauekin funtziona dezan: profesionaltasuna, gaitasuna, eraginkortasuna, herritarrenganako irekitasuna eta funtzionarioen parte-hartzea funtzio publikoak gauzatzean.

Horretarako, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio aurkez dezala Parlamentuan Funtzio Publikoaren Estatutu berri baten foru lege-proiektua, legegintzaldi honetan onartzeko behar adina denborarekin, Nafarroako foru- eta toki-administrazioan ordezkaritza duten erakunde sindikalekin partaidetza- eta negoziazio-prozesu bat egin ondoren, betiere irizpide horietara egokiturik eta Nafarroako enplegu publikoaren printzipio informatzaileak eta haren alderdi guztiak arautuz, hala nola eskubideak eta betebeharrak, erantzukizuna, lanaldia (telelana barne), plangintza, sailkapena, sarbidea (betekizunak, eskuratzea eta galtzea, hautaketa-prozesuak eta sistemak, hautaketa-organoak), prestakuntza, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua, langile finko eta aldi baterako langile guztien karrera profesionala (modalitateak, bertikala eta horizontala), egoera administratiboak, ordainsari-sistema, diziplina-arabidea, ordezkaritza-organoak eta negoziazio kolektiboak...

- Nafarroako Foru Administrazioaren menpeko larrialdietako zerbitzu publikoak indartzea eta pandemiagatiko arrisku-egoerarako Babes Zibileko plan berezi bat egitea, lehendik dauden Babes Zibileko plan berezien antzeko eskema batekin. Plangintza horretan, honako alderdi hauek sartu beharko dira, plana aktibatzen denetik: plana bera, haren zuzendaritza, organo edo batzorde aholku-emaile posibleak, propioak edo diziplinartekoak (Osasuna, Polizia, Gizarte Zerbitzuak, Boluntarioritza, beste administrazio publiko batzuk), baliabideen katalogoa, eginkizun eta misio posibleak, baliabideak eta langileak aktibatzea, komunikazio-sistemak...

**12.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio dei dezala mahai bat, Nafarroako Berdintasunareko Institutuarekin, Parlamentuko ordezkari politikoekin, sindikatuekin, mugimendu feministaren ordezkariak askotarikoarekin, bai eta emakume-elkarteen, zaintza-sareen eta prebentzio-ekintzako zerbitzuen ordezkariekin ere, emakumeek dituzten zainketen, indarkerien eta lan-prekaritatearen gaiari erantzungo dion jarduera-plan bat egiteko. Plan horrek epe laburrerako eta luzerako neurriak jaso beharko ditu, eta ezarritako neurriek honako gai hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- Protokolo bat egitea indarkeria matxistaren kasuak gizarte- eta osasun-zerbitzuetan detektatu eta koordinatu ahal izateko (auzo-unitateak, oinarritzko gizarte-zerbitzuak eta osasun-zentroak). Protokolo horrek osasun- eta gizarte-arloko profesionalen prestakuntza izan beharko du.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren azterketa, aztertzeke zer inpaktu izan duen konfinamenduak zainketen banaketan eta zer nolako lan-gainkarga eragin duen emakumeengan.
- Une oro bermatzea zerbitzuaren xedea eta familia-topaketak irekiko direla
- Sektore feminizatuen lan-baldintzak hobetzeko eta soldata-arrakala ezabatzeko neurriak.
- Familietan zainketak berrantolatzeke neurriak administrazioaren barruan eta kanpoan (arnasa hartzeke guneak sortzea, pertsonak kontratatzeke laguntzak, ordutegia malgutzeko neurriak lantoki guztietan).
- Etxeko langileak erregularizatzea, eremu horretako diskriminazioarekin amaitzeke eta pertsona horiek kontratatu egiten direla kontrolatzeko eta bermatzeko neurri zehatzak ezartzen direla; halaber, sektoreke hitzarmen bat onartzea, lan-baldintza duinak lortzeke.

**13.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio gara ditzala honako proposamen hauek Nafarroa Suspertu Planean:

- Ekainean, uztailean eta abuztuan hezkuntza ez-formaleko espazioak, prebentzio komunitarioko zerbitzuak eta adingabeen zaintza-zerbitzuak (ratioak, espazio fisikoak) irekitzeko ezarritako irizpide sanitarioak premiaz ezartzea; horien artean, ikastetxeetan eta haur-eskoletan espazioak erabiltzea aurreikusten ahalko da, beharrezkoa izanez gero.
- Departamentuen arteko batzordearen premiazko deialdia egitea (eskubide sozialak, berdintasuna, osasuna, hezkuntza), tokiko erakundeekin, arreta komunitarioko zerbitzuekin, zaintza-sareekin eta boluntarioekin batera, aurtengo udan gazteei eta adingabeei zuzendutako espazio komunitarioen, ludikoen eta hezkuntza ez-formalaren plangintza bat egiteko, ikuspegi komunitariotik koordinatuta.
- 12 urtetik beherakoak, adinekoak eta/edo mendekotasun- edo desgaitasun-egoeran daudenak zaintzeko laguntza ekonomikoen programa bat sortzea, errentaren araberakoa, betiere egiaztatzen bada ezinezkoa dela kontziliazio-neurriak hartzea. Nafarroako Gobernuak ahalik eta lasterren arautuko ditu eskaerak egiteko eta ebazteko baldintzak, errenta-tarteak, zenbatekoa eta prozedura.
- Toki- eta gizarte-erakundeei zuzendutako aurrekontu-partida bat onestea, programa komunitarioak, hezkuntza ez-formaleko programak, gazteentzako eta haurrentzako hiri-kanpamenduak eta halakoak ezartzen laguntzeko.

#### **14.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Giza garapen iraunkorrerako ezinbestekoa den balio-aldaketa bultzatzea eta finkatzea, maskulinitate hegemonikoak, androzentrismoak, sexismoak eta matxismoak zeharkatu gabeko balioak lortzeko, eta, halakoen tokian, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideak eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen duten printzipio filosofiko, etiko eta politikoez zeharkatutakoak hartzea.
- Nafarroak behar duen eredu diseinatzea, haiei eragindako edozein indarkeria motaren biktima diren emakumeak artatzeko, berreskuratzeko eta gizarteratzeko baliabide gisa. Eredu horrek indarkerien espezialitateak artatuko dituzten talde integralak bilduko ditu, emakumeei laguntza eskaintzeko leheneratzean, ahalduntzean eta erabateko autonomia bilatzeko bidean. (Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak honako hauek hartzen ditu haren adierazpentzat: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren bortxa; sexu-indarkeriaren mota guztiak; feminizidioa; emakumeen eta nesken trafikoa; sexu-esplotazioa; gazteegitan, hitzartuta edo behartuta ezkonaraztea; edo emakumezkoen genitalen mutilazioa).
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera, sentsibilizazio-, kontzientziazio- eta alerta-kanpainak ezartzea, udal bakoitzak dituen bitartekoak erabiliz (tokiko irratia, udal-buletina, udal-bandoak, eta abar), eta parte-hartzaile gisa bilduz saltokiak, jatetxeak, liburu-dendak eta indarkeriaren biktima den emakume bati arreta eman diezaiokkeen beste edozein establezimendu (Adibidez, Mascarilla 19).

- Proposamen guztiek bildu beharko dute genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**15.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Negozia dezala birjartze-tasa ezabatzeko aukera Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazio- eta koordinazio-batzordeen bidez, Nafarroako Foru Administrazioiko bitartekotasun- eta behin-behinekotasun-maila jasanezinak murrizteko.
- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**16.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Susta dezala Nafarroako barnealdeko Erasmus proba pilotu bat hainbat departamenturekin koordinatuta (Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala; Lurralde Kohesioa; Landa Garapena; Hezkuntza eta Nafarroako Gazteriaren Institutua) unibertsitateko eta lanbide-heziketako ikasleek biztanleriarik ezak bereziki mehatxatutako edo eragindako udalerrri eta eskualdeetan egin dezaten prestakuntza.
- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**17.**

- Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Estatuko Gobernuak lan-eskaintza publikoak deitzeko ahalmena mugatzen duen oinarritzko araudia indargabetzea, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio babes eta aldarrika dezala indargabetze hori.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio dei eta gara ditzala lan-eskaintza publiko guztiak eta behar diren hautaketa-prozedura guztiak, Nafarroako administrazio publikoek behar adina funtzionario izan ditzaten, zerbitzu publikoak bikaintasunez eskaintze aldera.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio handitu eta doitu ditzala Nafarroako administrazio publikoetako plantilla organikoak, honako hauekin loturik:
  - a) Ematen dituzten zerbitzuei eta herritarren beharrei erantzuteko beharrezko lanpostuen kopurua.
  - b) Herritarrei erantzun espezializatua eta kalitatezkoa emateko lanbide-profil egokienak.

**18.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Susta dezala Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztientzat baliagarria izanen den erakunde berri bat, larrialdien arloko premiei erantzun arin eta integrala emateko, bai esku-hartze operatiboaren ikuspegitik, bai larrialdi handien eta adingabeen prebentzioari ekiteko aukeraren ikuspegitik.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean, susta dezala autobabeserako plan berezi baten garapena eta bultzada, administrazio horiek antzemandako arriskuak kontrolatzeko eta larrialdi-egoerei aurre egiteko dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak ezartzeko (COVID-19ak eragindako larrialdirako, kasu), eta erraz dezala larrialdi-zerbitzuen esku-hartzea.

**19.**

- Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari ezar ditzala premiaz uztailen eta abuztuan hezkuntza ez-formaleko espazioak, prebentzio komunitarioko zerbitzuak eta adingabeen zaintza-zerbitzuak (ratioak, espazio fisikoak) irekitzeko ezarritako irizpide sanitarioak; horien artean, ikastetxeetan eta haur-eskoletan espazioak erabiltzea aurreikusten ahalko da, beharrezkoa izanez gero.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio premiaz dei dezala departamentuen arteko batzordea egiteko deialdia. Batzorde horretan daude Lehendakaritza, Ekonomiaren Garapena, Gizarte Eskubideak, Lurralde Kohesioa eta Hezkuntza departamentuak, tokiko erakundeekin, arreta komunitarioko zerbitzuekin, zaintza-sareekin eta boluntarioekin batera, aurtengo udan gazteei eta adingabeei zuzendutako espazio komunitarioen, ludikoen eta hezkuntza ez-formalaren gaineko plangintza bat egiteko, ikuspegi komunitariotik koordinatuta.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ezar dezala toki- eta gizarte-erakundeei zuzendutako partida bat, gazteentzako eta haurrentzako programa komunitarioak, hezkuntza ez-formala, hiri-kanpamenduak eta abar ezartzen laguntzeko.

**20.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala Foru Komunitateko Administrazioan lan ez-presentzialaren erregulazioa eta, halaber, har ditzala sustapen-neurriak enpresa pribaturako «normaltasun berriaren» fasean, Nafarroako familietan kontziliazioa eta erantzunkidetasuna errazteko.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren jardueraren berrikuspena, zerbitzu hori indartzeko egoera ustekabeko eta konplexuen aurrean, hala nola COVID-19aren pandemiarekin gertatutakoen aurrean.

**21.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio eska diezaiola Nafarroako Gazteriaren Institutuari gazteei eragiten dieten



politika guztiak zeharkako egiteko prozesuan parte hartzea –hala nola enpleguaren prekaritatea, kalitatezko hezkuntza, aisialdi osasungarria eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak–, guztia ere Nafarroa Suspertu Planaren testuinguruan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola hezkuntza ez-formalari babesa eta bultzada, Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskolako eskaintza oso baten bidez, bai eta prestakuntzarako hainbat laguntza-programaren bidez ere.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio garatu ditzala gazteen ekintzailtzarako trebetasunak eta gaitasunak, gizarte-ekonomia sustatuz.

### **8.3. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua.**

**22.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio jar dezala abian etxebizitza-parke propioa birgaitzeko plan bat, 2020ko ekitaldia amaitu baino lehen. Plan horretan, lehenik eta behin, egun hutsik dauden eta etxebizitza babestuaren eskari egiaztatua duten udalerrri guztietako etxebizitza hutsak sartuko dira, eta, bigarrenik, egun errentan emandako eraikinak, eta, duten antzinatasuna dela eta, tankera horretako esku-hartze bat eskatzen dutenak.

**23.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari eskatzen dio egin ditzala behar diren arau-aldaketak 65 urtetik gorako pertsonak, ahal dela bakarrik edo ezkontidearekin bizi direnak, alokairu babestuaren eskaintzan sartzeko aukera izan dezaten nahiz eta etxebizitza baten jabe izan, betiere Nasuvinsa sozietate publikoak kudeatzen duen alokairu-poltsarako lagatzen bada haien jabetzako etxebizitza.

**24.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sar ditzala hainbat neurri Nafarroa Suspertu Planean, premiaz eta erabakitasunez jardun dezan etxebizitza hutsen errolda egiten, zeina Nafarroako etxebizitza-eskubidea bermatzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legearen azken xedapenetako lehenengoan aurreikusten baita, iritzirik oinarritzko tresna dela etxebizitza guztien erabilera soziala aktibatzeke eta etxebizitza-parke publikoa handitzeko.

**25.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio beharrezkoa dela hirigintzako hausnarketa bat egitea, eta, haren ondotik, neurri eraginkorrak hartzea eta baliabideak aktibatzea, gutxienez honako gai hauei erantzuteko:

- Bizikidetzaren eredu berriak.
- Bizigarritasun-parametroak berriro definitzea.
- Erabilera erkideko espazioen diseinua aldatzea.
- Birgaitzeak lehenestea (eraikuntza berriaren aurrean), eta, ondorioz, udal-plangintzak eta abar berrikustea.

- Beheko solairuen erabilera bultzatzea, erabilera berriak aktibatzea eta haiekin loturiko arauak aldatzea.
- Toki-erakundeekin lankidetzan jardutea, etxebizitzak, eraikinak eta espazioak birgaitzeko eta egokitzeko hitzarmenak sinatzeko eta jarduketak gauzatzeko.
- Nafarroa Suspertu Planak deskribatu eta bultzatutako enpresa-ekimen berriak hartuko dituzten industrialdeak aktibatzea, kontuan hartuz aktibazio hori Nafarroa osoan modu eskuragarrian eta dibertsifikatuan egiten dela, hartarako egokiak diren ezaugarriei jarraikiz.

**26.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Administrazioak ezar ditzala formulak etxebizitza berehala eskuratu ahal izateko, orain abian dauden eraikuntza-sustapenak alde batera utzita, bai finantza-erakundeekin eta inbertsio-funtsekin egindako lagapen-, harreman- eta negoziazio-hitzarmenen bidez, bai helburu hori lortzeko emankortzat jotzen diren beste bide batzuen bidez.
- Har dezala konpromisoa hurrengo aurrekontuetan Administrazioak etxebizitza babestua lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritu ahal izateko partida handitzea adosteko.
- Onets ditzala legegintzako neurri egokiak, etxebizitza babestuaren kalifikazioa mugagabea izan dadin lortzeko.
- Onets ditzala legegintzako neurri egokiak, bermatzeko finantza-erakundeak, inbertsio-funtsak eta edukitzaile handiak beharturik daudela etxegabetzea gauzatu aurretik beste bizileku-aukera bat eskaintzera.
- Murriztu ditzala berehala etxebizitza babestuen erroldan izena emateko epeak, merkatu libreko alokairurako laguntzak eskuratu ahal izateko, zehazki, Etxebizitza Eskuratzeko Kenkarien Programa.
- Onets ditzala legegintzako neurri egokiak alokairuko gehieneko prezioen erreferentzia-indize bat berehala ezartzeko.
- Eman diezazkiola Etxebizitza Departamentuari baliabideak, jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroa eta 24/2013 Foru Legean aurreikusitako gainerako tresna hertsatzaileak berehala martxan jartzeko.
- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**27.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Negozia dezala Foru Komunitateko udal handienekin hutsik dauden udal-orubeak kudeatzeko eredu bat, Nasuvinsak bertan alokairu babestuko etxebizitza publikoak eraiki ahal izan ditzan, ahalik eta kosturik txikienean. Azalera-eskubidea formula arin eta ekonomiko gisa erabiltzea proposatzen zaio Gobernuari, epe laburrean eraikitzen hasi ahal izateko, udal-ondarea galdu gabe, eta, aldi berean, udalak diru-sarrerak etengabe izateko modua sortuz.

**28.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Handitu dezala etxebizitza publikoen parkea, alokairu sozialeko poltsaren esku jartzeko.
- Erabil ditzala eskura dituen baliabide guztiak, banku-erakundeek alokairu sozialeko poltsaren esku jar ditzaten Nafarroan jabetzan dituzten etxebizitza huts gehienak.
- Jarrai dezala alokairuko etxebizitzaren poltsa sustatzeko neurriak hartzen, alokairuko etxebizitza sozialen arloan dagoen eskaera sozialari arreta eraginkorra emateko eta jasangarritasun-parametroak hobetzeko, etxebizitza hutsen balioa nabarmenduz.
- Jar ditzala abian Nafarroan batzuetan gertatzen diren pilaketei edo erdi-pilaketei aurre egiteko berehalako neurriak, batez ere seme-alabak ardurapean dituzten guraso bakarreko familiei etxebizitza bat bermatzeko, baldin eta beste familia-unitate batzuekin partekatutako etxebizitzetako logeletan bizi badira.
- Alokairu-prezioak arautuko dituen lege bat sustatzea, metro koadroko gehieneko prezio bat ezarriz, kokapenaren arabera.

**29.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Luza dezala Presidentearen Konferentzian beste sei hilabetez etxegabetzeko eta bizileku-alternatibarik gabeko familia-etxe zaurgarriak botatzeko prozedura, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

**30.** Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio gaitu dezala arauzko tresna espezifiko bat, dela etxebizitzaren egungo legerian sartzeko, dela beste formula juridiko edo programa baten bidez, landa-eremuko tipologia tradizionalako eraikinen birgaitzea malgutzeko eta errazteko.

**31.** Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio egin dezala azterketa bat elkarlaneko etxebizitza-ereduak ezartzeko aukerari eta bideragarritasunari buruz, eta jaso ditzala arau-esparruan horien kalitatea eta bizigarritasuna babesten duten formulak.

#### **8.4. Lurralde Kohesiorako Departamentua**

**32.** Azaldutako guztiagatik, eta tokiko erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren kontura 2017-2020 Tokiko Inbertsioen Planari egindako ekarpenen barruan onartutako inbertsioak gauzatzean jada egiaztatu den atzerapena dela eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio handitu dezala ekitaldi honetan Tokiko Inbertsioen egungo Planaren zuzkidura, bai eta udalek eta kontzejuek erabakitzen dituzten erabaki askeko inbertsioena ere, beren beharren arabera aipatutako kontzejuren kontura gauza ditzaten.

### 33.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza eta gauza dezala Nafarroako Ubidearen 1. fasearen luzapena, eta horri Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntza gaineratu behar zaio –eta, beraz, bermatu behar dira edateko, industriako eta ureztatzeko uraren kontsumo-beharrak.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sustatu eta indartu dezala Prestazio Handiko Trenaren garapena, gure erkidegoaren garapenerako eta etorkizunerako funtsezko azpiegiturretako bat den aldetik.

### 34. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Despopulazioa arintzeko politikak garatzean, har ditzala kontuan Nafarroako Parlamentuan despopulazioari buruz egin berri diren jardunaldiko lantaldeetan sortutako proposamenak.

### 35. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Ekonomia Suspertzeko Planerako egindako proposamenak, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Bere gain har ditzala Nafarroa Suspertu Plana oinarritzeko printzipioak, hain zuzen ere, honako hauek: erakundeen arteko koordinaziorik handiena, osagarritasuna, herrien ekonomia- eta gizarte-kohesioa sustatzea, pertsona eta kolektibo ahulenei elkartasuna eta lehentasunezko arreta ematea, herritarrek eta gizarte-eragileek erakunde publikoekin hitz eginen dutela bermatzea eta tokiko baliabide publikoak zentzuz kudeatzea.

- Sar ditzala Nafarroa Suspertu Planean behar diren neurri orokorrak, toki-erakundeek beren potentzialtasun guztiak modu eraginkorrean hedatu ahal izan ditzaten, batez ere soberakinak erabiltzeko aukera ahalbidetzeari buruzkoak. Horrenbestez, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudia aldatzea defendatzen da, toki-erakundeek sortutako baliabide ekonomikoak kudeatzeko gaitasun osoa eragozten duten eta toki-erakundeen eskumenak murrizten dituzten traba eta muga guztiak ezabatuz.

- Bildu ditzala toki-administrazioaren jarduera berraktibatzekeo neurriak, tokiko jarduera ekonomikoa berraktibatzekeo neurriak eta, bereziki, enpresa txikiak eta autonomoak suspertzera bideratuak, bai eta izaera sozialeko berraktibaziorako neurriak ere.

Ildo beretik, Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aurkez dezala ekainaren 30a baino lehen apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legean onetsitako Aparteko Funtsa arautzen duen foru-legearen proiektua (foru-lege haren bidez, COVID-19aren osasun-krisiak sortutako eraginari erantzuteko premiazko neurriak onesten dira). Funts horrek balioko du toki-erakundeek 2020an pandemiaren ondorioz izanen dituzten aparteko gastuak, zerga-

sarreraren edo bestelako diru-sarreraren galerak eta jarduera ekonomikoa sustatzeko bestelako gastuak finantzatzeko.

**36.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio gara dezala errepide-sarea eta inbertsio berriak mantentzeko finantzaketa-politika bat, honako eduki hauei jarraikiz:

- Errepide-sarearen mantentze-lanak eta bide berrietan egindako inbertsioak aurrekontu publiko bidez finantzatzea.

Nafarroako Gobernuak garraio astuna bakarrik balioetsi ahal izanen du bidesariak sartzeko, ingurumen-arrazoia direla eta.

- Lehentasunezko jarduketa berriak Nafarroako Errepide eta Gaitasun Handiko Bideen Sarean:

- a) AP-15 autobidea eta A-15 (Soria-Tutera) lotzea, Iruñea-Madril bidea itxiz.
- b) N-121-A Iruña-Behobia. Errepidea 2+1 bilakatzea.
- c) PA-30 Iruñeko ingurabidea-lparraldeko itxiera.
- d) NA-132, Tafalla hegoaldeko saihesbidea.
- e) Belate eta Almandozko tunelak. EBko Zuzentaraua betetzeko banatzea.
- d) N-113. 76-77 kilometroa aldatzea, Ebro ibaiak gainezka eginez gero uholdeak saihesteko.

**37.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala lurraldeko udalak finantzatzeko eredu berri bat, egungoa berrikusi beharra dagoen aldetik. Lurralde-kohesio handiagoa lortzeko lan-ildoko irizpide berriak txertatuko dituen finantzaketa-eredu bat.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala Administrazio Elektronikoaren ezarpena Nafarroako toki-entitateetan, guztia ere eskuragarriagoak, gardenagoak, hurbilagoak, efizienteagoak eta eraginkorragoak izan daitezen.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza ditzala inbertsioak landa-eremuetan despopulazioaren aurka borrokatzeko, zerbitzu publikoak hobetze aldera.

**38.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala Tokiko Inbertsioen Plan berri bat, helburuen artean klima-

aldaketaren aurkako eta trantsizio energetikoaren aldeko borroka jasoko duena, eta, horretaz gainera, oinarrizko udal-azpiegiturak eta konektibitatea hobetzearen aldeko apustuari eutsiko diona, lurralde-kohesio eta orekako elementu gisa.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultzatzea Errepideak Finantzatzeko Plan berri bat edo susta ditzala beste bide-azpiegitura batzuk, Foru Komunitateko errepide-sarea hobetzeko.

## **8.5. Hezkuntza Departamentua.**

**39.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala Hezkuntzarako Larrialdietarako Plan Ekonomiko bat, hasiera batean, babes- eta laguntza-premia handiena duten haurren arreta planifikatze aldera, ikasturtearen amaieratik hasita (ekainaren 19rako aurreikusia).

Plan honek hainbat jarduera biltzen ditu, zeinak hezkuntza-maila desberdinen eta ikasleen beharren arabera antolatu beharko baitira, eta, arreta eta zaintza- eta elikadura-baldintza oinarrizkoak bermatuko dituen «koltxoi sozial» bat bultzatzeaz gainera, behar duten ikasleentzako hezkuntza-konpentsazioko elementu gisa ere erabiltzen ahalko da.

Zehazki, honela zehaztu daitezke Hezkuntza Larrialdietarako Plan Ekonomiko horretarako proposatzen ditugun neurriak:

- Eskola-jantokiak irekitzea.
- Oinarrizko zaintzak bermatuko dituzten eskola-kanpamenduak antolatzea.
- Eskola-laguntzako eta atzerapeneko premiak dituzten ikasleentzako hezkuntza-konpentsazioko eskola-jarduerak antolatzea.
- Udako hilabeteetan hezkuntza-premiak dituzten ikasleentzako berariazko laguntza- eta zaintza-plana.

Neurri horiei guztiei aurre egiteko, laguntza ekonomiko egokia behar da, beken deialdi berezi gisa, eta horrek jarraipena izan dezake ikasturtean zehar, beharrezkoa izanez gero.

**40.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala Inbertsio Plan bat, hezkuntza-egoera berri hori irudikatuko duena, ikasle guztiek segurtasun- eta osasun-berme egokiak izan ditzaten egun bizi dugun pandemiaren balizko berragerpenen aurreikuspenak kontuan harturik, eta, horretaz gainera, aintzat harturik gero eta beharrezkoagoa dela pertsonak gizarte birtual berri horretan sartzea, bitarteko horien bidez eginen baitira gaur funtsezkotzat hartzen ditugun gero eta jarduera gehiago.

Teknologia-arloko inbertsio-plan horrek alderdi hauek jasoko beharko ditu: ikasle guztientzako ekipamendu teknologikoaren eta sarbide-ekipamenduaren zuzkidura –bereziki premia handiena dutenak bilduta–, onlineko irakaskuntza erraztuko duten tresnen garapena, hezkuntza-komunitate osoari (irakasleak eta familiak) erabiltzeko beharrezko prestakuntza ematea, eta eduki birtualak sortzea ikasleen artean oinarrizko gaitasunak eskuratzea ahalbidetuko duten gai eta maila guztietarako.

**41.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala inbertsio-plan bat, hezkuntza-egoera berri hori marraztuko duena, ikasle guztiak segurtasun- eta osasun-berme egokiak izan ditzaten, gaur egun bizi dugun pandemiaren balizko berragerraldi aurreikuspenaren aurrean.

Plan horrek udalerrri bakoitzeko eskola-egoeraren eta ikastetxe bakoitzaren egoera espezifikoaren azterketa zorrotza izan beharko luke oinarrian, testuinguru bakoitzerako egokienak izan daitezkeen konponbideak proposatzeko, beste espazio batzuk erabiltzea baztertu gabe, eta, bistan denez, horiek ere irakaskuntza garatzeko beharrezkoak diren egokitzapenak eta moldaketak beharko dituzte.

Horregatik, beharrezkoa da:

- Premiaz egitea ikastetxe bakoitzaren ezaugarriari eta beharrei buruzko azterketa bat, konponbide posibleak eta esku hartzeko proposamenak eginez.
- Inbertsio-plan bat proposatzea, beharrezko sekuentziazioarekin, esku-hartze bakoitzaren lehentasunarekin eta kostuarekin, 20/21 ikasturtearen hasierarako eginda egon daitezen.

**42.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politikoa, sistema egonkor bat lortzeko, bai legegileei dagokienez, bai arauari dagokienez. Itun horretan, krisi hau zuzenean pairatu duen hezkuntza publikoak izan behar du lehentasuna.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala 2020-21 ikasturterako indartze-plan bat, hezkuntza-sistema prest egon dadin bizi dugun pandemia honen errepikapen baten aurrean, halako egoeretara itzuli behar badugu ere.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala lurralde-lankidetzarako plan bat, Pirinioetako hitzalditik edo Nafarroako eskualdeen garapenerako beste estrategia batzuetatik eratorritako politikekin bat etorriko dena, landa-eskolak indartzeko helburuarekin.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ezar dezala lankidetzaren hitzarmen bat foru-administrazioaren eta toki-erakunde garrantzitsuenen artean, bazterkeria-arriskuan dauden ikasleak identifikatzeko eta eskolatzeko-prozesua hobetzeko oinarriak ezartzeko.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-prestakuntza, kalitatezkoa, gure enpresetatik hurbilekoa eta sektore estrategikoetara bideratua, eta, horretaz gainera, susta ditzala enplegarritasunerako gaitasunak eta bizitzan zeharreko prestakuntza.

**43.** Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak tinko egingen du Foru Komunitatearen garapen ekonomikorako funtsezko ardatzekin lerrokatutako titulazio berriak finkatzearen eta ezartzearen alde, lanbide-heziketa dualean sakonduz eta enplegagarritasuna handitzeko helburu nagusiarekin bat datozen plazen kopurua handitzeko konpromisoarekin, bai gaztelaniaz, bai euskaraz. Hori guztia, amaitu berri den Enplegua eta Lanbide Heziketa prozesuan egindako hausnarketak eta analisiak markatutako norabidean, baita Nafarroako Lanbide Heziketaren 2017-2020 Plan Estrategikoan jasotakoaren bidetik ere.

**44.**

- Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna betetzen jarraituko du, eta bermatuko du lanaldia murriztuko zaiela 57 urtetik gorako irakasleei 2020ko irailetik aurrera, itunean jasotakoaren arabera.

- Era berean, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna betetzen jarraituko du, 2020ko irailetik aurrera ikastetxe publikoei zuzendaritza-funtziorako orduak esleitzeko aurreikusitako igoera bermatuz.

**45.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio adostu ditzala Nafarroako hezkuntza-komunitatearekin irailan izan genitzakeen egoera epidemiologikoen arabera hartu beharreko neurriak, eta egin dezala kontingentzia-plan bat gure errealitateari erantzuteko. Hauek izanen dira planaren ezaugarriak:

- Beharrezko baliabide guztiak izanen ditu, eta departamentuak ez du egingen inolako murrizketarik aurrekontuan.

- Prestakuntza-ibilbide bat eta ikastetxeentzako eta ikasleentzako baliabide digitalen hornidura jasoko ditu.

- Ratioen jaitsieraren aurrean, kontratazio-behar nahikoak aurreikusiko ditu.

- Ikastetxe bakoitzaren errealitatean oinarritutako hezkuntza indartzeko plan bat jasoko du.

- Espazioak egokitzea aurreikusiko du, talde txikiagoak bermatzeko edo beste espazio osagarri batzuk erabiltzeko.

- Segurtasun eta Osasun Batzordearen esparruan prebentzioko ordezkariarekin adostutako segurtasun-neurri guztiak hartuko ditu kontuan.

- Ikasgeletara bertaratuko diren irakasle eta ikasle guztiei bermatuko zaie testak eta babes-materialak egingen direla, eta jarraipen egokia egingen zaiela ikasturte osoan.

- Araubide bereziko ikasketen eta zentron berezitasunak eta desberdintasunak kontuan hartuta, ikastetxe bakoitzak bere plan espezializatua eta egutegia adostu beharko ditu.



- Eskola-garraioa higiene- eta distantzia-neurrietara egokitzea, eta behar duten pertsonetara mugatzea.
- Jolas-denbora berrantolatzea, Gorputz Hezkuntzako saioak egokitzea eta desgaitasuna duten haurrekin saioak egiteko protokolo espezifikoak zehaztea.
- 200 ikasle baino gehiago dituzten ikastetxeetan erizain bat edukitzeko aukera balioestea. Eta 200 ikasle baino gutxiago dituzten ikastetxeetan, berriz, dagokion osasun-zentroarekin edo kontsultategiarekin esku hartzeko edo jarraipena egiteko protokolo bat zehazten ahalko da.
- Zentro guztietan psikologo profesional bat izateko aukera balioestea. COVID-19ak eta konfinamenduak sortutako egoerak psikologikoki eragin ahal izan die ikasleei; horregatik, familia- eta etxe-egoera desberdinek –ulerturik kasu askotan kalteberak direla–, eragin zuzena izan dute ikasleengan. Beraz, psikologo batek ikastetxeetan eginkizun bereziki garrantzitsua izanen du zaintzarako hezkuntza egokia bermatzeko.

**46.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio har ditzala talka-neurriak kalitateko aniztasunari arreta bermatzeko, ikasle bat bera ere atzean utziko ez duena. Eta, horretarako:

- Egin dezala egoeraren azterketa, ikastetxe bakoitzaren errealitateetik abiatuta. Azterketa horretan, ikasleen artean hautemandako desberdintasunak eta gabeziak jasoko dira, eta arreta berezia jarriko da arrakala sozioekonomikoan, bai eta pandemia- eta konfinamendu-egoeraren ondoriozko beharretan ere.
- Aurreikusi eta gaitu ditzala egoera ahulenean dauden eta ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak konpentsatzeko beharrezko indartze- eta laguntza-baliabideak, arreta berezia jarritz ingurune sozioekonomiko komplexuetan jarduten duten ikastetxeetan, horietara giza baliaabide eta baliaabide material gehiago bideratuz.
- Bizkor ekin diezaiola, urtea amaitu baino lehen, Aniztasunari Arreta Emateko Plana berritzeko eta egoera berrira egokitzekeo prozesuari.

**47.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala zentroetako ekipamendua hedatzeko eta birjartzeko plana, bai eta haien mantentze-lana ere, eta eman diezaiela zentroi sare publikoko zentroen beharren arabera konektibitatea zentzu guztietan, bai emariari dagokionez, bai azken belaunaldiko WiFi seguruari dagokionez.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala irakasleen, ikasleen eta familien gaitasun digitalen prestakuntza, prest egon daitezen krisialdi honetan bizi izandakoaren moduko egoeraren bat berriro gertatuta ere.

**48.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola aintzatespen handiagoa eskola publikoko irakasleen lanari, inplikazioari eta ahaleginari, eta bultza dezala Tutoretzako Prestakuntza Plana.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta ditzala hezkuntza-premia jakin batzuk sortzen dituzten ikasleen ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuen optimizazioa eta hobekuntza.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari dei egiten dio ikasleen alderdi sozioemozionalaren arreta eta laguntza espezifikoa susta ditzan.

## 8.6. Herritarrekiko Harremanetako Departamentua

**49.** Nafarroak Bruselan duen Ordezkaritzaren 2018. urteko memoriaren arabera, «begien bistakoa» zen 2016an abian jarritako Europako Ekintza Planak «berrikuspen bat» behar zuela 2019an, «eguneratzeko». Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aurre egin diezaiola berrikuspen horri edo jarrai dezala harekin, eta bidera dezala pandemiak eragindako krisiaren ondoriozko egoera ekonomiko berrira. Bereziki, beharrezkoa da Topaketa Foro Iraunkorren agenda berreraikuntzaren helburura bideratzea, gure gizartean krisiak astindutako sektore guztiei mesede egin diezaieketen zeharkako proiektuak abian jartzea, eta Europar Batasunetik datozen funtsak eta Espainiari dagozkionak transferentzia eta kreditu-lerro gisa gurera erakartzea. Hartara, Europak agindutako finantziarioa lortzeko eraginkortasunean irabazteaz gain, finantziario horrek zilegitasuna berreskuratzeko du herritarren aurrean.

**50.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin ditzala beharrezko kudeaketak Nafarroak egiteko aktiboa izan dezan Europar Batasunak Next Generation UE izeneko planaren bidez estatu kideen eskura ipiniko dituen funtsen negoziazioan, banaketan eta kudeaketan.

**51.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala erakundeen arteko lankidetzak, euskarazko prestakuntza- eta kultura-produktuen onlineko eskaintza zabaltzeko.

- Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari susta dezala haur eta gazteentzako euskarazko ikus-entzunezko eduki digitalen produkzioa, eta berma dezala eduki horiek sarbide publikoa eta doakoa dutela.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultzatzea euskarazko onlineko tresnen inguruko prestakuntza gazteen artean, Sarean Euskaraz programaren bidez.
- Nafarroako Parlamentuak eskatzen die administrazio publiko eskudunei (Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua) egin ditzatela urrats egokiak ETB3 katea hartzeko Nafarroa osoan.

**52.** Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio bilera bat dei dezala Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania Berriko Eskualdeko presidenteekin, hainbat proposamen planteatzeko eta lankidetzak-esparru honen aukera guztiak aprobeztatzeko hainbat eremutan:

- Eusko Jaurlaritzarekin eta Akitania Berriko Gobernuarekin batera lan egitea, Europako Batzordeak, Eskualdeetako Lantaldearen bidez

eta Interreg 2021-2027 plan berriaren barruan, finantza-konpromiso propioak har ditzan estatu kideek mugak ixtearen ondorioz ekonomian eta gizartean izandako inpaktuari aurre egiteko, errealitate ekonomiko, kultural eta linguistiko komunak partekatzen dituzten eskualdeetan. Jarduera-esparruok Europa 2020 estrategiaren barruan bildu behar dira. Estrategia horren arabera, hauek dira euroeskualdearen lehentasunak: euroeskualdeko herritarrak, jakintzaren ekonomia eta lurralde jasangarria.

- Pertsonak eta salgaiak lurralde batetik bestera mugitzeko askatasuna proposatzea, lurralde bakoitzean indarrean dagoen araudia errespetatzeko baldintza bakarrekin.

**53.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari sendotu eta indartu dezala Nafarroaren presentzia aktiboa Europako hainbat erakundetan, hala nola Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdean, Eskualdeetako Lantaldean edo Pirinioetako Lan Komunitatean, bai eta nafarren interesetarako sinergia positiboak batzeko balio duten estatuko eta nazioarteko sareetan ere.

- Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari lan egin dezala datozen urteetarako Europako ildo estrategikoekin lerrokatuta, bereziki 2021-2027 aurrekontu-esparrua kontuan hartuta, eta bultzatuz ditzala balia bideak monitorizatu eta erakartzeko mekanismo politiko eta teknikoak, era guztietako proiektuetarako Europako funtsen deialdien bidez, bereziki COVID-19arekin zerikusia duten proiektuetarako.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultzatuz ditzala tolerantzia, errespetua, elkartasuna, parte-hartze demokratikoa, bakezaletasuna, baterako gobernantza eta halako balioak eguneroko jardunean, beste erakunde batzuekiko harremanetan eta bere politika publikoetan, balio horiek ekarri baitzuten Europako estatuen lehen batasuna, egungo Europar Batasunaren ernamuina.

**54.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egokitu dezala I. Bizikidetzaren Plan Estrategikoaren lanketa osasun-larrialdien eta haren ondorio ekonomiko eta sozialen ondorioz izanzen dugun egoera berrira, horizontea eta solaskideak areagotuz, Nafarroako Foru Komunitatean bizikidetzari osoki heltzea berma dadin eta, gutxienez, honako jarduketara hauek barnean har ditzan:

a) Desberdintasunarekiko errespetuan oinarritutako eta kultura integratzailea ezartzeko jarduerak sustatzen jarraitzea.

b) Gure gizartearen osasun demokratikoa bultzatzera bideratutako espazioak sortzea, sektore zabal eta askotarikoen partaidetza eraikitzailean oinarritutako gobernantza-sistemen bidez, ideologiaren, gizartearen eta belaunaldien ikuspegitik; espazio horietan, elkartasunaren, errespetuaren eta desberdintasunen aintzatespenaren parametroetan oinarritutako bizikidetzarako ekimen adostuak sortzen ahalko dira, eta dinamikoak izanzen dira elkarrizketa-eremu jarraituetan.

c) Adostasun-eremuak sustatzea, eremu sozial eta politikoan zoru etiko partekatua adosteko, memoriaren, aitorenpenaren eta erreparazioaren kontzeptuetan aurrera egin ahal izateko, indarkeriari zilegitasuna kenduz eta iraganaren gaineko ikuspegi kritikoa eginez.

d) Hurrengo Bizikidetzeta Planaren oinarriari buruzko jarduketa-programak egitea, zeinak eremu guztietara hedatuko baitira: tokian tokikoa, hezkuntza, erakundeak, elkarteak eta abar.

## 8.7. Osasun Departamentua.

**55.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala berrikuntza eta ikerketa biomedikoa bultzatzeko plan bat, bai eta beste plan bat ere babes-materiala, norbera babesteko ekipamenduak, testak eta bestelako osasun-materiala ekoizteko eta eskuratzeko, COVID-19ak eta beste osasun-larrialdi batzuek eragindako berragertzei erantzutea errazte aldera, eta, gainera, gure erkidegoak berrikuntzaren, ikerketaren eta ekoizpen biomedikoaren bidez ekonomia suspertzeko apustu estrategikoa egiteko.

**56.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio handitu dezala aurrekontua osasun-arloko informazio-sistematarako eta osasuneko emaitzak ebaluatzeko, berritzeko eta haietan adimen artifiziala garatzeko sistematarako, guztia ere osasun-jarduerako asistentziaren eta emaitzen kalitatea hobetzeko.

**57.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala osasun-jarduera birprogramatzeko partaidetzako plan bat, osasun-jardueraren normalizazioa lehenetsiko duena irizpide kliniko, sozial eta funtzionalak kontuan hartuta; plan hori lagungarria izanen da jarduera ahal bezain laster leheneratzeko –eta, egin ezean, biztanleriaren osasunak okerrera jo dezake– eta adierazle epidemiologikoen monitorizazioa egiteko, COVID-19k eragindako berragertzeen aurrean jarduera garaiz desprogramatzeko

### **58.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala osasun publikoa. Zerbitzu horrek lehen mailako arretarekin eta tokiko administrazioekin koordinatu beharko lituzke estrategiak, klima-aldaketarekin eta globalizazioarekin lotutako gaixotasun kroniko-degeneratiboen (elikadura, kutsadura, sedentarismoa, tabakismoa, eta abar) determinatzaileei aurre egiteko eta gaixotasun kutsakorren epidemia berrien aurreko alerta- eta euste-sistemak ezartzeko (A gripea, Ebola, SARS, koronabirusa...).

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio indartu eta hobetu dezala epidemiologia-zerbitzuen trebakuntza eta gaixotasun infekziosoen aurkako borroka.

**59.** Nafarroako Parlamentuak Gobernuari eskatzen dio susta ditzala Google eta Apple teknologia duten enpresak, harremanak monitorizatzeko eta arakutzen laguntzeko.

**60.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aurkez dezala osasunari buruzko foru lege-proiektu bat eztabaidatzeko, zeinak osasun publikoa blindatzeko balioko baitu, gure inguruko herrialde garatuen pareko finantzaketa bermatzeko (barne-produktu gordinaren % 8) eta helburu horiei guztiei aurre egiteko, arlo profesional, sozial, politiko eta sindikalean parte hartzeko prozesu baten bidez.

**61.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ezar dezala Immunologia Zerbitzu bat Nafarroako Ospitalegunean, kalitatezko osasun-arreta bermatzeko ezinbesteko tresna gisa, immunologiako laborategi espezializatua indartzeko eta immunoterapiako eta terapia zelularreko tratamenduen kontrol publikoa abian jartzeko eta bermatzeko.

**62.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio berreskura dezala egoitza-zentroen farmazia-arreta, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko farmazia-zerbitzuek eta profesionalak emanda, eredu erabat atomizatua eta Osasunbidearekin loturarik ez duena zuzenduz.

**63.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Osasun eskualde oinarrizko bakoitzeko Oinarrizko Osasun Laguntzako langileak garraiatzeko eta lekualdatzeko ibilgailuak, uniformeak eta ekipamendu pertsonala eta teknikoa bermatzea
- Osasun-langileen profilak eta funtzioak birdefinitzea, administrazio-zereginetatik askatuz, eta pazienteei arreta emateko behar adina denbora bermatzea, norbanakoaren osasun-txartelen (NOT) araberako kupoak urteko % 5 murriztuz, egungo 1.500 NOTeko maximoa % 20 murriztu arte. Halaber, administrazioko, gizarte-laneko eta psikologiako langileak indartuko dira.

**64.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Sor dezala farmazia-industriako informazioa jasotzeko sistema zentralizatu bat, osasun-arloko profesionaleri informazio egiazkoa eta kontrastatua bermatzeko, eskuragarri dauden ebidentzia zientifiko onenetan oinarriturik.
- Handitu dezala farmaziako gastua arrazionalizatzeko partidaren gastua, gaur egun 50.000 eurokoa baita (farmaziako 262.000.000 euroko gastuaren % 0,02).
- Arautu dezala etengabeko prestakuntzaren eta biltzar eta bilera zientifikoaren finantzaketa, osasun-sistema publikoaren helburu estrategikoei erantzuteko.
- Susta dezala kontrol zorrotza tratamendu eta terapien gainean, baldin eta ez badute erakutsi ebidentzia garrantzitsurik osasunaren hobekuntzan, izan bizi-kalitateari dagokionez, izan biziraupenari dagokionez, eta mugatu dezala haien erabilera.

- Handitu dezala etengabeko prestakuntzara eta ikerketa farmazeutikora bideratutako aurrekontu publikoa, industria farmazeutikoaren funtsekiko interdependentzia handiagoa sortuz, helburu komunak garatzearen bidez.

**65.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Osasunbidea garatzeko eta indartzeko beste bultzada bat ematea, giza baliabideak zabalduz, eskura dauden baliabideak aprobetxatuz, eta plantillei egonkortasuna emanen dien lan publikoaren eskaintza bat antolatuz.

- Oinarrizko osasun-laguntza indartzea, Nafarroan Oinarrizko Osasun Laguntza Estrategia (2019-2022) garatuz, zuzkidura ekonomiko egokia ziurtatuz eta sustapen- eta prebentzio-funtzioak garatuz.

- Nafarroako Foru Komunitatean pixkanaka handitzea oinarrizko osasun-laguntzara bideratutako aurrekontua, legegaldiaren amaieran osasunaren aurrekontu osoaren % 25era irits dadin (gaur egun ez da % 14tik gorakoa). Luzapen hori berehala hasiko da, oso litekeena baita udazkenean pandemia berriro agertzea.

Aurrekontu hori batez ere 1.000 biztanleko erizaintzako langileen ratioa gehitzeko aplikatuko da pixkanaka, legegintzaldiaren amaierara arte egungo ratioaren % 50 handituz. Hala, osasun-zentroak indartuko dira, beren oinarrizko eremuko hirugarren adinekoen egoitzetan osasun-arreta hobetzeko eta etxeko arreta areagotzeko, patologia kronikoen jarraipena egiteko teleosasuneko gailuen eta aplikazioen bidez, eta gaixotasun infekzioso jakin batzuen zaintza epidemiologikoa gauzatzeko (COVID-19a, adibidez).

- Osasun-zentroetako fisioterapeuten, psikologiako profesionalen eta gizarte-laneko profesionalen ratioa bikoiztea, harik eta oinarri komunitarioko diziplina anitzeko arreta-programak ezartzeko behar den ratioa lortu arte.

- Teleosasuna sustatzeko behar diren mekanismoak garatzea, patologia kroniko nagusien Osasunerako Hezkuntzako aplikazio informatikoak eta datu klinikoen jarraipen elektronikoko sistemak eskura egon daitezen epe ertainean, besteak beste, osasun-karpetaren bidez, eta horretarako behar adina aurrekontu eskaintzea, asmo handiko helburuak lortzeko, osasuna hobetzeari eta artatutako pertsonen gogobetetasunari dagokienez.

- Profesionalek eta herritarrek oinarrizko osasun-arretako zerbitzuen funtzionamenduan eta kudeaketan parte hartzeko mekanismo eraginkor eta errealak garatzea, osasun-plan komunitarioak eginez, oinarrizko osasun-eremu bakoitzeko gainerako erakunde publiko eta pribatuen inplikazioarekin.

**66.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ezar dezala espazio soziosanitario bat, zeinean oinarrizko osasun-laguntzak arreta berezia izanen baitu adinekoen egoitzetan, dagozkien eremuetan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio indartu dezala adineko pertsoneri, mendekoei edo desgaitasuna dutenei eskaintzeko etxeko laguntza, bai eta etxeko telelaguntza ere, zerbitzu horren onuradunen zaintza areagotzeko.

## 8.8. Eskubide Sozialetako Departamentua

### 67.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio onets dezala kontingentzia-plan bat hilabeteko epean adineko pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetarako, horietan COVID-19a berriro ager ez dadin.

Plan horrek barnean hartuko dituen neurrien artean, honako hauek nabarmenduko dira: zentro horietan norbera babesteko ekipamenduez behar bezala hornitzea; egoiliar eta zentroetako langile guztiei testak egitea 48 orduko epean, positibo bat detektatzen den unetik zenbatzen hasita; zentroak sektorizatze protokolo espezifikoak onartzea; eta behar bezala identifikatutako bitarteko bi zentro izatea gutxienez, zeinek bost eguneko epean egon beharko baitute operatibo, berregartze bat detektatzen den unetik hasita. Bitarteko zentro horiek 24 orduko mediku-eta erizaintza-arreta izanen dute asteko 7 egunetan.

- Era berean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ezar ditzala familientzako hainbat laguntza hilabeteko epean eta kontingentzia-plan horren esparruan, adineko senitartekoak edo desgaitasunen bat dutenak –mendekotasuna izan ala ez– etxean edukitzeko, gutxienez 2020ko abenduaren 31ra arte egoitzara itzuli gabe. Mendekotasuna duten pertsonak familian zaintzeko ematen diren laguntzetako zenbateko berberak izanen dira, eta haiek jasotzeak ez du esan nahi Banakako Arreta Programa aldatuko denik, eta bizitegi-plazaren erreserbari eutsiko zaio ordura arte.

### 68.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio indartu ditzala 2020an oinarritzko gizarte-zerbitzu guztiak gutxienez gizarte-langile bat gehiagorekin eta indartu ditzala, halaber, enplegu-agentzia guztiak gutxienez beste orientatzaile batekin, gizarteratze- eta laneratze-prozesu eraginkorrak bermatzeko gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsona guztientzat. Areagotze hori egiteko, errenta bermatua oinarritzko eremuaren arabera jasotzen duten familia-unitateen kopurua eta agentzia bakoitzari atxikitako langabeen kopurua hartuko dira kontuan, haiei guztiei orientazioa eta gizarte-laguntza bermatzeko.

- Halaber, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio 2020an indartu ditzala gizarteratzearen eta desgaitasunaren eremuko hirugarren sektoreko erakundeen programak, gizarte-laguntza, orientazioa eta gizarte- eta lan-bitartekaritza egiteko, oinarritzko gizarte-zerbitzuen eta enplegu-agentzien lanaren osagarri gisa

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio 2020an handitu dezala gutxienez 500.000 euroan gizarte-larrialdietarako laguntzetarako partida.

**69.** Horregatik guztiagatik, ziurtasun handiagoko egoera batean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala enplegu-plan bat elkarrizketa sozialaren fruitu gisa Gizarte Elkarrizketaren Kontseiluaren baitan, Nafarroaren garapenean aurrera egiteko politika ekonomikoak, sozialak eta enpleguarekin lotutakoak jasoz, guztia ere gure lurraldean bizi diren pertsona eta enpresa guztiei aukerak bermatzeko, genero-ikuspegia kontuan hartuz, emakumezkoen enplegua ez suntsitzeko eta haien lanaren kalitatea hobetzeko.

**70.** Enpresa, gizarteratzeko enpresa eta enpresa eta berrikuntzako Europako zentro horien likidezia bermatzeko, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Osa dezala lanbidearteko gutxieneko soldataren % 100erainoko dirulaguntza 2020an, modu koiunturalean, laneratzeko enpresetan lan egiten duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen soldata estaltzeko.
- Berreskura dezala gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezietarako aurrekontu-orekarako laguntza.
- Premiaz aurrera dezala enplegua mantentzeko laguntzen % 100 (lanbidearteko gutxieneko soldataren dirulaguntza) 2020ko ekitaldi osoan. Alarma-egoera deklaratu zen egunean zen benetako plantilla kontuan hartuta, urteko azken hiruhilekoan dagozkion doikuntzak eginen dira jasotako dirulaguntzaren eta urteko gainerako hilabeteetako bakoitzean den plantillaren artean.
- Egin dezala ekintza-plan bat enpresa eta berrikuntzako Europako zentroetarako eta gizarteratze-enpresetarako kontratuak erreserbatzeko.

**71.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ados dezala, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren batzorde iraunkorren, enplegu-politika aktiboen berrantolaketa eta COVID-19aren osasun-krisitik eratorritako lan- eta ekonomia-egoerarako esparru-akordioa.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio berma dezala gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eta integralak egiten direla eta laguntza-prozesuak indartzen direla, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak egiten dituzten Gizarte Zerbitzuetako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko eta/edo gizarte-entitateetako taldeak indartuz.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta ditzala prestakuntza- eta enplegu-eredu mistoak, eta sor dezala lanekoak ez diren praktikak arautzeko esparru bat enpresetan, praktika horien koordinazioarekin eta jarraipenarekin batera.



**72.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Areagotu dezala gizarte-ekonomiaren aldeko apustua, ekonomia dinamikoagoa, jasangarriagoa, berritzaileagoa eta pertsonengan zentratuagoa den aldetik, eta, bereziki, gazteen enplegua eta emakumeen ahalduz ekonomikoa sustatuz, bai eta enplegu duina eta kalitatezkoa ere pertsona guztientzat.
- Egin dezala Gizarte Ekonomiako 2017-2020 I. Plan Integralak COVID-19aren krisia hasi arte izan duen garapenaren balioespena.
- Aztertu dezala COVID-19aren krisiak zer ondorio izan dituen Foru Komunitatean ekonomia soziala osatzen duten enpresetan eta kolektiboetan.
- Egin dezala Ekonomia Sozialaren II. Plana, Gobernuko departamentu guztiekin eta inplikaturako eragileekin batera.

**73.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala premiazko bileretarako deia eztabaidaguneetan, bertan parte har dezaten egoiliarren senideek, ordezkariak sindikal eta politikoak, adinekoen egoitzen ordezkariak, desgaitasuna duten pertsonen zentroek eta Nafarroako Gobernuak berak, epe labur eta luzera aldaketa zehatzak diseinatzeko eta planifikatzeko, gaur egun dauden hutsuneak hobetze aldera.

Proposatzen da bilera horietan neurri zehatzak aztertzea, planifikatzea eta adostea. Esate baterako:

- Premiazko auditoria bat egitea, osasun-krisialdian egoitzetan gertatutakoa aztertzeko.
- Ratioak handitzea eta langileen lan- eta soldata-baldintzak hobetzea.
- Pertsonen arreta egokia ematea, erabiltzaileen eskubideak eta interesak kontuan hartuta.
- Nafarroako eremu guztietan arreta soziosanitarioa bermatzea.
- Nafarroako egoitza guztietan laneko koordinazioa, kontrola, jarraipena eta ikuskapenak egin ahal izateko behar diren tresnak sortzea, haien titulartasuna edozein dela ere.

**74.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala ahalik eta lasterren azterketa bat krisian zehar jasotako datuak aprobetxatuz, laguntzarik gabe eta familia-sarerik gabe bakarrik bizi diren pertsonen buruz. Azterlan horretan oinarrituta, proposatzen da Nafarroako Gobernuak neurriak ezartzea bakarrik eta familia-sarerik gabe bizi diren adinekoei jarraipena eta laguntza ematen jarraitzeko, haien premiei erantzun ahal izateko (eta ez oinarritzak bakarrik).

Alde horretatik, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio:

- Indar dezala etxeko laguntza-zerbitzua, langile gehiagorekin eta zerbitzu gehiagorekin, arreta integralagoa bermatu ahal izateko, hala nola arreta psikologikoa krisiak adinekoengan izan dituen ondorio psikologikoak arintzeko, eta beste zerbitzu batzuk zabaltzea, ahal den guztian etxean jarraitu dezaten, eta ahalik eta denbora luzeenean.
- Egin dezala plan bat adineko pertsonen eta mendekotasuna duten pertsonen beste bizitegi-aukera batzuk eskaintzeko, hala nola familia-etxeak eta tutoretzapeko etxebizitzak, eta lehenbailehen bultzatzea dezala elkarlaneko etxebizitzari buruz abian dauden proiektuak.

**75.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sor dezala mahai bat, bizilagunen eta komunitateen organoak koordinatzeko, sortzeko eta bultzatzeko. Organo horiek herri edo auzoetako administrazio-egiturak bilduko dituzte (osasun-zentroa, gizarte-zerbitzuen oinarritzko eremuak edo auzo-unitateak, hezkuntza-zentroak...), bai eta elkarte-egiturak ere (prebentzioko arreta-zerbitzuak, zaintza-sareak, auzo-elkartek...), mahai bakoitzak eremu horretan dituen premiei erantzuteko sareak eta erkidego-proiektuak osatzeko, guztia ere prebentzioa irizpide gisa harturik haurren, adinekoen eta mendekotasunak dituzten pertsonen arretan.

**76.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Azter dezala Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzea.
- Eutsi diezaiola garapenerako lankidetzaren finantzaketarekin loturiko aurrekontu-konpromisoari, legegintzaldiaren amaieran aurrekontuaren % 0,7 lortu arte.
- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**77.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiela bultzada eta hobekuntza sendo bat mendekotasun- eta desgaitasun-egoeran dauden pertsonentzako arretarako prestazio eta zerbitzuei, baterako ordainketak murriztuz eta ekarpena erabiltzailearen errentaren eta ondarearen proportzio zuzenean zehaztuz.
- Nafarroako Parlamentuak lidergo publiko handiagoko egoitza-arretako eredu berri baten alde egiten du, zeinak pertsona ardatz duen arreta integraleko eredu berri bat garatuko baitu. Eredu horrek zentro txikiagoen aldeko apustua egiten du, bizikidetzaren unitate txikiagoen inguruan antolaturik, eta espazio eta arreta soziosanitarioa hobetuko du COVID-19a edo etorkizunean sor daitekeen antzeko edozein pandemia hobeki prebenitzeko.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sor dezala berriazko aurrekontu-partida bat egoitza- eta desgaitasun-zentroetan erreforma-proiektuak finantzatzeko, COVID-19ari aurrea hartzeko eta

egoitza-arretaren eredu berrirantz abiatzeko.

**78.** Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du bizitzeko gutxieneko diru-sarrera abian jarri ondoren xedatzen diren funts gehigarriak pobreziaen aurkako borrokara eta gizarteratzeko eta laneratzeko politikak indartzera bidera daitezzen.

Halaber, funts horiek errentak bermatzeari, errenta bermatuari eta haur-pobreziaen aurkako borrokari buruzko programa-akordiotik eratorritako konpromisoak betetzera bideratuko dira.

**79.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio onar dezala baimenen dekretu berria 2020. urtea amaitu baino lehen, eta lan egin dezala pertsona ardatz duen arreta-eredu berria finkatzeko Nafarroako egoitza-zentro publiko eta pribatu guztietan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala inbertsio-lerro bat egoitza-zentroak, desgaitasuna duten pertsonentzako zentroak eta gizarte-zerbitzuetako beste zentro batzuk birmoldatzeko eta birgaitzeko, horiek guztiak pertsona ardatz duen arreta-eredu berri batetik eratorritako premietara moldatzeko eta espazio horietan aldaketak txertatzeko, guztia ere errazagoa izan dadin prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19aren edo antzeko epidemien aurrean.

**80.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio eguneratu eta ezar dezala gizarte-zerbitzuetako oinarrizko laguntza garatzeko plana, COVID-19aren krisiaren ondorioz sortu diren premiei ere erantzuna emateko.

**81.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala gizarteratze-planaren eguneratzea, egokitzapena eta aplikazioa, COVID-19aren krisiak eragindako gizarte-premia berriak eta egindako ebaluazioa kontuan hartuta.

## **8.9. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua**

**82.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari proposatzen dio areagotu dezala zuntz optikoa Foru Erkidego osoan hedatzeko inbertsioa, eta, era berean, ahaleginak egin ditzala negoziazioan eta lankidetzara publiko-pribatuan telekomunikazio-operadoreekin akordioak lortzeko, nafar guztiek zuntz optikoko kablea eskura izan dezaten, lurraldean nonahi bizi direla ere. Horretarako, garrantzitsua da Nafarroako Gobernuak NASERTIC bidez eskaintzen ari den prezioak aldatzea, 2020ko egungo merkatura egokituz eta bitzanleria-dentsitate txikieneko lurraldeak aintzakotzat hartuz.

### 83.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala berrikuntza teknologia-zentroi eta haiekin lotutako proiektuei laguntzak emanez, bai energia garbia sortzeko, bai energia hori biltegitatzeko, prozesuaren kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzea lortuko den aldetik.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala berrikuntza teknologia-zentroi eta haiekin lotutako sektore biomedikoko proiektuei emaniko laguntzen bidez, negozio-lerro gisa, bai analisiak egiteko material mediko eta laborategiko materiala ekoizteko, bai Zainketa Intentsiboetako Unitateetarako talde espezializatuak eta norbera babesteko ekipamenduak ekoizteko, ahal den neurrian autohornidurara hurbiltzeko.

**84.** Jakintzak, berrikuntzak eta azpiegitura digitalek izan behar dute Nafarroako ekonomiaren susperraldia gidatzeko bidea. Bermatu egin behar dugu Gobernuak Nafarroan oinarri teknologikoko enpresak garatzeko duen trazio-eginkizuna, gure lurraldeko berrikuntza indartuz eta estatuan haren proiektzioa sustatuz.

- Unibertsitateko beken programan hobekuntza-plan bat garatzea, gabeziak dituzten ikasleen beharrak jasotzea ziurtatuz eta Nafarroako ikasle guztiei ezagutzak eta gaitasunak aukera-berdintasunean garatzea ahalbidetuz.

- Imedikuntzako eraikin berria altxatzeko lanak 2021eko lehen hiruhilekoan hastea, ahalik eta lasterren erabiltzeko, bai ikasgelen eraikina, bai laborategiak eta simulazioetarako ebakuntza-gelak.

**85.** Adimen Artifizialeko Nazioarteko Nafar Zentroa sortzea, zeinaren helburu nagusia baita oinarritzko eta bikaintasunezko ikerketa optimoa eta zeharkakoa bermatzea adimen artifizialaren arlo nagusietan; azken batean, adituek adierazi bezala, bermatzea oinarritzko ikerketak ere izanen duela tokirik –alegia, industrian edo merkatuan oro har berehalako aplikazioa ez dutenak–. Helburua da zentro hori Europako eta munduko erreferente bihurtzea.

**86.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala eskubide digitalen lege-proiektu bat, «azken miliari» buruzko problematika behin betiko konpontzeko behar diren neurriak hartzeko eta inbertsioak gauzatzeko esparru gisa, haren eraginez Nafarroako herri askok ez baitituzte oinarritzko konektibitate-beharrak estaltzeko gutxieneko baldintzak. Ezinbestekoa da digitalizazioa herritar guztientzako funtsezko kontsumo-ondasun bermatua izatea, edozein udalerritan bizi direla eta udalerrri horretako baldintza sozioekonomikoak edozein izanik ere. Prozesu hori toki-erakundeekin koordinatu beharko da, kontsumo-punturainoko estaldura bermatzeko, sarea publikoa izan dadin eta, gainera, epe laburrean subiranotasun digitaleko esparrua lortzeko aukera eman diezagun.

**87.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio behar diren neurriak bultzatzea Nafarroan unibertsitate-tasei eta bekei dagokienez, inork ez dezan arazorik izan unibertsitate-ikasketetan sartzeko edo jarraitzeko, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako krisi ekonomikoaren ondorioz. Era

berean, Departamentuak berak beharrezko larrialdi-planak gaituko ditu, premia-egoeran dauden ikasleei laguntzeko.

**88.** Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari susta dezala ikerketa bi ardatzetan:

- Epeetan eta baliabideetan, lehenasuna ematea biomedikuntzari, Nafarroako ekoizpen-ehuna dibertsifikatzeari eta ekoberrikuntza xede dituzten ikerketa-proiektuei, industriaren eraginkortasuna eta ingurumen-portaera hobetzeko, prozesuak optimizatzea eta ingurumena errespetatzen duten ezagutzetan oinarritutako produktuak sortzera bideratuta. Horretarako, Nafarroako I+G+Bko Sistemako (SINAI) agenteen lana bultzatuko da, hala nola INAMAT eta ISC-Smart Cities Institutua, Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala (CENER), Nafarroako Osasun Ikerketako Institutua (IdisNA).
- 2017-2020 aldirako Zientzia eta Teknologia Planaren arabera, eskualde batek berrikuntzan lider izan nahi badu, ikertzailerik onenak izan behar ditu. Beraz, beharrezkoa da talentua trebatzeko, bertan eusteko eta erakartzeko aukera eskaintzea. Horregatik, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen barruan, Nafarroako Gobernuak unibertsitate publikoen arteko hitzarmen bat bultzatuko du –Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Bordeleko Unibertsitatea–, ikerketa-proiektuak eta jakintza eta talentuak trukatzeko proiektuak sustatuko dituen lankidetzeta-programa estu bat sortzeko, nazioarteko unibertsitateekin eta, zehazki, mugaz gaindiko unibertsitateekin harremanak indartuz.

**89.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- 2020-21 ikasturtea hasi baino lehen, eman diezaiola erantzuna teknologiarako sarbidearen arrakalari (etxeko ordenagailu-kopurua, SIM txartelak, Internetarako konexioa eta ikasteko espazio fisikoa propioa), erabileraren arrakalari (gurasoek eta tutoreek Interneti eta aplikazioei buruz duten ezagutza) eta ikastetxe publikoen eta haien irakasleen prestakuntza- eta baliabide-arrakalari.
- Eskain diezaiela herritarrei prestakuntza teknologia berrietan eta Nafarroan bizikide ditugun hizkuntzetan, administrazio-izapideak online egin ditzaten (erregistroak, errolda, errenta-aitorpena, atzerritartasunarekiko hitzorduak, eta abar) eta, hala, inklusio digitala ahalbidetzeko.
- Toki-erakundeekin koordinatutako irtenbide partikularrak ematea, abiadura handiko Internet zerbitzua eramateko pertsona bat bizi den, negozio bat dagoen edo zerbitzu bat eskaintzen den txoko bakoitzera; azken finean, arreta azken milian jartzea, guztiok izan dezagun konektibitatea.
- Sektore publikoaren barruan kudeaketa teknologikoan lan egiten duten emakumeen eta gizonen arteko ekitatibotasunaren garrantziari heltzea, Hiri Adimendunen Espainiako Sareko Gizarte Berrikuntzako Lantaldeak

gomendatzen digun bezala. Horrek eredu nagusi izan behar du beste sektore batzuentzat, IKTak gure hiri eta toki-erakundeen eguneroko martxan egonen diren etorkizunean pentsatuz.

- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**90.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Susta eta babes dezala kalitatezko ikerketa zientifiko publikoa, ikertzaile-taldeei beharrezko funtsak eta lan-baldintza duinak emanaz, eta, era berean, jo dezala ezinbestekotzat administrazio publikoen lidergo publikoa Nafarroan garatzen diren eta funts publikoak jasotzen dituzten I+G+Bko prozesuetan.
- Susta dezala osasun-ikerketa Osasunbidearen egituran, bereziki Nafarroako Ospitalegunean, zeinak Nafarroako osasun-ikerketa publikoaren erreferentziazko ospitalea izan behar baitu.
- Arau ditzala patenteen kontratuak eta funts publikoen partaidetza duten osasun-ikerketaren emaitzak, erabateko gardentasun-klausulak eta interes publikoko irizpideak barne, etorkizunean arrazoizko prezioak bermatzeko.
- Bultza dezala zientziaren plan publiko bat, ekoizpen-sarean berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatzeko, batez ere industrian, balio erantsi handiagoko ekonomia baterantz aurrera egiteko.

**91.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aurrera egin dezala konektibitatean, Nafarroa osorako banda zabala eta 5G sarea ezartzeko lau urteko plana garatuz. Plan horrek landa-eremuetan aurrerapen sozial eta ekonomikoa ahalbidetuko du, bai eta berdintasun digitalerantz eta Gobernu Digitalaren garapenerantz aurrera egitea ere, telelana, leihatila elektronikoa, telemedikuntza eta telehezkuntza sustatuz.
- Nafarroako Parlamentuak Gobernuari eskatzen dio garapen hori toki-erakundeekin lankidetzan egin behar dela, haiekin hitzarmenak formalizatuz, haien ezarpena errazteko.

**92.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aktiba dezala Erosketa Publiko Berritzailearen Atala, finantzaketa-konpromiso batekin. Hala, bermatuko dugu Gobernuak Nafarroan oinarri teknologikoko start-up motako enpresak garatzeko duen trakzio-eginkizuna. Edozein deialditatik kanpo geratzen dira paradisu fiskaletan erregistratutako enpresak eta konpainiak, Frantzia, Danimarka, Polonia eta tankerako herrialdeek markaturiko bideari jarraituz.

## 8.10. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua

**93.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio areagotu ditzala martxan jarritako abalen lerroak, jarduera ekonomikoa geldiarazi izanak sorturiko ondorioak arintzeko. Bai elkar bermatzeko sozietateei laguntzeko lerroak, bai Nafarroako Gobernuak SODENaren bidez kudeatzen ahal eta behar dituen zuzeneko abalen lerroak. Era berean, berrikusi egin beharko da zer baldintzatan baimendu behar diren abal horiek, lortu nahi den helburuaren kontrakoak izan ez daitezen, eta, aldiz, baldintza malguetan eta enpresa gehien-gehienek lortzeko moduan, xedeak eraginkortasunez lortzeko.

**94.** Proposatzen da neurri-sorta bat onartzea, oinordetza-zailtasunak edo enpresa-jarraitutasuna bermatzeko zailtasunak dituzten enpresak berreskuratzeko eta lan elkartuko kooperatiba edo lan-sozietate bilakatzeko; horiek, besteak beste, inbertsiorako eta zirkulatzaileko berariazko abal-lerroak eta birmoldaketa- eta eraldaketa-prozesuetarako aholkularitza teknikorako laguntzak jaso beharko dituzte.

**95.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Berritze Plan bat hornitu eta berraktiba dezala Nafarroan, ibilgailu berriak erosteko laguntzak aurreikusiz, bi helbururekin: batetik, salmentak handitzeak automobilgintzari laguntzea, Nafarroan zein estatuan, eta, bestetik, Nafarroako Foru Ogasunaren diru-bilketa handitzea, jarduerak sortutako zeharkako zergapetzearen bidez. Planak laguntza eman behar dio ingurumenari dagokionez gutxien kutsatzen duen ibilgailu bat erosten duenari, faktore horren arabera laguntza progresiboarekin, ibilgailu % 100 elektrikoa erosteko laguntza maila handiagoa eskainiz.

**96.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lan egin dezala Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluan, pandemiaren ondorioz sorturiko agertokira egokitutako enplegu-plan bat egiteko akordioa lortzeko, 2020-2023 aldirako Nafarroa Suspertu Planaren baitan.

**97.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Sor dezala laguntza-programa bat COVID-19a hedatu izanak eragindako krisiak astindutako enpresa txiki eta ertainak berregituratzeko eta bultzatzeko. Programa horrek, besteak beste, alderdi hauek jaso beharko ditu:

a) Deialdi honen xederako 8 milioi euro bideratuko dira orotara.

b) Diruz lagun daitekeen egitatea COVID-19aren krisiaren ondorioz enpresak duen ordainketa-gaitasunaren egoeraren arabera murrizketaren arabera ezarriko da.

c) Agindu honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak jaso ahal izateko, enpresa txiki eta ertainek baldintza hauek bete beharko dituzte: erauzketetako, eraldaketako, produktzio edo aurrekoei lotutako zerbitzu teknikoetako (produktu-prozesuari lotuak) ETE industrialak izatea, edota komunikazio eta informazioaren gizartearen arlokoak izatea, betiere krisi-egoeran badaude.

d) Laguntzak aurrerakin itzulgarrien bidez gauzatuko dira, eta publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioen arabera emanen dira.

e) Enpresa bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa 2020ko ekitaldirako aurrekontuan sartutako kutxa negatiboaren fluxuaren % 100era irits daiteke, 250.000 euroko gehieneko mugarekin.

· Egindako aurrerakinen itzulketak finkoak izanen dira, eta bost urtean behin ordaintzekoak, honela: bideragarritasun-plana gauzatzeko ezarritako epea amaitu ondoren, enpresek urtebeteko gabealdia izanen dute itzulketak egiten hasi aurretik. Hau da, lehenengo itzulketak 2022an eginen da, eta gainerakoak elkarren segidan, bosgarren urtera arte.

**98.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sar ditzala honako neurri hauek Nafarroa Susperitu Planean:

· Saltoki txikientzako digitalizazio-tresnak, eskaintzak bilduko dituzten plataformak sortzeko, hurbileko saltokiaren onlineko salmenta errazteko eta etxez etxeko salmenta ahalbidetzeko.

· Herritarrentzako bonuak jaulkitzea eta banatzea, alarma-egoerak eta ondorengo krisi ekonomikoak astindutako saltoki txikietan erosketak indartzeko. 10 langile baino gutxiago dituzten eta urtean 2 milioi euroko fakturazio-bolumena duten enpresa txikietara mugatuta egonen dira. Bonu horietan, laguntza handiagoa izanen da premia-egoeran dauden pertsonetarako. Tokiko turismoan ere neurri bera erabiltzea.

· Saltoki txikietarako irisgarritasuna sustatzeko eta baldintzak azalera handiekin parekatzeko mugikortasun-neurriak (aparkaleku-kostua, garraio publikoa sustatzea, eta abar).

· Merkataritza-etxabeei buruz:

a) Iraganean merkataritza-erabilera izan duten edo edukitzeko potentziala duten etxabeen errolda egitea, hurbileko merkataritzaren jardura sustatzeko neurriak hartzea; merkataritza-etxabe hutsen errolda egitea, eta horiek aktibatzekeo anbizio handiko neurriak eta laguntzak ezartzea.

b) Etxabe horiek birgaitzeko eta sektoreko araudia berrikusteko laguntzak biltzea

c) Merkataritza-etxabeak alokatzeko laguntzak ezartzea.

· Merkataritza-gune handiak: saltegi handiak irekitzeko ordutegiak arautzea, sektore horretako langileen lan-baldintzak eta osasuna babestuz, baita saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babesteko neurri gisa ere.

· Kontsumo-pedagogia: toki-erakundeekin lankidetzan, prestakuntza-planak eta kontzientziazio- eta sustapen-kanpainak bultzatzea hurbileko produktuen kontsumoarekin, 0 km-arekin, gertuko zirkuituekin eta



ekonomia zirkularrekin loturik, enplegua sortzeko eta mantentzeko motore gisa, zerga-baliabideei dagokienez eta ingurumen-abantailen iturri gisa. Helburua da kontsumo-ohituretan eta ereduetan aldaketa sakona sortzea.

**99.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sar ditzala honako neurri hauek Nafarroa Suspertu Planean:

· Nafarroako Industria Plana eta S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategia eguneratzeko prozesuari ekitea, honako gai hauek kontuan hartuta:

- a) Jasangarritasuneko eta ekonomia zirkularreko irizpideak lehenestea.
- b) Jarduera estrategikoak lokalizatzeko, birkokatzeko edo deslokalizazioa saihesteko estrategiak diseinatzea.
- c) Erabakiguneak eta negozio-aukerak Nafarroan kokatzearen alde egitea.
- d) Gure ekoizpen-ehuna dibertsifikatzearen alde egitea.
- e) Beste lurralde batzuekin sinergiak sortzeko tresnak definitzea, jarduera endogenoaren garapenaren arloan.
- f) Estrategiko kategorian sartzea S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategian halakotzat jotzen diren beste arlo batzuk (automozioa, mekatronika, elikadura-katea, energia berriztagarriak eta baliabideak, eta osasuna). Beharrezkoa da, halaber, arlo estrategikotzat hartzea pertsonen zaintza ardatz duten guztiak eta beren jarduera ekonomia zirkularrean oinarritzen dutenak.
- g) Plan bat egitea Nafarroako enpresek CO2 eta berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzeko, eta ingurumenerako mehatxu argiak diren enpresa-proiektuak berrikustea. Horretarako, prozedura pizgarriak edo zehatzaileak garatuko dira.
- h) Sektore publikoaren lidergoa ezartzea lankidetzan publiko-privatuko estrategian, planak diseinatzean eta lehentasunak ezartzean:

· Eskualdeko garapen agentziak: krisi honek nabarmendu du ekonomia hiperglobalizatua askoz ahulagoa dela tokiko ekonomia baino. Berreraikuntzarako ezinbesteko ekarpena izanen da tokiko ikuspegitik susperraldi sozioekonomikoa ahalbidetuko duten neurriak identifikatzea eta proposatzea. Proposatzen dugu diagnostikoari eta neurriei buruzko txosten bat egitea, eskualdeen errealitatea eta tokiko ekonomia kontuan hartuta, eta, horretarako, mahai bat eratzea eskualdeko garapen-agentziekin. Funtsezko erakundeak dira tokiko garapen ekonomikoan, eta haien ekarpenak oinarritzekoak izanen dira Nafarroako ekonomia suspertzeko.

Horregatik planteatzen da, toki-erakundeekin lankidetzan, merkataritza erakartzeko eta antolatzeko planak diseinatzea eta garatzea, txikizkako merkataritzaren egoera diagnostikatzeko eta programa bat egiteko jarduera-ildoekin eta neurri zehatzekin. Era berean, hirigintza-antolamenduaren esparruan, merkataritza-jarduera garatzen den espazio fisikoaren azterketa eginen da, bai eta tokiko alderdi sozial eta ekonomiko-komertzialen azterketa ere.

**100.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Areagotu ditzala ekonomia soziala, lankidetzakoa eta solidarioa babesteko aurrekontu-baliabideak.
- Egin dezala aurrera industria-jarduerak birkokatze bidean. Funtsezko ondasunak hornitzea lehentasun bihurtu da gure etorkizun hurbilerako, eta ezinbestekoa da ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eskaria gertatzen den lekura hurbiltzea, teknologia berriak ahalbidetuz, bai eta produktibitatea lantzea ere.
- Finantzaketa erraztea industria-ehuna indartzeko eta balio erantsi handiagoko jardueretarantz dibertsifikatzeko. Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da garapen teknologikoa eta berrikuntza ekoizpen-fase guztietara iristea eta enpresaren tamaina eta jarduera garatzen duen sektorea kontuan hartzea.
- Lankidetzeta-tresnak sortzea tokiko ekintza-taldeen eta Nafarroako Gobernuaren artean, Nafarroako aberastasunaren eta aniztasunaren ezagutza sustatzeko eta, hala, barneko zirkuitu turistikoak indartzeko. (137)

**101.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Amaitu dezala Medikuntza Pertsonalizatu eta Zehaztasunekoaren Estrategia Integrala, eta abiaraz dezala berrikuntzarako enpresen plataforma Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren esparruan, bai eta osasun-arloko enpresa-proiektuak garatzeko programa espezifikoak ere.
- Jarrai dezala egungo testuinguruan garatuko den ekintza-planean turismo-sektorearekin batera lan egiten, Nafarroa COVID-19aren ikuspegitik helmuga turistikoa seguru gisa proiektatzeko beharrezko jarduerak sustatzeko eta, epe laburrean, barne-eskaria sustatuz turismo-jardueran egindako gastua areagotzeko.
- Jarrai dezala lanean sormen-industrien eta industria digitalen sektoreko erreferentziazko eragile pribatuekin, Nafarroan balio-kate gero eta sendoagoa eta indartsuagoa eraikitzea ahalbidetuko duen enpresa-ekosistema bat ezartzeko, kalitatezko enplegua sortuz, eta, aldi berean, tratamendu fiskala berrikustea, ekosistema haren garapenari laguntzeko.
- Areagotu dezala Nafarroako enpresen nazioartekotzeari ematen zaion laguntza, bereziki Nazioarteko Planaren lehentasunezko herrialdeetara egiten diren esportazioei dagokienez.

- Erraztu ditzala saltoki txikien negozio-ereduak eraldatzeko prozesuak, batez ere digitalizazioaren bidez, eta amaitu dezala sustapen ekonomikoaren arloak arautzen dituen foru-legearen proiektua egiteko eta onartzeko prozesua.
- Gizarte-ekonomiaren esparruan, babestu ditzala krisialdian dauden enpresen ekintzailtza kooperatiboko eta birmoldaketako programak.
- Arindu dezala enpresa-proiektuetako administrazio-izapideen sinplifikazioa.
- Inbertitu dezala I+G+Ban, enpresa-lehiakortasunaren eragile gisa, eta egin dezala enpresak etengabe digitalizatzearen alde, modernizatzeko eta egiturazko aldaketa posibleetara egokitzeko bidean ezinbesteko ekintzat har daitezten.
- Bultza dezala eraldaketa digitalaren prozesua, Nafarroako garapenaren lehentasunezko ardatz gisa.

**102.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Egin dezala Nafarroa kohesionatu, osasuntsu, jasangarri, industrial eta lehiakor baten alde, S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategia COVID-19aren osteko agertoki berrira egokituz, haren printzipio gidariei eta Nafarroaren garapenaren ardatzei eutsiz.
- Bultza eta gara ditzala digitalizazioaren arloan lehendik dauden lan-ildoak, oinarri teknologikoko ekintzailtzari laguntzeko ekimenak, datu-zientziako laborategia, eta erreferentziazko proiektu berriak, hala nola Berrikuntza Digitaleko Poloa. Egiteko horretan, plataforma birtual digitalarekin, esku hartzen duten eragileen sarearekin eta haien gobernantzarekin lotutako lanak burutu beharko lirateke, eta urrats irmoz egin beharko litzateke aurrera azpiegiturei dagokienez. Enplegua galtzen duten pertsonen prestakuntza dualeko, lanbide-gaikuntzako eta gaitasun digitalen garapeneko sistemak ere sustatu behar dira, eten digitalari aurre egiteko.
- Bete dezala trantsizio energetikoari buruzko ibilbide-orria. Horretarako, eta Europako Itun Berdearekin eta klima-aldaketari buruzko Estatuko lege-proiektuaren helburuekin bat etorritik, Nafarroako Gobernuak Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen proiektua onetsi beharko du, aukera guztiak aprobetxatzeko, ekonomia, industria, enplegua sortzea eta inbertsioak erakartzea modernizatzeko aldera, eta horrek oparotasun inklusiborako bidea irekiko du, ingurumena errespetatuz.
- Erraztu eta sinplifikatu ditzala energia berriztagarria sortzeko proiektuak ahalik eta arinen eraikitzeko eta abian jartzeko beharrezko izapideak, eta bultza ditzala egungo parke eolikoak berrindartzeko proiektuak, horiek sustatuko dituen araudi propioa garatuz, ingurumen-baimenak koordinatuz, sare elektrikora sartzeko gaitasuna sustatuz eta haize-sorgailu berriak instalatzea bultzatuz.

- Aldarrika dezala automobilgintzaren sektorerako pizgarrien programa bat, eta, horrenbestez, babes ditzala Europan eta estatuan automobilgintzaren sektorean eskaria suspertzen duten ekimenak.
- Gara dezala ostalaritzaren, turismoaren eta merkataritzaren sektoreak eta sektore horietan inplikaturako hornidura-kate osoa berreskuratzeko plan bat, bai eta kalterik handiena jasotako sektoreak ere, jarduera berraktibatze eta berreskuratzeko, aurrekaririk gabeko geldialdi baten ondoren.

## 8.11. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua

**103.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bihur dezala landa-garapenerako politiketako ekintza pizgarri handiago.

Egia bada, Gobernuak dioen bezala, pandemia honen irteeran «inork ez duela atzean geratu» behar, neurri zehatzak hartu beharko dira alarma-egoerak bereziki zigortu dituen sektoreak suspertzen laguntzeko: abeltzaintza (ardiak eta haragitarako behiak, toreatzeko aziendak eta oilaskoak, batez ere), baratzezaintza eta, jakina, mahastizaintza.

Produktuak sustatzeko neurriak lagungarriak izan daitezke epe ertainera, baina beste neurri zuzen batzuk beharko dira epe laburrera, ekoizpen-azpisektore horiek berehala suspertzeko, baldin eta garaiz iritsi nahi bada, kinka larrian dauden ustiategi eta enpresa batzuk itxi aurretik.

Berrikuntzak, oro har, suspertzeko motor nagusia izan behar du, baina bereziki nekazaritzako elikagaien katean: digitalizazioan aurrera egitea, teknologia kate osoan txertatzea eta balio erantsian parte hartzea.

Cure ustez, Nafarroako Estrategia Adimentsua (S3) berrikustean, COVID-19aren osteko ingurune berrira egokitzeko, ezinbestekoa da suspertzeko funtsezko bi osagairi eustea: nekazaritzako elikagaien katea eta enpresadimentsioa handitzea.

### 104.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala energia berriztagarrien elkarketa ureztatzeak modernizatzeako proiektuetan, baldin eta energia-kontsumo motaren bat badute.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio gara ditzala Nafarroako Ubidea eta Ureztatzeen eta Uraren Estrategiaren Foru Plana, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarria garatzeko, gainerako ureztatze-eremuetan bezala. Ura eta energia aurreztearen eta ingurumen-inpaktuaren ikuspegitik, efizientziak funtsezko zeregina izan behar du.

**105.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Susta dezala klima-anbizio handiagoa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Lege berriaren bidez.
- Susta dezala industriaren esparruan ekonomia garbia eta zirkularra, Nafarroako Ekonomia Zirkularren Agenda aplikatuz.

- Bultza dezala ekosistemen eta biodibertsitatearen zaintza eta berrezarpena, biodibertsitateari buruzko foru-lege berri bat sustatuz.
- Aurrera egin dezala elikadura sistema justua, osasungarria eta ingurumenarekiko arduratsua izateko bidean.

**106.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sar ditzala Nafarroa Suspertu Planean honako gai hauei buruzko neurriak:

- Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari laguntzeko neurriak, kontuan hartuta duen garrantzi estrategikoa, zeina agerian geratu baita alarma-egoera osoan. Neurri horiek sektorearen ekoizpen-eredua benetan aldatzea sustatu behar dute, eta, beraz, ekoizpen-baliabideen pilaketari, ustiatzearen tamainari eta laguntzei mugak jartzen dizkieten arauak ere ekarri behar dituzte, zerga-eskakizunetan eta eskakizun burokratikoetan progresibotasuna aplikatuz, esandako tamaina horiek kontuan hartuz. Azkenik, neurriok zirkuitu laburrak indartzea ahalbidetu beharko dute, eta landa-mundu indartsu, sendo, jasangarri eta orekatu baten alde lan egin, elikadura-burujabetzan aurrera egiteko urratsak eginez.
- Kalitatezko produktuak sustatzea; bertakoa eta gertukoa dena aintzatestea; elikagaien kalitateari eta segurtasunari buruzko Europako araudiak, lan-arauak eta ingurumen-arauak betetzen dituen produktuak aitortzea; eta inguruan aberastasuna sortzea sustatzea.
- Nafarroako Gobernuak kontrola dezala erabat betetzen dela elikagaitatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea. Haren azken erreformaren ondoren, debekatu egiten da galeretan saltzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreei bidezko prezioak ordaintzen zaizkiela bermatzeko.
- Merkaturatze-zirkuitu laburrak bultzatzeari lehentasuna ematea, hurbileko eta tokiko merkataritzari laguntzeko neurriak barnean harturik.
- Erosketa publikoa tokiko nekazaritzako elikagaien sektorea suspertzeko tresnatzat hartzea. Ospitaleek, eskola-jantokiek eta egoitzek kontuan har ditzatela, elikagaiak erostean, pleguetako prezioa ez ezik klausula sozialak, tokiko produktuei buruzkoak eta prezio duinak sustatzen dituztenak ere. Azken batean, elikadura osasungarria sustatzea.
- Lantalde bat sortzea eskala txikiko nekazaritzarako plan estrategiko bat egiteko, jasangarria eta Nafarroako elikadura-subiranotasunerantz egiten duena. Plan hori partaidetza bidez egiten da, eta epe labur, ertain eta luzera garatu beharreko ekintzak jasoko ditu, plana garatzeko berariazko aurrekontu-esleipenarekin.
- Nekazaritza Politika Erkidearen eredu berria defendatzea Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasunarekin (UAGN), Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunarekin (EHNE) eta Nafarroako Nekazarien Kooperatiben Batasunarekin (UCAN), eskubide historikoak ezabatzeko, nekazari pertsonalari lehentasuna emateko, familiako nekazaritza-ustiatze defentsarako edo nekazaritza-ekoizpen jasangarri, ekonomiko eta sozialak sustatzeko.

- Aisialdiko baratzeetan autolaborantza babestea, ingurumena errespetatzen duen jarduera den aldetik, ingurumenari eta kontsumo jasangarri eta osasungarriari buruz kontzientziazten laguntzen baitu, bai eta lurzoru emankorren ezaugarriak babesten ere. Horretarako, hau proposatzen da:

- a) Aisialdiko baratzeetako erabilera eta jarduerak arautzea, pizgarri gisa

- b) Toki-erakundeekin lankidetzan, aisialdiko baratzeen foru-parke bat sortzea, hala nahi duten herritarren eskura jarri eta aktibatzeke, zehaztutako baldintzetan, aipatutako jarduerarako balio duten lursailetan –gaur egun beste erabilera batzuk dituztenak edo aipatutakoa baino balio txikiagoko jardueretarako erabiltzen direnak–.

**107.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio 2020ko irailaren 30a baino lehen onets dezala Klima Aldaketari eta Eredu Energetikoaren Trantsizioari buruzko Foru Legearen proiektua, Parlamentuari igortzeko, zeinak honako gai hauek jaso beharko baititu:

- Xedea: arau-esparru, esparru instituzional eta instrumental egoki bat ezartzea, klima-aldaketa arintzea eta klima-aldaketara egokitzea errazteko, eta karbono gutxiko energia-eredu bateranzko trantsizioa errazteko, energia berriztagarrietan oinarrituta, eta Nafarroako gizartea eta haren ingurunea klima-baldintza berrien aurrean prestatzea, nazioarteko jarraibideei eta konpromisoei men eginez.

- Xedeak:

- a) Berotegi-efektuko gasak murrizteko nazioarteko konpromisoan eta Nafarroan klima-aldaketara egokitzen laguntzea, biztanleriaren eta lurraldearen zaugarritasuna murriztuz.

- b) Nafarroa lurralde jasangarri eta erresilientearen erreferente bihurtzea klima-aldaketara egokitzeari dagokionez.

- c) Nafarroan pertsonen eta ekosistemen osasuna babestea lortzea, gizarte-sektore ahulenei arreta berezia eskainiz. Jasangarritasun energetikoaren baldintzak eta klima-aldaketara egokitzea politika publikoetan txertatzea.

- Konpromisoak: nazioarteko konpromisoak betetzeko, Foru Legean berotegi-efektuko gas-emisioak gutxienez % 45 murriztea ezarriko da helburu gisa 2030erako, eta murrizketa hori % 80koa izanen da 2050erako, betiere 2005ekoekin alderatuta (hain zuzen ere, halaxe zehazten dute 2050erako Europako Energia Estrategiak, Nafarroako 2030erako Energia Planak eta KLINA - Klima Aldaketaren Ibilbide Orriak).

- Gobernantza: Foru Legean gobernantza sistema bat aurreikusiko da, helburu hauekin

- a) Nafarroako administrazio publikoen erantzunkidetasuna sustatzea klima-aldaketaren eta eredu energetikoaren trantsizioaren politikak aplikatzean, bakoitzaren eskalan eta behar diren bitartekoekin eta tresnekin, Nafarroako Gobernuaren eta toki-erakundearen sektore-politikak txertatuz zeinek bere eskumenen esparruan.

b) Klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko estrategien erabateko integrazioa bultzatzea politika sektorialetan, planetan eta programetan.

c) Herritarrek eta eragile sozial eta ekonomikoek Nafarroako Klima Aldaketaren Ibilbide Orriaren (KLINA), 2030erako Nafarroako Energia Planaren eta energiaren eta klima-aldaketaren arloko plangintza-tresnen jarraipenean eta ezarpenean parte har dezaten laguntzea.

- Nafarroako Energia eta Klima Aldaketaren Agentzia sortzea, izaera publikoko erakunde gisa, nortasun juridikoarekin eta autonomia administratibo eta ekonomikoarekin.

- Nafarroako Klima Funtza sortzea eta eratzea, berotegi-efektuko gas-emisioak arintzeko eta isurketa horiei lotutako giza osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktu kaltegarriari aurre egiteko neurriak finantzatzeko. Funtz hori modu berezian integratuko da sail eskudunen aurrekontuan.

#### **108.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Bultza dezala klima-aldaketari buruzko lege bat, aurre egin beharreko erronkei heltzeko ezinbesteko tresna izan dadin; haren helburua izanen da ikuskapen-programa bat, emandako baimenetan ezarritako araudia eta ingurumen-eskakizunak betetzen direla kontrolatzea eta fiskalizatzea. Hori horrela, ingurumen-baimen integratua behar duten instalazioak, nekazaritzako elikagaiak, harrobiak, konposatu organiko lurrunkorren kontsumitzaileak, ur-araztegiak, hondakinen kudeatzaileak, hondakin arriskutsuen ekoizleak eta mindak kudeatzeko instalazioak ikuskatuko dira.

- Baliozkotu ditzala isurketa-eskubideak salerosteko araubideari lotutako enpresek emisioak egiaztatzeko eskaintzen dituzten txostenak, eta inskriba ditzala emisioak EBko Erregistroan. Bertan, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideei buruzko araudiaren mende dauden jarduerak kontrolatzeko eta horien emisioak egiaztatzeko adierazleak aurkeztuko dira (CO2 isurpenei buruzko urteko txostenak, baimen-aldaketak eta jarraipen-planak, jardueren funtzionamenduarekin loturiko aldaketa-txostenak).

- Onets dezala hondakinen isurketa zigortuko duen fiskalitate berde bat (biodegradagarriak ez diren erabili eta botatzeko banakako babes-ekipamenduak, erabilera bakarreko plastikozko poltsak, biodegradagarriak ez diren erabili eta botatzeko baxerak eta kapsulak...); fiskalitate berdea, neurri berdeak ezartzen dituzten enpresak sarituko dituena eta ekoizpen-eredua aldatzeko baliabideak emanen dizkiguna; fiskalitate berdea, «zero hondakin» izateko helburua sarituko duena eta produkzioaren ziklo osoan inportatutako elementuen tokian bertakoak sustatuko dituena; eta erregai fosilen erabilera baztertuko duen fiskalitate berdea.

- Bestelako ikuspegi bat hartzea ingurumen-babesari dagokionez. Hala, ingurumen-legeria urratzen duenak, zigorra jasotzeaz gainera, eragindako kaltea konpondu beharko du.
- Ezar dezala berrindustrializazio berdearen eta ekonomia zirkularraren estrategia bat, ingurunean ez ezik kutsadura, baliabideak eta biodibertsitatea kudeatzeko jardueretan ere inpaktu positiboa izanen duten industrietan enplegua sustatzeko, Nafarroako Hondakinen Planaren 2017-2027 aldirako Prebentzio Programaren helburuak betetzeko (programa horren helburuetako bat da 2020rako hondakinak % 12 murriztea, 2010ean sortutakoekin alderatuta).
- Bultza ditzala ingurumenari buruzko hezkuntzarako, sentsibilizatorako eta kontzientziaziorako jarduerak, herritar guztien inplikazioa sustatuz, baita adin txikienetatik ere, gure ingurunea hobetzen lagunduko duen kontzientzia kolektiboa sortzeko, ingurumen-hezkuntzako jardueretarako eta ingurumen-boluntarioei laguntzeko 2016an hasitako programekin, eta berreskura dezala ingurumen-hezkuntzako eta boluntariotzako proiektuetarako laguntzen urteko deialdia.
- Diseina eta koordina dezala, Hezkuntza Departamentuarekin eta Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiarekin batera, ekonomia zirkularrari buruzko titulazio eta akreditazio profesional berri bat, enplegu berdea eta zirkularra gaitzeko eta sustatzeko.
- Bildu dezala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuak ere.

**109.** Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Foru-dekretu bidez, egokitu ditzala eskakizun higieniko-sanitarioak, gure landa-eremuan bizimoduak eta bitartekoak mantentzeko eta Foru Komunitatean nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera sortzea sustatzeko.
- Lehenetsi ditzala inbertsioak ekoizpen ekologikoa sustatzeko eta Foru Komunitatearen eskaria ziurtatzeko eta sendotzeko, eta, era berean, aztertu ditzala elikagai ekologikoen eta tokiko elikagaien soberakinak kudeatzeko formulak, nekazaritza eta abeltzaintzako eredu jasangarriagoak bultzatzeko eta haietara igarotzeko.
- Balia dezala elikagai ekologikoen eta tokiko elikagaien soberakinen erosketa publikoa, elikagai horiek beharrak dituzten herritarrei helarazteko, zaurgarritasun-txartelak erabiliz.
- Ezar dezala toki-erakundeek, herritarren erakundeek edo kooperatibek sustatutako instalazio berriztagarri txiki eta ertainetan inbertitzeko zuzeneko laguntzen lerro bat, elektrizitatea edo beroa bertatik bertara kontsumitzeko –besteak beste, ura edo biomasa erabiltzea lehenetsiko du Departamentuak–.
- Sustatu dezala landa-ingurunean autoenplegua, lantegi kolektiboak sortuz eta herri-lurrak erabiliz, bai eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak kudeatzeko belaunaldien arteko modu berriak ere.



- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**110.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Bultza dezala ingurumenaren babesarekin eta energia-eraginkortasuna hobetzeko estrategiekin konprometitutako ekoizpen-prozesuen, produktuen eta ondasunen garapena, klima-aldaketaren aurkako borrokan lagungarriak izanen diren aldetik.
- Egin eta abian jar dezala trantsizio ekologikorako, emisioak murrizteko eta energia-kontsumoa arrazionalizatzeko plan estrategiko bat, eredu zirkularretarantz igarotzeko, alderdi hauek oinarri hartuta: energiaren eta materialen kontsumoa murriztea, tokiko ekoizpen-, banaketa-, merkaturatze- eta kontsumo-ereduak, «zero hondakin» lortzeko politika, garraioaren murrizketa eta mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua.
- Egin dezala apustu irmoa energia berriztagarrien, eraikinen birgaitze ekologikoaren, hondakinak berrerabiltzearen, birziklatzearen eta kudeatzearen alde, bai eta funtsezko ondasunen ekoizpena birkokatzearen alde ere (osasuna, ehungintza, elikagai-gintza, teknologia...).
- Egin dezala airearen kalitatea hobetzeko plan bat, Erribera aldea lehenetsiz, eta kutsaduraren aurkako protokoloak egitea udalekin, bereziki Iruñekoarekin eta Tuterakoekin.

**111.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola bultzada mardul bat nekazaritza-politika berri bati, gai izan dadin familia-nekazaritza eta ustiategi txikiak defendatzeko, ingurumena babesteko eta enpresa handiek nekazaritzako elikagai-katearen gainean duten kontrolari muga ipintzeko, kontsumorako oinarritzko elikagaien prezioen espekulazioa saihestuz.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bultza dezala irmo nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa.

**112.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta ditzala garapen jasangarrirako gidak eta planak, oinezkoek eta bizikletek espazio publikoa gehiago erabil dezaten.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aurkez dezala lege-proiektu bat Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, udalerrri eta eskualde bakoitzean mugikortasun ez-kutsagarriko planak sustatzeko. Plan horien bidez, bidegorriak eta oinezkoentzako pasealekuak fisikoki definituko dira, baliatutako toki bakoitza egituratzeko eta gunek mugakideekiko komunikazioak taxutzeko, autoek azken urteetan inbaditutako espazio publikoaren zati bat berreskuratzearen bizkar.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio azter eta aplika ditzala beharrezko neurri guztiak, iturri berriztagarrietatik eskuratutako energia elektriko bidezko garraio publiko kolektiboa martxan jartzeko eta hobetzeko.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala bizikletak eta bestelako ibilgailuak erosteko dirulaguntza lerro bat, mugikortasun jasangarria errazteko.

**113.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Har dezala 2021-2027 aldirako landa-garapeneko plana nekazaritza-jardueraren eta landa-garapeneko politiken inguruko jarduera-ildoei estaldura eman behar dien esparru-estrategiatzat, bai eta landa-ingurune biziaren bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko balioko duen tresna estrategikotzat ere, gizarte- eta ingurumen-eredu jasangarri baten ildotik.

- Jarrai dezala Nekazaritza Politika Erkidearen bigarren zutabearen egindako ahaleginarekin, bai Europar Batasunak Nafarroara bidera ditzakeen erkidegoko funtsekin, bai funts propioekin.

**114.** Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiak maneiatzeko teknika berrietarako aholkularitza, ikerketa eta esperimendua sustatzea eta bultzatzea; ekoizpen-teknikak eta izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzeko teknikak berritzea; eta ekoizpen-prozesu osoaren digitalizazioan aurrera egitea.

## **8.12. Kultura eta Kirol Departamentua**

**115.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala plan bat, «Navarra Aplaudu» gisa sailka daitekeena eta krisi honetan gizarteak egindako ahalegin guztiari esker ona itzultzea ardatz izanen duena. Konfinamendu garaian balkoietako txalo-zaparradarekin gertatu den bezala, Nafarroako Parlamentuak berotasun eta arnasa hori itzuli nahi die herritar guztiei etxeko kontsumo digitalaren bidez, bai eta aurrez aurreko moduan ere, antzoki, zinema, zuzeneko musika areto, erakusketa, ekitaldi, lehiaketa, kirol-erakustaldi eta abarretako aretoetan garatutako jardueretan.

Planak kirol- eta kultura-bonu presentzialen eta digitalen eskaintza izanen luke ardatz, herritar guztiek parte har dezaten kulturaren eta kirolaren sektorearen susperraldi ekonomikoan eta sozialean. Era berean, kirol- eta kultura-arloko bonu solidarioen eskaintza bat proposatzen dugu krisiaren ondorioak gehien jasan dituzten pertsonentzat, hala nola langabetuentzat edo erretiratuentzat, eta, aldiz, kirol- eta kultura-arloko osasun-bonuak, bizitzak salbatzeko borrokan aritu diren eta konfinamenduan funtsezko ondasunak eta bizitza bera hornitu dizkiguten funtsezko sektoreetako langile eta osasun-langileentzat. Horrekin, krisiak gogotik astindu dituen bi sektoretan kontsumoa sustatzeaz gainera, susperraldi horren berri eman nahi diegu herritar guztiei, batez ere pandemiaren unerik kritikoenetan lehen leerroan lan egin dutenei.

**116.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezala plan bat ondare historiko kulturala kontserbatzeko, zaharberitzeko, mantentzeko eta hedatzeko, Nafarroako toki-erakundeekin batera finantzaturik, krisi ekonomikoak eraikuntzan, ostalaritzan, merkataritzan edo turismoan izan dituen ondorioak arintzeko.

**117.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sor ditzala, gutxienez, % 15eko deskontudun kultura-bonuak liburuak, musika eta abar kontsumitzeko edo eskuratzeko hurbileko saltokietan, baita ikuskizunetarako –Baluarterako eta Nafarroa Arenarako– eta Nafarroako museo-sarerako sarrerak eskuratzeko ere.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sor ditzala, gutxienez, % 15eko deskontudun kultura-bonuak liburuak, musika eta abar kontsumitzeko edo eskuratzeko hurbileko saltokietan, baita ikuskizunetarako –Baluarterako eta Nafarroa Arenarako– eta Nafarroako museo-sarerako sarrerak eskuratzeko ere.

**118.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sar ditzala kultura-esparruko honako auzi hauek Nafarroa Suspertu Planean:

- Departamentua ezohiko baliabideez hornitzea, Nafarroako Parlamentuak 2020ko maiatzaren 21ean onetsitako Kulturako Talka Plana gauzatzeko.

- Nafarroako kultur esparruko profesional eta amateurren egoera duintzeko eta egonkortzeko neurriak hartzea.

- Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legean jasotako aurreikuspenak, jarduketak eta eskubideak betetzea

**119.** Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio azter dezala, zehatz-mehatz, COVID-19aren krisiak zer inpaktu izan duen Nafarroako bertako kultur adierazpen herrikoi eta folklorikoetan (erraldioen konpartsak, dantzariak, txistulari taldeak, jota, bertsoariak...), eta diseina ditzala elkarrikeretan oinarritutako neurriak eragindako kolektiboekin, jarraipena bermatzeko, haien jarduera egungo egoeran egokitze eta gizartean duten eragina bultzatzeko.

**120.** Parlamentuak, kirolaren arloan, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ahalik eta lasterren jardun dezala herritarrek kirol-jardunerako eta oinarritzko kiroleko talde eta klubak jardueretarako sarbidea bermatzeko. Hartara, ezohiko laguntza larri bat ezarriko da instalazioak egokitze, aire zabaleko praktikarako berariazko mugaketak egiteko eta landa lurretan jarduteko.

**121.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Egin ditzala premiazko ezohiko deialdiak, gure erkidegoko kultura-sektoreen larritasuna arintzeko, kultura-jardueraren geldialdia eta susperraldi motela direla eta. Berregituratu ditzala lehendik diren laguntzak, epeak luzatuz eta laguntzak jasotzeko baldintzak malgutuz.

Negozia dezala lurraldeko, estatuko eta Europako ezohiko funtsetarako sarbidea, Departamentuak Nafarroako hurrengo aurrekontuetan duen pisu espezifiko aldatzeko helburua onartuz, harik eta Europako batezbestekora iritsi arte –hots, aurrekontuaren % 1,5era–.

- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

#### **122.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Taxutu dezala kultur sektorearen eraldaketa digitalari laguntzeko programa bat, sorkuntzarako eta erakusteko aukera berriak ezagutzeko eta esperimintatzeko, hedapen-, merkaturatze- eta banaketa-katalogo digital bat sortzea bultzatuz eta publikoarekin harremanetan jartzeko formula berriak arakatzuz.

- Sortu ditzala zuzeneko Arte Eszenikoen sektorerara bideratutako erakusketa-programa eta ekintza berriak, propioak edo beste sail batzuekin lankidetzan, Nafarroako talde profesionalak kontratatzea lortzeko. Agenda gehiegi ez betetzeko eta normalean horrelako jarduerarik ez duten espazio publikoak bultzatzeko, programak ezohiko espazioetan eta zirkuituetan garatu behar dira.

**123.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Osasunbideak bere gain har dezala, kirol-federazioentzat kosturik gabe, Nafarroako kirolari federatu guztientzako osasun-laguntza Nafarroa osoan, maiatzaren 15eko 64/2003 Foru Aginduan jasotako baldintzetan, federazioek aukera izan dezaten planteatutakoaz bestelako laguntza bat eskaintzen jarraitzeko hala eskatzen duten kirolariei.

### **8.13. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua**

#### **124.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

- Auzi zibiletan, lanekoetan edo merkataritzakoetan, eta, bereziki, etxegabetzeen ondoriozko prozeduretan eta banku-kontratuetakoa abusuzko klausuletan, susta ditzala gatazkak judizioz kanpo konpontzeko mekanismoak; horietan, gainera, jurisprudentzia baketsua duten «lekuko kasuei» lotutako adostasun-protokoloak aktibatu beharko liriteke.

- Bildu ditzala genero- eta desgaitasun-ikuspegia, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.

**125.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio jar dezala abian bermaturiko zerbitzu espezifiko bat, Nafarroan familiaren laguntzarik ez duten gazte migratzaileen autonomia- eta emantzipazio-prozesuak bultzatzeko, gazte horiek helduaroan integratzea erraztuz, hainbat eremutan laguntza eskainiz; arreta berezia ipini beharko zaio mentoretzari ikuspegi integraletik, genero-ikuspegia, desgaitasuna eta Garapen Jasangarriko Helburuak eta Agenda 2030 barnean harturik.

**126.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aurrera egin dezala Nafarroako Justizia Administrazioaren eraldaketa digitalean, telelana sustatuz, epaiketa telematikoak eginez eta espediente digital judiziala behin betiko ezarriz.

**9.**

**II. ERANSKINA:  
NAFARROAKO  
PARLAMENTUAREN  
BATZORDE  
BEREZIAREN  
EBAZPEN-  
PROPOSAMENAK  
PLANEKO  
NEURRIEKIN  
BATERATZEA**

## 9. II. ERANSKINA: NAFARROAKO PARLAMENTUAREN BATZORDE BEREZIAREN EBAZPEN-PROPOSAMENAK PLANEKO NEURRIEKIN BATERATZEA

Eranskin honetan, Nafarroako Gobernuak departamentuek jasotzen dute zer-nola bateratzen diren, batetik, Nafarroa Susperitu Planari buruzko Batzorde Bereziaren Mahaiaren irizpenean jasotako ebazpen-proposamen bakoitzaren egokitzapena eta, bestetik, plan honetako neurriak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua		
1.	Lehentasuna ematea zergak itzultzeko prozedurak, bidegabeko sarrerak eta aldeko ebazpenak gauzatzeko prozedurak izapidetzeari.	
2.	Estatuarekiko elkarrizketa izatea eskumenen transferentzia arintzeko: trafikoa, espetxe-osasuna, I+G+B eta ikasteko beka eta laguntzak.	
3.	Iruzur fiskala: Iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzko Foru Legea aldatzea, iruzur fiskalaren behatokia sortzea eta iruzurraren aurkako borrokan diharduten langileak ugaritzea.	M158
4.	Espainiako Gobernuarekin zorpetze-politika berri bat negoziatzea, gure errealitatearekin eta behar ekonomikoekin bat datorrena.	
5.	Aberastasun handiei zerga bat ezartzea edo aberastasunari zerga bat ezartzeko aukera aztertzea. Genero- eta desgaitasun-ikuspegia biltzea, baita Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekiko konpromisoak ere.	M159
6.	Espainiako Gobernuari eskatzea indargabetu ditzala Konstituzioaren 135. artikulua erreforma eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa.	
7.	Laguntza, dirulaguntza eta onura fiskalei buruzko araudia aldatzea, ekoizpena eta enplegua ez deslokalizatzea baldintzatutako enpresetarako.	M7
8.	Harmonizazio fiskala babestea eta Europar Batasuneko erakundeen aurrean eskatzea.	M159
9.	Diru-bilketa hobetzea, iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomia eta aitortu gabeko enpleguaren aurkako borroka bidez. Zuzeneko zergen onura fiskalen eraginkortasunari eta efizientziari buruzko txostena egitea.	M158

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua		
10.	Foru Administrazioan telelana sartzeko plan bat sortzea.	M102 M161
11.	Enplegu publikoari buruzko neurriak sartzea: Birjartze-tasa ezabatzea, enplegu publikoa sendotzea, batez ere hezkuntzan eta osasunean, eta Funtzio Publikoaren Estatutu Berria. Larrialdietako zerbitzu publikoak eta plan berezia indartzea pandemiagatiko arrisku-egoeretarako.	M155 M156
12.	Berdintasunarekin lotutako neurriak: Mahai bat deitzea, epe labur, ertain eta luzearako jarduketaren plana egiteko.	M105 M107 M108
13.	Proposamenak garatzea: osasun-irizpideak espazioak irekitzeko; komunitate-espazioak planifikatzeko departamentuen arteko batzorde bat sortzea; 12 urtetik beherakoak, mendekotasuna duten adinekoak eta desgaitasuna dutenak zaintzeko laguntza ekonomikoa; eta gazteentzako eta haurrentzako programak ezartzea.	M103 M104 M111
14.	Emakumeen berdintasuna eta eskubideak txertatzeko eta genero-indarkeriaren aurkako balioak aldatzeko neurriak.	M106 M109
15.	Birjartze-tasa kentzea negoziatzea.	M155
16.	Nafarroako Barne Erasmus proba pilotua.	M127
17.	Lan-eskaintza publikoari lotutako neurriak: Estatuko araudia indargabetzea eskatzea, hautaketa-prozedurak deitzea, foru-administrazioiko plantillak handitzea eta egokitzea.	M155
18.	Larrialdien arloko erakunde berria eta toki-erakundeei zuzendutako autobabeserako plan berezia.	M151, M152
19.	Adingabeak zaintzeko guneak eta zerbitzuak planifikatzeko neurriak, udan gazteentzako eta adingabeentzako hezkuntza ez-formala, eta toki- eta gizarte-erakundeentzako laguntzak.	M114
20.	Administrazioaren lan ez-presentziala arautzea eta enpresetan kontziliazioa eta erantzukidetasuna errazteko neurriak sustatzea.	M10 M101 M102 M107
21.	Gazteentzako neurriak: hezkuntza ez-formala babestea, ekintzailentzarako trebetasunak eta gaitasunak garatzea eta gizarte-ekonomia sustatzea.	M12, M13, M67, M114



Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua.

22.	Etxebizitza-parke propioa birgaitzeko plana.	M117
23.	65 urtetik gorakoei babestutako alokairu-eskaintzarako sarbidea errazteko araudia aldatzea.	M116
24.	Etxebizitza hutsen errolda egiteko neurriak.	M117
25.	Hirigintza-hausnarketa egitea, bizikidetza-eredu berriei, bizigarritasun-parametroei, espazio komun en diseinuari, birgaitzeko lehentasunei, etxabeen araudiari, industrialdeen aktibazioari eta abarri ekiteko.	M116 M8
26.	Etxebizitzaren arloko lege-neurriak: etxebizitza berehala eskuratzeko formulak, etxebizitza babestu mugagabearen kalifikazioa, etxegabetzeen aurkako babesa, alokairuaren babesa.	M115 M117 M118
27.	Hutsik dauden udal-orubeen tokiko kudeaketa-eredua, babestutako alokairuko etxebizitza publikoak eraikitzeke.	M117
28.	Alokairu sozialeko poltsa, gehieneko alokairu-prezioa eta guraso bakarreko familiei etxebizitza duina bermatzeko neurriak areagotzea, pilaketa saihesteko.	M115
29.	Familia-etxe kalteberetarako etxegabetze- eta kaleratze-prozeduraren etenaldia 6 hilabetez luzatzea.	M115
30.	Landa-eremuko eraikinen birgaitzea malgutzeko arau-tresna bat gaitzea.	M47 M48 M117
31.	Elkarlaneko etxebizitza-ereduak eta arau-esparrua ezartzeko aukerari eta bideragarritasunari buruzko azterlana.	M116

Lurralde Kohesiorako Departamentua.

32.	Tokiko Inbertsioen eta toki-erakundeen erabaki askeko inbertsioen plana handitzea.	M63 M65 M67
33.	Azpiegiturak sustatzea: Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena amaitzea eta 2. fasea eraikitzea, eta Prestazio Handiko Trena bultzatzea.	M31 M33
34.	Despopulazioari aurre egiteko Parlamentuko jardunaldietan egindako proposamenak kontuan hartzea.	M30 M32 M66 M67 M68
35.	Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren proposamenak gehitzea: erakundeen arteko koordinaziorik handiena, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudia aldatzea, toki-administrazioaren jarduera suspertzea, ekonomia eta gizartea suspertzeko neurriak.	M2 M63
36.	Errepide-sareko mantentze-lanak eta inbertsio berriak finantzatzeko politika garatzea.	M30
37.	Toki-erakundeei buruzko neurriak bultzatzea: finantzaketa-eredu berria, administrazio elektronikoaren ezarpena, landa-eremuetako inbertsioak.	M63 M66 M67 M160 M174
38.	Tokiko inbertsioetarako plan berria eta errepideak edo bestelako bide-azpiegitura batzuk finantzatzeko plan berria.	M30 M65

Hezkuntza Departamentua		
39.	Hezkuntza Larrialdietarako Plan Ekonomikoa egitea.	M120 M124 M125
40.	Pertsonak gizarte birtualean biltzeko inbertsio-plana, onlineko irakaskuntzarako tresnak, prestakuntza eta eduki birtualen garapena.	M121
41.	Segurtasuna eta osasuna bermatzeko inbertsio-plana, espazioen analisia eta beharrezko egokitzapenak eta moldaketak.	M124 M125
42.	Hezkuntzarako Itun Sozial eta Politikoa, krisi-egoera berrietarako indartze plana. Landa-eskola sustatzea, bazterkeria-arriskuan dauden ikasleen eskolatze-maila hobetzea, kalitatezko lanbide-heziketa bultzatzea.	M120 M122 M123
43.	Foru Komunitateko garapen ekonomikoaren funtsezko ardatzekin lerrokatutako Lanbide Heziketako titulazio berrien aldeko apustua; Lanbide Heziketa duala eta euskarazko eta gaztelaniazko plazen gehikuntza.	M123
44.	Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Ituna betetzea.	M120
45.	Gobernuaren eta hezkuntza-komunitatearen arteko hartu-emanak sustatzea, egoera epidemiologikoetan eta kontingentzia-planean neurriak hartzeko.	M124
46.	Talka-neurriak hartzea aniztasunari kalitatezko arreta bermatzeko (arrakala sozioekonomikoa gainditzeko laguntza, indartzeko eta laguntzeko beharrak, eta aniztasunaren arretarako plana berritzea).	M122
47.	Ikastetxeetako ekipamendua hedatzeko eta birjartzeko plana sustatzea, bai eta hura mantentzea ere; beharrei egokitutako konektibitatea ematea, eta irakasleen, ikasleen eta familien gaitasun digitalak bultzatzea.	M28 M29 M121
48.	Aintzatespen handiagoa ematea eskola publikoko irakasleen lanari, eta Tutoretzako Prestakuntza Plana bultzatzea, irakaskuntza-prozesuak optimizatzea eta hobetzea, eta laguntza sozioemotionala sustatzea.	M125

## Herritarrekiko Harremanetako Departamentua

49.	Nafarroako Gobernuaren Europako Ekintza Plana berrikustea eta kaltetutako sektore guztien onurarako zeharkako proiektuetan arreta jartzea. Funtsak eta transferentziak eskuratzea.	M179 M180 M181
50.	Nafarroako Gobernuak rol aktiboa izatea EBko funtsen negoziazioan, banaketan eta kudeaketan, Next Generation UE Planaren bidez.	M181 M182 M183 M184
51.	Erakundeen elkarlana sustatzea, euskaraz dauden prestakuntza- eta kultura-produktuen Interneteko eskaintza areagotzeko.	M132
52.	Bilera Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Akitania Berriarekin, hainbat arlotan lankidetzan aritzeko.	M186
53.	Nafarroaren presentzia aktiboa sendotzea eta indartzea Europako erakundeetan (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdea, Eskualdeetako Lantaldea, Pirinioetako Lan Elkarteak), sinergia positiboak batzeko.	M186
54.	I. Bizikidetzak Plan Estrategikoa egokitzea osasun-larrialdiaren eta haren ondorio ekonomiko eta sozialen eraginez izanen dugun egoera berrira.	M129

Osasun Departamentua.		
55.	Berrikuntza eta ikerketa biomedikoa bultzatzeko plan bat egitea, bai eta babes-materiala, norbera babesteko ekipamenduak, testak eta bestelako osasun-material batzuk bertan ekoizteko eta erosteko plan bat ere, COVID-19ak eta beste osasun-larrialdi batzuek sor ditzaketen berragerraldiei erantzuteko, betiere ekonomia suspertzeko apustu badira.	M78 M88
56.	Aurrekontua areagotzea osasun-arloko informazio-sistemak, emaitzak ebaluatzen dituzten sistemak, berrikuntza eta adimen artifiziala garatzeko, horrekin asistentziaren kalitatea eta osasun-jardueraren emaitzak hobetze aldera.	M86 M91 M166 M167
57.	Osasun-jarduera birprogramatzeko partaidetza-plan bat egitea, osasun-jardueraren normalizazioa lehenetsiko duena.	M78
58.	Osasun Publikoa indartzea. Oinarrizko osasun-arretarekin eta toki-administrazioekin dituen estrategiak koordinatzea, eta epidemiologia-zerbitzuen gaikuntza eta gaixotasun infekziosoen aurkako borroka indartzea eta hobetzea.	M78
59.	Google eta Apple teknologia duten enpresak sustatzea, kontaktuak monitorizatzeko eta arakatzeko laguntzeko.	M86
60.	Osasunari buruzko foru lege-proiektu bat aurkeztea eztabaidatzeko, zeinak osasungintza publikoa blindatzeko balioko baitu, behar adina finantzaketa bermatuz.	M78 M91
61.	Nafarroako Ospitalegunean Immunologia Zerbitzua ezartzea, laborategi espezializatua indartzea eta immunoterapiako eta terapia zelularreko tratamenduen kontrol publikoa bermatzea.	
62.	Egoitza horietako farmazia-arreta berreskuratzea, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zerbitzuek eta profesionalek ematea. Osasun-langileen profilak eta funtzioak birdefinitzea, karga administratiboa kenduz eta kupoak osasun-txartel indibidualen arabera murriztuz. Gizarte-laneko eta psikologiako administrariak indartzea.	M84 M82
63.	Farmazia-industriaren informazioa jasotzeko sistema zentralizatu bat sortzea, farmazia-gastua handitzea, etengabeko prestakuntzaren gastua erregulatzea eta areagotzea, eta hobekuntza-ebidentzia garrantzitsurik gabeko tratamendu eta terapien kontrola sustatzea.	M78

64.	Oinarrizko osasun-eskualde bakoitzean oinarrizko osasun-laguntza bermatzea (ibilgailuak, uniformeak, ekipamendua...). Osasun-langileen administrazio-karga murriztea.	M82
65.	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren garapena eta indartzea bultzatzea (eskura dauden baliabideen aprobetxamendua, bai eta lan publikoaren eskaintza indartsu bat egitea ere, giza baliabideak ugaritzeko eta egonkortasuna emateko). Nafarroako oinarrizko osasun-laguntzarako 2019-2022 aldirako Estrategia garatzea, zuzkidura ekonomikoa eta sustapen- eta prebentzio-funtzioen garapena ziurtatuz eta areagotuz. Osasun-zentroetako espezialisten ratioak bikoiztea (psikologoak, gizarte-langileak, fisioterapeutak). Teleosasuna bultzatzea. Osasun komunitarioko planak egitea.	M81 M83 M86
66.	Adinekoentzako asistentzia indartzea. Adinekoen egoitzei arreta berezia zeini bere inguruan emateko eremu soziosanitarioa; etxeko laguntza eta teleasistentzia indartzea.	M84

Eskubide Sozialetako Departamentua		
67.	Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetarako kontingentzia-plana.	M98
68.	Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta enplegu-agentziak indartzea, gizarteratzea eta laneratzea bermatzeko, eta hirugarren sektoreko erakundeen programak indartzea gizarteratzearen eta desgaitasunaren eremuan. Gizarte-larrialdietarako laguntzak areagotzea.	M93 M95 M91
69.	Enplegu-plana prestatzea.	
70.	Laguntza ekonomikoak enplegu-zentroetarako, gizarteratzeko enpresetarako eta enpresa eta berrikuntzako Europako zentroetarako, 2020an likidezia ekonomikoa bermatzeko, eta ekintza-plan bat gizarteratzeko enpresetarako eta enpresa eta berrikuntzako Europako zentroetarako.	M13
71.	Enplegu-politika aktiboen berrantolaketa eta COVID-19aren osasun-krisiak eragindako lan- eta ekonomia-egoerari aurre egiteko esparru-akordioa.	M34 M35 M36
72.	Ekonomia Sozialaren aldeko apustua areagotzea, COVID-19aren krisiak Ekonomia Sozialaren I. Plan Integralean izan duen eragina balioestea, eta II. Plana egitea.	M13
73.	Parte hartzeko prozesu bat gauzatzea, egoitzek osasun-krisiaren garaian izandako egoera aztertzeko eta neurriak proposatu eta planifikatzeko.	M98
74.	Bakarrik, laguntzarik gabe eta familia-sarerik gabe bizi diren pertsoneri buruzko azterketa eta jarraipena egiteko eta laguntzeko neurriak ezartzea. Etxeko arreta zerbitzua indartzea.	M98 M103 M104

75.	Mahai bat sortzea auzo- eta erkidego-organoak koordinatzeko, sortzeko eta sustatzeko, haurrei, adinekoei eta mendeko pertsoneri prebentzio-ikuspegiz arreta emateko erkidego-sareak eta proiektuak sortzeko egitura administratiboak biltze aldera.	M95
76.	Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Agentzia sortzea.	M190
77.	Mendekotasun- eta desgaitasun-egoeran dauden pertsoneri arreta emateko prestazioak eta zerbitzuak sustatzea eta hobetzea (baterako ordainketa, errentaren arabera). Lidergo publiko handiagoa duen egoitza-arretako eredu berria, pertsonak ardatz dituen arreta integrala emateko eredu. Asistentzia- eta desgaitasun-zentroen erreformak finantzatzeko aurrekontu-partida.	M98 M99 M100
78.	Funtsak bideratzea pobreziaren aurka borrokatzeko, gizarteratzeko eta laneratzeko politikak indartzeko, eta errentak bermatzeari, errenta bermatuari eta haur-pobreziaren aurkako borrokatzeko programa-akordioak konpromisoak betetzeko.	M92
79.	Baimenen dekretu berria, 2020. urtea amaitu baino lehen, egoitza-zentroak, desgaitasun-zentroak eta gizarte-zerbitzuetako beste zentro batzuk (izan propioak, izan toki-erakundeak) birmoldatzeko eta birgaitzeko inbertsioak bultzatzeko, pandemiakin loturiko prebentzio-neurriak hartzeko.	M99 M100
80.	Gizarte-zerbitzuetako oinarrizko laguntza garatzeko plana eguneratzea eta ezartzea, COVID-19aren krisiaren ondorioz sortu diren premiei ere erantzuna emateko.	M93
81.	Gizarteratze-plana eguneratzea, egokitzea eta aplikatzea, COVID-19aren krisiak eragindako gizarte-premia berriak eta egindako ebaluazioa kontuan hartuta.	M93 M94 M95 M96 M97



Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua		
82.	Zuntz optikoaren hedatzeko inbertsioa handitzea eta zuntz optikora sarbide unibertsala izateko akordioak egitea, eta Nafarroako Gobernuak eskainitako prezioak egungo merkatura egokitzea eta negoziatzea.	M25
83.	Energia garbia sortzeko eta biltegitartzeko berrikuntza sustatzea; sektore biomedikoa negozio-ildo gisa bultzatzea.	M18 M23 M41
84.	Nafarroan oinarri teknologikoa duten enpresen garapena bultzatzea. Unibertsitateko beken programako hobekuntza-plana.	M12 M17 M23
85.	Adimen Artifizialeko Nazioarteko Nafar Zentroa sortzea.	M178
86.	Eskubide digitalen lege-proiektua egitea: estaldurarik ez duten Nafarroako udalerrietarako neurriak eta inbertsioak.	M162 M25
87.	Tasei eta bekei buruzko neurriak, COVID-19aren krisia dela-eta inork ez dezan izan arazorik unibertsitatean sartzeko edo jarraitzeko. Larrialdi-planak, beharizan-egoeran dauden ikasleentzat.	M122
88.	Ikerketa bi ardatzetan sustatzea: Biomedikuntza, Nafarroako ekoizpen-sarearen dibertsifikazioa eta ekoberrikuntza. SINAI, INAMAT eta ISC, CENER eta IdisNAko eragileen lana sustatzea. Unibertsitate publikoen arteko hitzarmen bat sustatzea (Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Bordeleko Unibertsitatea), orpoz orpo lan egiteko ikerketa-proiektuetan eta ezagutza eta talentuak trukatzeko egitasmoetan.	M21 M23 M186
89.	Irakasleen eta gurasoen teknologiarako sarbidean den arrakalari erantzuna ematea. Herritarrei prestakuntza ematea teknologia berrietan eta Nafarroako	M28 M29
90.	Kalitatezko ikerketa zientifiko publikoa sustatzea eta babestea. Osasun-ikerketa sustatzea, patente-kontratuak eta zientziaren plan publikoa arautzea.	M21 M23
91.	Lau urteko plana, banda zabaleko sarea eta 5G sarea Nafarroa osoan ezartzeko, toki-erakundeekin lankidetzan.	M25
92.	Erosketa Publiko Berritzailearen Atala aktibatzea, finantzaketa-konpromisoarekin.	M18

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua		
93.	Abal-lerroak areagotzea, jarduera ekonomikoa gelditzearen ondorioak arintzeko.	M1
94.	Neurri-sorta bat onartzea, oinordetza-zailtasunak edo enpresa-jarraitutasuna bermatzeko zailtasunak dituzten enpresak berreskuratzeko eta lan elkartuko kooperatiba edo lan-sozietate bilakatzeko; horiek, besteak beste, inbertsiorako eta zirkulatzailerako berariazko abal-lerroak eta birmoldaketa- eta eraldaketa-prozesuetarako aholkularitza teknikorako laguntzak jaso beharko dituzte.	M13
95.	Nafarroako Berritze Plana suspertzea ibilgailu berriak erosteko.	M11
96.	Pandemiaren ondoriozko agertokira egokitutako enplegu-plan baten inguruko akordioa lortzea.	M35 M36
97.	Krisi-egoeran dauden enpresa txiki eta ertainak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntza-programa.	M1
98.	Nafarroa Suspertu Planean saltoki txikiei eta zirkuitu laburrei laguntzeko neurriak sartzea.	M4 M5
99.	Nafarroako Industria Plana eta Espezializazio Adimentsuaren Estrategia S3 eguneratzea.	M11 M12 M15
100.	Ekonomia sozial, kolaboratibo eta solidariorako laguntzak. Industria-jarduerak birkokatze bidean aurrera egitea. Funtsezko ondasunen hornidura. Industria-ehuna sustatzeko eta dibertsifikatzeko finantzaketa. Tokiko ekintza-taldeen eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzak-tresnak, barneko turismoa indartzeko.	M13 M7 M3 M72
101.	Medikuntza Pertsonalizatuaren eta Zehaztasunaren Estrategia Integrala egitea eta berrikuntzarako plataforma abian jartzea IDISNAren esparruan. Turismo-sektorearen ekintza-plana eta COVID-19aren aurrean helmuga segurua egiteko neurriak lantzea. Industria sortzaileen eta digitalen sektoreko erreferentziazko eragile pribatuekin lan egitea. Nafarroako enpresen eta esportazioen nazioartekotzea laguntzea. Denda txikien negozio-ereduak eraldatzen laguntzea, digitalizazioaren bidez. Ekintzailtza eta enpresa-proiektuak babestea. I+G+Bko inbertsioa. Eraldaketa digitala.	M18 M23 M3 M142 M9 M4 M76 M12 M17 M25

102.	<p>Digitalizazioan, datuen zientzian eta Berrikuntza Digitaleko Poloan ageri diren lan-ildoak finkatzea eta sustatzea.</p> <p>Lanbide Heziketa duala, lanbide-gaikuntza eta gaitasun digitalen garapena sustatzea.</p> <p>Trantsizio energetikoari buruzko ibilbide-orria betetzea.</p> <p>Automozio-sektorerako pizgarriak.</p> <p>Ostalaritza, turismoa eta merkataritza berreskuratzeko plana.</p>	<p>M24</p> <p>M26</p> <p>M178</p> <p>M123</p> <p>M29</p> <p>M39</p> <p>M43</p> <p>M11</p> <p>M6</p> <p>M3</p> <p>M4</p>
------	---	---

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua		
103.	Landa-inguruneari laguntzea, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak, baratzezaintza, mahastizaintza eta abar suspertzea. Nekazaritzako elikagaien katea eta enpresa-dimentsioa handitzea, S3ren funtsezko osagai gisa.	M5 M59
104.	Energia berriztagarrien elkartea sustatzea ureztatzeak modernizatzeko proiektuetan. Nafarroako Ubidearen garapena eta Ureztatzeen Foru Plana eta uraren estrategia.	M58 M31
105.	Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko foru-legea bultzatzea. Ekonomia garbia eta zirkularra sustatzea, Nafarroako Ekonomia Zirkularraren Agenda aplikatuz. Biodibertsitatearen foru-legea sustatzea.	M48
106.	Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreei laguntzeko neurriak. Kalitatezko produktuak sustatzea, bertakoa eta gertukoa dena aitortzea, elikadura-katearen funtzionamendua hobetzeko neurriak hartzea, merkaturatzeko zirkuitu laburrak bultzatzeari lehentasuna ematea, hurbileko eta tokiko merkataritzari laguntzeko neurriak barnean harturik. Tokiko nekazaritzako elikagaien sektorea suspertzeko erosketa publikoa. Nekazaritzako plan estrategikoa. Nekazaritza Politika Erkidearen eredu berria defendatzea. Aisialdiko baratzeetako autolaborantza babestea.	M5 M60 M61 M74 M76
107.	2020ko irailaren 30a baino lehen onestea Klima Aldaketari eta Energia Ereduaren Trantsizioari buruzko Foru Legea, Parlamentura bidaltzeko. Nafarroako Energia eta Klima Aldaketaren Agentzia eta Nafarroako Klima Funtza sortzea.	M48
108.	Klima Aldaketaren Foru Legea bultzatzea, erronkei aurre egiteko eta araudia kontrolatzeko eta fiskalizatzeko ikuskapen-programa barnean har dezan. Fiskalitate berdea, zero hondakinekin lan egiten duten enpresak saritzeko. Ingurumen-babesaren ikuspegi berria. Berrindustrializazio berdearen estrategia. Lanbide Heziketako titulazio berria eta ekonomia zirkularrari buruzko akreditazio profesionala.	M48
109.	Ekoizpen ekologikoa sustatzeko inbertsioak lehenestea. Elikagaien soberakin ekologikoen eta tokiko soberakinen erosketa publikoa, elikagaiak premia duten herritarrei helarazteko zaurgarritasun-txartelen bidez. Landa-inguruneko autoenplegua sustatzea.	M56
110.	Trantsizio ekologikorako, emisioak murrizteko eta energia-kontsumoa arrazionalizatzeko plan estrategikoa bultzatzea. Energia berriztagarrien, eraikinen birgaitze ekologikoaren, birziklatzearen, berrerabileraren eta hondakinen kudeaketaren aldeko apustua. Airearen kalitatea hobetzeko plana prestatzea.	M48 M39 M49

111.	Familia-nekazaritza eta ustiategi txikiak defendatuko dituen nekazaritza-politika berri bat sustatzea. Abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoa bultzatzea.	M76 M56
112.	Garapen jasangarrirako gako diren gidak eta planak sustatzea eta egitea, oinezkoek eta bizikletek espazio publikoa gehiago erabiltzera bideraturik; kutsagarriak ez diren tokiko mugikortasun-planak. Iturri berriztagarrietatik eskuratutako energia elektriko bidezko garraio kolektiboko neurriak aztertzea eta abian jartzea. Bizikletak eta ibilgailu jasangarriak erosteko laguntzak.	M32
113.	2021-2027 aldirako landa-garapeneko plana, landa-ingurunearen bizi-kalitatea hobetzeko esparru-estrategia eta tresna estrategiko gisa.	M76
114.	Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiak maneiatzeko teknika berrietarako aholkularitza, ikerketa eta esperimenezkoak sustatzea; ekoizpen-teknikak eta izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzeko teknikak berritzea; eta ekoizpen-prozesu osoaren digitalizazioan aurrera egitea.	M57

Departamento de Cultura y Deporte		
115.	«Navarra aplaude» plana: kirol- eta kultura-bonuak eta kultura- eta kirol-bonu solidarioak (langabetuak, erretiratuak, osasun-zerbitzuak eta oinarrizko zerbitzuak).	M142
116.	Ondare historiko kulturala kontserbatzeko, zaharberritzeko, mantentzeko eta zabaltzeko plana.	M143
117.	Bonu kulturalak % 15eko deskontuarekin, kultura-artikuluak erosteko (liburuak, musika) tokiko merkataritzan, Baluarte eta Nafarroa Arenako emanaldien sarreretan eta Nafarroako museoen sarean.	M142
118.	Onetsi berri den Kultura Talka Planerako aurrekontu-zuzkidura. Kultura-sektorea babesteko neurriak.	M142
119.	COVID-19aren krisiak herri-jarduera kulturaletan eta jarduera folklorikoetan zer inpaktu izan duen aztertzea eta ondorioak arintzeko neurriak diseinatzea.	M142
120.	Kirola egiteko aukera, instalazioak egokitzeko laguntzak, aire zabaleko praktika-espazioak eta landa-lurretako jarduketak bermatzea.	M146 M147
121.	Krisiaren ondoren kultura-sektorearen egoera arintzeko premiazko ezohiko deialdiak.	M142
122.	Kultura-sektorearen eraldaketa digitala babesteko programa. Arte eszenikoen arloko erakustaldi-programak eta ekintzak, Nafarroako profesionalen artean enplegua sortzeko.	M145
123.	Osasunbidearen osasun-laguntza kirolari federatuentzat, kirol-federazioentzat kosturik gabe, federazioek beste laguntza batzuk eskaini ahal izatearen kalte gabe.	M147

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua		
124.	Gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko mekanismoak sustatzea auzi zibiletan, lanekoetan edo merkataritzakoetan, eta, bereziki, etxegabetze-prozeduretan eta abusuzko banku-klausuletan.	M139
125.	Nafarroan familiaren laguntzarik ez duten gazte migratzaileen autonomia- eta emantzipazio-prozesuak bultzatzeko zerbitzu espezifikoak, mentoretzan arreta berezia ipiniz.	M96
126.	Aurrera egitea Nafarroako Justizia Administrazioaren eraldaketa digitalean, telelanaren sustapenean, epaiketa telematikoetan eta espediente digital judiziala ezartzeko bidean.	M138